# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-10-26
EGUBAKOITZA
527. ZENBAKIA
12. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## "Jakiunderen egoitza azaroan irekiko dugu"



**Jesus Mari Ugalde**
Jakiundeko presidentea | 8

## Rezusta eta Bolinaga, Frantziara

Munduko Pilota Txapelketa jokatuko dute, gaur hasita | 29

Uribetxeberriaren kontrako salaketa iragarri du AVT elkarteak | 4



El Gallinero ijito-kokalekuko (Madril) 33 ume Bergarara | 21



Zabalik dago espazio publikoen gaineko erakusketa Oñatin | 16

# 25 TONA

Aratz Aldai mutiko eskoriatzarrari laguntzeko 25 tona tapoi batu dituzte. Tapoi tona bakoitzeko 210 euro eman dizkiote familiari. Eskuratutako diruarekin etxeko komuna egokituko dute, mutikoari traba egiten dizkioten oztopo guztiak kenduta. Orain, Naiara Agreda arrasatearrarendako tapoi bilketa kanpaina egiten ari dira. | 24



## SINADURAK



"Gora Euskadi hasta Calcuta!" | 6
XABIER MUGARTZA

6 | "Badau gaur buruhandirik?"
AITZIBER ARANBURUZABALA



Gozo-gozo, bero-bero | 12
HORACIO ARGARATE

40 | Parlamentu berria
AGURNE BARRUSO


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38


# Domu Santua gogoan, katoliko izan edo ez

Hil diren arbasoak gogoratzeko egun bereziak mundu osoko kultura guztietan errespetatzen dira | 2




## ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira. Ez ahaztu!



Jendea Oñatiko hilerrian, lorez jantzitako hilobien artean. | JOSETXO ARANTZABAL

# Katoliko izan edo ez, Domu Santua ospatuko dute gehienek

- Debagoiendarrek aintzat dute azaroaren 1a
- Parrokoak dioenez, "kultura eta ohitura kontua" da
- Herri guztiek dute arbasoak omentzeko grina

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Direnak direla norberaren sinismen erlijiosoak, edo sinismen erlijioso ezak, debagoiendar guztiondako berezia izango da azaroaren 1a. Eliza Katolikoarendako, Domu Santu da, hildako guztiak gogoratzeko eta omentzeko eguna, baina katolikook zein gainerakook modu berezian gogoratuko ditugu hil diren arbasoak, hain justu egun horretan.

Zergatiak ez dio beharbada ezer zor norberaren fedeari, eta bai, ordea, Euskal Herriko kulturan eta ohituretan. Gaur egun fede katolikoa bere momentu onenean ez dagoen arren, mendeetan zehar, gaur egungo kultura iragazten joan da, eta hori erabiltzen dugun egutegian, dazkagun ohituretan... islatzen da.

Arrasateko parrokoa da Horacio Argarate, eta berak honela azaltzen digu: "Sinestunek fedearen arabera jokatuko dute, baina pertsonak gara eta sortuak izan gara. Horregatik, joan zaizkigunak maite izan baldin baditugu, ezin ditugu ahaztu". Eta munduko bazter guztietan gertatzen da hori: "Txinan, arbasoen inguruko kultura izugarria dute; gure euskal arbasoek mendira jotzen zuten hildakoendako lekua sortzera; Afrikako tribuek ere arimak gogoratzen dituzte; budua bera ere horretan oinarrituta dago... Domu Santuak kristautasunean bidea eginda dauka, eta kultura hori gurean nagusi izan den bitartean horretaz kutsatuta dago; baina berdin da, mundu osoan ez dago herririk edo familiarik aurrekoak gogoratzen ez dituenak".

Argarateren esanetan, orain azaroaren 1a hildakoak modu berezian gogoratzeko eguna izateak indar handia duenez, jende gehienak, katolikoa izan edo ez, "egun hori aprobetxatzen du" zer edo zer berezia egiteko: "Beti dago oroitzapen berezi bat. Adibidez, bateren batek amak gustuko zuen kantu hura entzungo du; beste batzuk mendira igotzen dira... Norberak bere modua topatu du, gazte jendeak ere bai", azaltzen du.

### Erromako martirien omenez

Domu Santu eguna antzinako ohituretatik eratorritako ospakizuna da. Kristauak Erromako Inperioaren garaietan jazartzen zituztenean, hainbeste martiri izaten zirenez, horiek guztiak omentzeko egun bat hartzen hasi ziren. Hori IV. mendean gertatu zen. Behin Bonifacio IV.aren aitasantutza-aldian, 600. urte inguruan, maiatzaren 13a bihurtu zen martiriak gogoratzeko eguna, Aita Santu horrek Erromako panteoi bat kontsakratu baitzuen egun hartan. Gregorio III.ak (731-744) azaroaren 1era pasatu zuen ospakizun hori, zeltarren Hildakoen Egunarekin (urriak 31) bat egin zezan, eta Gregorio IV.ak zabaldu zuen ospakizuna Eliza Katoliko osora.

Ospakizuna aldatzen ere joan da, hala ere. Eliza Katolikoarendako, azaroaren 1a eta 2a, bi egunak ziren hildakoei eskainitakoak: bata, Santu Guztien Eguna; eta bestea, Hildakoen Eguna edo Hildako Fededunen Oroitzapen Eguna. Azken horretan, purgatorioan zeuden arimen alde egiten zen otoitz eta hilerriak bisitatzen ziren. Kultura katolikoko zenbait herrialdetan, oraindik azaroaren 2an ospatzen dute Domu Santua.

Horrenbestez, gaur egungo Domu Santu eguneko ohitura ez da ere hain antzinakoa: Horacio Argaratek azaltzen duenez, gaur egun ezagutzen dugun moduan, ospakizunak 1.000 urte ditu. Ordukoa da ere hilobia lorez apaintzeko ohitura. Argarateren esanetan, bultzatzailea Clunyko Odilion abatea izan zen. Hura oso abate boteretsua eta eragin handikoa izan zen, eta bere eraginpean zeuden monasterioetan azaroaren 2a ezarri zuen hildako guztien alde otoitz egiteko egun gisa. Hortik mundu katoliko osora zabaldu zen ohitura. Horacio Argaratek dioenez, "hilobiak loreekin apaintzeko ohitura hori nahiko berria da" eta garai horretatik dator.

Clunyko abateak eta Vatikanoak lehendik zegoena gaurkotu eta bateratu egin zuten. Kristautasunaren aurretik, kultura guztiek zaintzen zuten arbasoekiko lotura berezi hori. Euskal jentilek eguzkiaren inguruko sinboloak eta ospakizunak egiten zituzten, eta mendiarekin lotutako errituak ere bai. Eta loreak eroateko ohitura ere berri samarra da Euskal Herrian: lehen, argizaiolak eroa-

**HORACIO ARGARATE**
ARRASATEKO PARROKOA

## "Askorendako, hilotza erraustea merkeagoa eta erosoagoa da"



L.K.

Horazio Argarate apaizaren esanetan, gorpua erraustea gero eta joera zabalduagoa da.

**Zenbatek aukeratzen dute gorpua erraustea eta ez hilobiratzea?**

Arrasaten, gehienbat, panteoia daukatenek aukeratzen dute hilobiratzea; urte askotarako dute panteoia, eta erabili behar izaten dute. Bestela, denok batera lurperatze hori ez da jendearen gustukoa. Badirudi norberak bere lekua gura duela. Oro har, jendeak nahiago du errausta eta berak ikusi horrekin zer egin.

**Hori da arrazoi bakarra?**

Ez. Merkeagoa eta erosoagoa da: ez dago zergarik ordaindu beharrik, handik 10 urtera hezurrak atera beharrik... Batzuendako, intimoagoa ere bada: norberak bere gustuko lekuan banatzen edo gordetzen ditu errautsak.

ten ziren hilobietara. On Jose Miguel Barandiaranek ikertu zuen ohitura hori, eta heriotza eta suaren arteko loturaren gainean hauxe idatzi zuen: "Aro megalitikoko beste hileta-erritu bat dolmen aurrean sua piztea zen". Eta hauxe azaldu zuen: "Erritu horren trukean, gaur egun hilobi ondoan argiak pizten dira, hildakoen arimek iluntasuna uxatzeko eskaintza hori behar dutela sinistuta".

Argizaiolen ohitura nahiko galduta dago, baina, batez ere Gipuzkoako zenbait herritan, Domu Santu egunerako berreskuratu egin dute azken urteotan. Ohitura horren ordaina da, beharbada, hilobietan kandelak pizteko grina; denak, kobazuloko sua hil berri den arbasoari ondora eroateko antzinako inpultsuaren islak.

**Bezpera, ondo pasatzeko**

Urriaren 31n, kultura zeltarrak Halloween –"Santu guztien bezpera"– edo Samhain jaia ospatzen zuen, eta gaur egun Ameriketako Estatu Batuetan hain zabalduta dago, justu, etorkin irlandarren eta eskoziarren eraginez. Zergatia hain-hain argi ez dagoen arren, folklorista gehienek uste dute zeltarrek urte berria ospatzen zutela, eta arbasoak omentzen zituztela gau horretan, hildakoen eta bizien munduen arteko muga urteko beste egunetan baino meheagoa zelakoan.

Debagoieneraino ere ailegatu da Halloween-en ohitura, nahiz



**SANTOS FAMILIAR**
ERRETIRATUA

"Normalean, bai, urtero joaten naiz kanposantura, eta loreak ipintzen dizkiet senideei. Sinistuna naizen? Bada, ez banintz, ez nintzateke joango".



**TINA HERNANDEZ**
ETXEKOANDREA

"Lehen urtero joaten nintzen kanposantura, baina aspalditik utzita daukat; orain, ia jende guztiak erraustu egiten du gorpua, eta ez da nabarmentzeko ezer egiten".



**EGUZKIÑE LOITI**
LANGILEA

"Ez, ez dut Domu Santu eguna ospatzen. Guk errautsak baserritik gertuan bota genituen eta Elizatik aparte egiten ditugu egin beharrekoak".



**IÑAKI CACHO**
IKASLEA

"Ni ez naiz kanposantura joaten; ez dut sekula ohitura hori izan eta orain ere ez dut, ez naizelako sinistuna. Lagunekin parranda egiten dut egun horretan".

eta neurri apalean, oraingoz behintzat. Arrasateko parrokoak dioenez, "Debagoienera ez da Halloween ospakizun garbia ailegatu, baizik eta gure Aratusteen antzeko joera bat. Hori horrela den aldetik, batez ere bi taldek ospatzen dute: umeek, bide batez gozokiak jasotzeko eguna dutelako; eta dantzalekuetan, gau girokoak direnez, gai bat ipintzeko eta gaua horrela pasatzeko aukera dutelako". Argaratek ez du uste bata bestearen lehia denik: "Bi sentimenduak desberdinak dira: bat ondo pasatzea da, eta bestea, gure aurrekoekin izandako maitasuna nola gogora ekarri, aurrekoek norberari zer eman dioten pentsatzea…"

**Mezetarako dirua ematea**

Eliza Katolikora itzulita, Domu Santu inguruan bere ospakizunak izaten jarraitzen du, baina herriz herri, parrokiaz parrokia, aldatzen joaten dira.

Arrasaten, adibidez, kanposantuan batzen dira 17:00etan, eta hildako guztion alde otoitz egiten dute. Argaratek dioenez, "jende dezente" joaten da. Eguraldi onarekin, aire zabalean egingo dute, eta, euria bada, hilerriko bi pabilioietako baten.

Domu Santu egunean bertan ez, baina arimaren omenezko elizkizunak parrokia bakoitzak bereak ditu. Oñatin, adibidez, bederatziurreneko mezak ospatzen dira. Joxan Larrañaga parrokoak dioenez, "hilobiratu eta hurrengo egunetik bederatzi egun segidan, mezetan aipatu egiten da hildakoaren izena. Gero, egun baten, baina izenik aipatu gabe, urtean hil diren guztien aldeko meza ematen da. Eta gero, urtebete pasatu deneko meza; Oñatin, zapatu arratsaldetan egiten ditugu horiek".

Badago ohitura katoliko bat, ordea, fededun eta ez fededunek betetzen dutena: hildakoaren omenezko mezetarako dirua ematea. "Belaunaldi gazteagoek beharbada ez dute ondo ulertzen, baina fin-fin betetzen dute, hala ere. Jende gehienak lotura bat sentitzen du: jendeak horretarako eman badu dirua, mezak egiteko, horretarako erabiltzen dute. Eta Arrasaten, atentzioa ematen du zenbat meza irteten den. Leku guztietan gertatzen da, baina hemen nabarmen da gauza horiekin lotura handia dagoela", esaten du Arrasateko parrokoak.

**Ehorztea garestiagoa da**

Etorkizunean, ordea, badirudi askoz jende gutxiagok ospatuko duela Domu Santua hilerrian. Izan ere, Arrasaten, kasuen %90ean gorpua errausta egiten da, eta hor, norberak nahi duena egin dezake: batzuek errautsak gustuko leku baten banatzen dituzte; beste batzuek etxean gordetzen dituzte; hirugarren multzo batek gorpua errausta baina hilerrian gordetzen du… Baserria edo, gutxienez, lur-saila duten familia batzuek lur-sail horretan lurperatzen edo botatzen dituzte errautsak.

Fede-galerak aldatu ez duena arrazoi praktikoek aldarazi dezakete, dirua moduko kontu prosaiko batek, alegia: kasu bat jartzearren, Arrasaten erraustea 310 euro pasatxo da 2012an, eta lurperatzea, 705 pasatxo, eta horrek lurperatzea, nitxo bakarraren mantenua eta lurperatze -eskubideak bakarrik hartzen ditu; gero, hezurtegia 10 urterako alokatu behar da; eta, bestalde, familia bakoitzeko, normalean, lau nitxo alokatzen dira. 10 urte barru, berritu egin behar dira alokairuak, eta tasa gehiago ordaindu.



# Eguazten gaua ezkero etxean da Josu Uribetxeberria, Arrasaten

AVTk haren kontrako salaketa jarriko du gaur, barikua, "terrorismoa goraipatzea" egotzita

**U.M.** | ARRASATE
15 urte espetxean egin ostean, jaioterrian da euskal preso ohia. Haren etxe atarian hainbat komunikabide elkartu ziren eta Irati tabernan ongietorria egin zioten hainbat herrikidek. Hurrengo egunean, berriz, besteak beste, udaletxea bisitatu zuen.

**Tratamendua, etxean**
Uribetxeberriak etxean jarraituko du minbiziaren aurkako tratamendua hartzen; arrazoi horrexegatik utzi dute, justu, aske. Eta, tarteka, Donostiako Ospitalera joan beharko du.

Baldintzapeko askatasunean dago, eta, ondorioz, baditu bete beharreko baldintza batzuk: ezin izango da Arrasatetik atera baimen barik, debekatuta izango du biktimekin harremanak izatea eta ezin izango du ez manifestazioetan parte hartu, ez adierazpenik egin.

**AVTren salaketa**
Bada, dagoeneko iragarri dute haren kontrako salaketa jarriko dutela, baldintzok ez errespetatzearren. Terrorismoaren Biktimen Elkarteko presidente Angeles Pedrazak aditzera eman duenez, "mitinetan egotea eragozten dion agindu judiziala urratu" egin du Uribetxeberriak. "Terrorismoa goratzea" egozten dio, Arrasaten egin zioten "omenaldian parte-hartu" izanagatik. Salaketa gaur aurkezteko asmoa dute, Auzitegi Nazionalean.



Josu Uribetxeberria, Arrasatera iritsi zenean. | JOKIN BEREZIARTUA




Oraingo asteko kale agerraldia, eguaztenean, ospitale aurrean. | U.M.

# Debagoieneko Ospitaleko murrizketak salatzen, astero

Lan handiagoa dutela eta langile gutxiago direla salatu dute, besteak beste

**UBANE MADERA** | ARRASATE
Uztailaz geroztik dihardute Debagoieneko Ospitaleko hainbat langile elkarretaratzeak egiten eguaztenero, ospitaleko murrizketak salatzen. Eta hala segitzeko asmoa dute, ospitaleko egoera aldatu ezean. Sindikatu guztiek babesten dituzte salaketok: UGT, ELA, CCOO, SATSE, LAB, UTESE, SAE eta Sindikatu Medikuak.

**Gauez, zeladore bakarra**
ELAko Bego Azkunagak eta UGTko Ana Muñozek jakinarazitakoaren arabera, Debagoienekoa da "murrizketarik handienak" jasaten dabilen ospitalea: "Ospitale handiagoa zabaldu dute, kontsulta gehiago daude, zaindu beharreko azalera handiagoa, baina horrekin batera, lan-taldea murriztu egin dute. Ondorioz, langileetako batzuek berez ez dagozkien lanak egin behar dituzte, eta langileen euren baldintzak okertzeaz aparte, langabezia handitu egiten da. Nabarmentzeko modukoa da, adibidez, gauez orain zeladore bakarra dagoela ospitale guztiarendako. Pentsa, bi larrialdi baino gehiago batera tokatuz gero, akabo".

**Lau lanpostu gutxiago**
Datutan, momentuz, lau lanpostu kendu dituztela zehaztu dute sindikatuetako ordezkariek, eta, gutxienez, beste bat zalantzan dagoela. Horrez gain, lantaldearen baldintzak okertu egin direla ere azpimarratu dute, "oporrak, norberak hartzeko egunen erdiak eta antzinakotasunagatik zegozkienak" kentzeaz batera, lan-jarduna 35 ordutik 37,5 ordura handitu egin dietelako, besteak beste.

Bestalde, Debagoieneko Ospitalean ematen ziren zerbitzuetako batzuek Gasteizera eraman izana ere salatu dute: "Esterilizazio zerbitzu ona zegoen hemen, baina orain Gasteizera eramaten dute material guztia, taxian, gainera. Horrekin batera, ospitale guztietan moduan, laborategia ere hiriburura eramango dute"

**Zuzendaritza**
Bukatzeko, salatu dute, baita ere, ospitaleko zuzendaritzarekin ez dagoela batere negoziazio mahairik, eta ezta harremanik ere.

GOIENA jarri da zuzendaritzarekin harremanetan, baina ez dute erantzunik eman.

# Gripearen kontrako txertoa hartzeko epea luzatu egin dute

**U.M.** | DEBAGOIENA
Azaroaren 30era arte luzatu du Osakidetzak gripearen kontrako txertoa hartzeko epea. Epea luzatzeaz bat, arrisku taldeendako (65 urtetik gorakoak, gaixo kronikoak eta osasun arloan diharduten profesionalak) txertoa hartzearen garrantzia azpimarratu du, gripe soila gaixotasun larri bilaka daitekeelako.

Kanpaina hasi zenetik 200.000 txerto jarri dituzte, %43,7. Gaixo kronikoen artean %1 handitu da txertoa hartu dutenen kopurua, diabetea *(diabete mellitus)* eta arnas gaixotasunak dituzten 65 urtetik beherakoen artean, hain justu. Gainontzeko taldeei dagokienez, "portzentajeak iazkoak baino txikixeagoak izaten ari dira", Osakidetzaren esanetan.

Kanpainaren helburua da gaixo kronikoen %67k hartzea txertoa, egoitzetan dauden nagusien %95ek eta osasun arloko profesionalen %30.

**Udazken-udaberri artean**
Gripearen eraginari dagokionez, oraingoz, ia ez du eraginik izan, bereziki "udazkenaren lehen zatian izan dugun eguraldi onari esker". Hala ere, gogora ekarri dute gripearen eragina handiagoa dela udazken amaiera eta udaberri hasiera artean.



Urbiako fonda, sua emendatu ostean. | GASTEIZKO SUHILTZAILEAK

# Su hartu zuen Urbiako fondako sukaldeak, eta teilatua bera ere erre egin zen, martitzenean

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI
Sua piztu zenean, Urbia inguruan zeuden mendizaleak, Oñati eta Azpeitikoak tartean, eta Urbiako artzainak ibili ziren itzaltzen. Fondan zituzten su-itzalgailuak erabili zituzten, baina horiek nahikoak ez eta errekako ura ere erabili zuten. Suhiltzaileak ere joan ziren, Arabatik, Aguraindik zehazki. Haiek joan orduko, sua itzalita zegoen, baina eurek bukatu zuten lana.

**Dagoeneko zabalik**
Fondako lagunek esandako moduan, guztia txukuntzen eta lehortzen jardun ostean, asmoa da asteburuan zabalik egotea, eta baita Domu Santuko zubia ere. Horixe izango da, justu, zabalik egongo den azken asteburua, gero hilabeteko oporrak hartuko dituztelako fondako langileek.

U-21

# Espero baino ilusio txikiagoa igarri da azken bozketetan

## Abstentzioa betiko antzekoa izan da oraingoan ere

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hauteskundeen emaitzetan errepikatzen den joera da gure ibarreko emaitzak ez direla bat etortzen Euskal Autonomia Erkidegokoekin. *Debagoiena is different* esan izan da. Eta orain ere hala gertatu da.

Behingoz, gainera, alderdi guztiek izan dute normaltasun osoz hauteskundeetan parte hartzeko aukera.

Akaso, justu horrexegatik pentsatzekoa zen bestetan baino parte-hartze handiagoa izango zutela herritarrek; eta, izan ere hala izan da, baina 2009ko Legebiltzarrerako hauteskundeekin alderatuta, bi puntuko aldea besterik ez da ikusi, eta abstentzioak deigarria izaten segitzen du, politikariei zer pentsatua emateko modukoa: %32,04.

### EH Bildu nagusi

Kontuak kontu, Debagoienean aurreikuspenak bete eta EH Bildu atera da garaile, ibarreko herri guztietan, gainera (Aramaio barne). Aipagarria da, gainera, Leintz Gatzagan (%65,29), Aramaion (%61,12), Antzuolan (%52,41) eta Elgetan (%50,78) gehiengo osoa eskuratu duela; eta gainontzeko herrietan eskuratu duen babesa ere esanguratsua izan dela: Oñati (%47,47), Bergara (%42,20), Aretxabaleta (%40,89), Arrasate (%36,69) eta Eskoriatza (36,49).

### EAJ, ezustekoa

Ezusteko bakoa izan da, baita ere, bigarren indarra EAJ izatea. Jeltzaleen kasuan, baina, ezustekoa izan da zela murriztu duen ezker abertzalearekiko zuen aldea: domekako hauteskundeen ondoren zortzi puntuan geratu da, baina iazko bi hauteskundeetan (Espainiako Gorteetakoak eta udal eta foruetarakoak) aldea 20 puntukoa zen. Eta alde hori deigarriagoa da kontuan hartzen badugu azken hauteskundeotan EH Bildu koalizioan hiru alderdi politiko batu direla.

Honelaxe geratu da EAJ herriz herri, boto gehien eskuratu dituen herritatik gutxienera: Oñati (%38,85), Elgeta (%38,72), Bergara (%36,71), Aretxabaleta (%34,56), Antzuola (%31,93), Eskoriatza (%31,63), Leintz Gatzaga (%31,4), Aramaio (%30,61) eta Arrasate (%30,01).

### Ondorioak PSE-EEri

Eta Debagoieneko hirugarren indarrari dagokionez, PSE-EEko hautetsiek espero baino babes txikiagoa jaso dute herritarrengandik.

Tradizioz, gestio kontuetan jarduten duen alderdiari ondorioak ekartzen dizkiote gobernuko urteek, eta ibarreko sozialistei ere hala gertatu zaie. Are gehiago, krisiaren gerizpean egin dituzten murrizketen ondoren.

### DEBAGOIENEKO 'LEGEBILTZARRA'




### Legebiltzar ezkertiarra

Debagoieneko datuak bakarrik kontuan gartuta, jakina, ibarreko *Legebiltzarra* ezkertiarra litzateke, EAEkoa ez bezala; gainera, EH Bildu gehiengo osotik oso gertuan legoke. Deigarria da, adibidez, EAJk aulki kopuru bera eskuratuko lukeela.

Horrez gainera, zentzu bereko azkeneko hauteskundeetako (2009) emaitza aldatu egingo litzateke, orduan EAJ izan zen -eta garaile, Urrezko Botoak (legez kanpokoak) kontatuta eta kontatu barik, bi kasuetan.




## Balorazioak



**PELLO URIZAR**
EH BILDU

"Aurreko egoera zein zen kontuan hartuta, oso ondo dago 21 legebiltzarkideko taldea sortzea. Lau bozkatzailetatik batek guri babesa ematea eskertzekoa da. Dauzkagun erronkei herri bezala erantzungo diegu, eta ikusi behar besteen borondatea nolakoa den".



**MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA**
EAJ

"EAEn irabazi dugu eta Gipuzkoan oso emaitza onak lortu ditugu. Orain urtebetekoarekin alderatuz, gorakada nabarmena da. Gipuzkoarrak errespetatzen ditugulako lortu ditugu emaitzok. Eskerrik beroenak babesa erakutsi diguzuenoi".



**ARITZ ARRIETA**
PSE-EE

"Ez dira esperotako emaitzak izan, baina pozik gaude Arrasaten lortutakoarekin, tinko mantendu garen herrietako bat izan delako. Horregatik, boto emaile guztiak eskertu gura ditugu. Lan eta lan jarraitzeko asmoa dugu hurrengo emaitzak hobetzeko asmoarekin".



**ISABEL SALUD**
EZKER ANITZA

"EAJk irabazi duelako pena dugu. Murrizketen aldeko politika egin eta ez dituzte premia handien dutenak kontuan hartuko. Gure emaitzak oso txarrak izan dira. Ez dugu ordezkaririk lortu, baina lekua dugula uste dugu, eta hori lortzeko lanean jarraituko dugu".

### HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK DEBAGOIENEAN

| | 2005 LEGEBILTZARRA | | 2009LEGEBILTZARRA | | 2011 ESPAINIAKO GORTEAK | | 2011 UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK | | 2012 LEGEBILTZARRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EH Bildu | – | – | – | – | – | – | – | – | **14.260** | **%41,70** |
| EAJ | 12.041 | %34,6 | 11.642 | %34,6 | 8.352 | %24,15 | 7.523 | %22,68 | **11.563** | **%33,81** |
| PSE-EE | 5.156 | %13,7 | 6.356 | %18,9 | 5.474 | %15,83 | 3.469 | %10,46 | **4.736** | **%13,85** |
| PP | 2.583 | %6,8 | 1.608 | %4,8 | 2.455 | %7,10 | 1.417 | %4,27 | **1.240** | **%3,62** |
| Ezker Anitza-IU[3] | – | – | – | – | – | – | – | – | **958** | **%2,8** |
| EB[3] | 2.282 | %6 | 1.401 | %4,1 | 1.097 | %3,17 | 998 | %3 | **529** | **%11,85** |
| Bildu[1] | – | – | – | – | – | – | 15.460 | %46,62 | – | – |
| D3M[1] | 8.659 | %23 | 5.783 | %17,2 | – | – | – | – | – | – |
| Urrezko Botoak | – | – | 5.783 | %17,2 | – | – | – | – | – | – |
| Amaiur | – | – | – | – | 16.408 | %47,45 | – | – | – | – |
| Aralar[2] | 2.553 | %6,8 | 4.349 | %12,9 | 4.349 | %12,9 | 2.781 | %8,38 | – | – |
| EA[2] | 3.831 | %10,9 | 1.782 | %5,3 | – | – | – | – | – | – |

ITURRIA: ELECCIONES.NET / GOIENA.NET

(1) Ezker abertzaleak hainbat marka erabili ditu azken urteotako hauteskundeetan. (2) Aralar eta EA Bildurekin joan dira koalizioan azkeneko hauetan . (3) EB eta Ezker-Anitza-IU bananduta aurkeztu dira koalizioan azkenekoetan; aurrekoetan, EB markarekin aurkeztu ziren.

ITZIARKO FERIA 2012

azaroak
1
osteguna

- 09:00etatik aurrera zabalik
- Goiz osoa soinuz alaituta
- Tabernetan pintxoak eta edaria
- 11:00etan idi ederrenen lehiaketa
- 13:00etan sari ematea
- 15:00etan azokaren amaiera
- 18:00etan, frontoian: herriko trikitilariekin ERROMERIA
- 18:00etan, plazan: goi mailako IDI-PROBAK





Laguntzailea
Debako Udala

Antolatzailea


## ZABALIK



**XABIER MUGARTZA**
http://goiena.net/iritzia/

# "Gora Euskadi hasta Calcuta!"

Krisi ekonomikoaren harira, subiranotasunaren dialektika aldatu dela esan daiteke. Sentimenduei lotutako kontzeptua izatetik, ongizatearekin lotura zuzena izatera pasa da, eztabaida politikoaren enfokea aldatuz. Orain artean, identitatea eta naziotasuna izan dira eztabaida honen ardatz, baina azken hilabete hauetan, ordea, gure bizi kalitatea hobetzearekin zerikusia duten argudioak izan dira nagusi, nork bereari eutsiz, nork bere identitate edo naziotasunaren arabera sentitzen duenarekin bat datozen konklusioak atereaz. Ni neu nahastu egin naute, eta jada ez dakit independente izan nahi dugun, euskaldun eta euskaldun bakarrik sentitzen garelako edota, zer arraio, independente ez bagara Espainiak amildegira eraman behar gaituelako den hori. Beste alde batetik ere hurrengo zalantza sortu zait: ondo kudeatutako herria gara, krisia beste leku batzuetan baino hobeto pairatzen ari dena, baina Espainia gabe pikutara joango litzatekeena?

> **"Espainia gabe pikutara joango litzateke herri hau?"**

Zer lehenesten dugu herritarrok? Sentimendua, identitatea, ongizatea? Gertu al gaude, "espiritualki" hobeto bizitzearren, "materialki" okerrago bizitzera? Gertu al gaude, independentziak ongizate maila txikiagoa ekartzen badu, hori onartzera? Eta alderantziz, Espainiarekin bat jarraitzeak ongizate maila okerragoa badakar, independentista bihurtuko al gara? Eta zer lehenesten dute alderdi politikoek? Argi dago guztiek diotela ongizatea nahi dutela, baina subiranotasunarekin sortu duten lotura kondizionalaren bitartez, ongizate hori identitatearekin atxikitzen duen proiektu politiko baten oinarritzen dute. Eta lotura kondizional hori falazia hutsa bada? Proiektu politikoa zalantzan ipiniko al dute, herritarren ongizatearen alde? Eztabaida hau guztia, ostera, trebetasun handiz, kajoi barruan utzi dute.

Urriaren 21eko hauteskunde emaitzak jakin gabe idatzi dut artikulua. Izan behar duena izango da. Bitartean, New Yorken ezagututako lagun nafar batek zioena neure egingo dut: "Gora Euskadi hasta Calcuta!".

## USTEAK USTE

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | aaranburuzabala@goiena.com

# "Badau gaur buruhaundirik?"

Zapatuan azokara joan ginen. Bat beharrean egun hartan hiru izango zirela esan genion alabari. Hainbeste azoka jai giroaz lotu omen zuen eta buruhandirik egongo zen galdetu. Ezetz erantzun genion, beldurrak baretzeko.

Bete genuen erosketa-poltsa eta plazako arkupean hartu genuen gero kafea; orduan kontatu ziguten guardia zibilek ere harategian egin zituztela goizean erosketak. Lagun honek ez zien, baina, erosketa poltsarik ikusi; bai, ordea, metraileta.

Gogora etorri zitzaidan orduan alabak bidean egindako galdera. Oker erantzun nion, erantzun zuzenak hauxe beharko zukeen: "Bai, batzuk izango dira, baina lasai, ni ere beldur naiz".

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Arrazoia zenuten

**Marijo Deogracias**
http://goiena.net/blogak/marijo/

Gurasoei zuzenduta esan zuen Carmen Gisasolak *Gaur zortzi* bere lehenengo eleberriaren (Alberdania) aurkezpenean.

"Besterik uste bada ere, gure heziketan biolentziaks ez du kabidarik izan. Gure aurreko belaunaldiek ezarritako baloreetan inor ez hiltzea transmititu digute eta hori bakoitzak geure etxean bizi izan dugu", argitu zuen.

"Baina... borroka armatuan sartu izan garenean, gurasoek kontraesan batean bizi izan dute aberriarekiko gure atxikimedua, kasu askotan: hartu dugun bidearekin ados egon ez arren, seme-alabekiko estimu osoa mantenduz".

Askotan etorri zait burura seme edo alaba bat helburuak lortzeko erailketa zilegizko tresnatzat darabilen erakunde bateko kide izanik, nolako bizipenak izango dituzten euren gurasoek.

Ezagun baten gurasoekin izan nuen lehenengo pentsamendua.

Inoiz presoen eskubideen aldeko manifestazio batean egon barik, pankarta eustera pasa ziren, semea espetxeratu zutenean.

Ez da erraza izan behar hortik pasa den alaba batek "arrazoia zenuten" aitortzea bere amari.

Pentsatzekoa da prozesu baten ondoriotik datorrela baieztapen horretara heldu izana; hausnarketa sakon baten ostean.

Hein baten, halaxe adierazi zuen Gisasolak prentsaurrekoan; gazteleraz esan beharra izan zuen, kazetariek "korte bat, mesedez" (Goizalde Landabasoren antzera), hainbat aldiz eskatu zioten arren.

Berak argi adierazi zuen liburua euskaraz egin duela, eta euskaraz prestatu zuela agerraldia eta ez gazteleraz.

Azkenean, ordea, kazetariek hamaika galdera egin zizkioten eta zera esan zuen: "No he escrito el libro pensando en nadie, ha sido una aportación a la convivencia, porque es responsabilidad de todos; sin hacer esa reflexión no podremos avanzar".

Hortxe koska, hausnarketa egin barik ezin aurrera jo.

Gauzak uste izandako moduan gertatu ez direnean, horixe egin behar izaten da, egoera guztietan, eta are gehiago 50 urte luzez iraun duen indarkeria ziklo baten ostean.

Prentsaurrekoaren ostean, galdetu egin zuen Carmenek, ia zer moduz egon zen, urduri zegoela-ta, bihotza oso azkar zebilkiola hainbeste kazetari ikusita.

Ondo aritu zen.

Aitortu zuen bezala, bere lehenengo prentsaurrekoa izan bazen ere, esateko zuena ondo prestatua zekarren, ondo hausnartua.

Berak esan zuen bezala, "Egia Handiaren zerbitzuan aritzeko dinamikak gehiegikeriak justifikatzera eraman gaitu behin eta berriz, eta gure barruan kontraesan asko sortu... eta gaur egun, Egia Handiaren ordez, ziurtasun txikietan besterik ez dut sinesten nik neuk".

Emakume indartsua; konbikzio sendoduna.

Eskerrik asko, Carmen, lekzioagatik.

Bide batez, Durangoko Azokara joateko gogoa zuela esan zigun, hurrengo "baimena" orduan eskatuko duela.

Hortaz, inork nahiko balu, Alberdaniaren erakus-mahaitik pasa azoka egunetan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

## Guerrilla Girls

**Jenny Alberdi eta Larraitz Berezibar**
(Arizmendiko Almen guneko Artearen Historia ikasgaiko ikasleak)
Aretxabaleta

Aretxabaletako Emakumearen Astean Arizmendi Ikastolako Artearen Historia ikasgaiko ikasle eta irakasleek egindako aldarrikapena:

Nik Guerrilla Girls talde aktibistaren berri zabaldu nahi dizuet.

Ipar Amerikako emakume talde aktibista da Guerrilla Girls.

Hasieran, 80ko hamarkadan, beldur ziren euren jarduerek ondorio txarrik ekarriko ote zioten euren ibilbide artistikoari. Horregatik jantzi zituzten maskarak! Gorila maskarak!

Berauek kritika pertsonaletatik babesten dituzte eta laguntzen diete arreta eurek nahi duten gaietara bideratzen. Jakinez gero nortzuk diren, jendeak euren alderdi pertsonalei buruz hitz egingo luke, eta ez egiten dituzten ekintzez, ezta plazaratzen dituzten eztabaidez ere.

Nik gaur, Aretxabaletan, mozorroa kendu dut, XXI. mendeko aktibistek beldurra alde batera utzi dugula agerian uzteko.

XXI. mendean gaude eta esan daiteke aldaketa txiki batzuk eman direla, baina emakumeoi oraindik ez digute uzten maila batetik gora egiten, ikusten da helmuga, baina ezin heldu.

Gaurko ideia aurreko mendetik dakargun herentziaren lekukoa da.

Artea matxista, klasista eta arrazista da, eta salatu egin nahi dugu.

Eta hasi berri dugun mendean honi buelta eman eta aldatu egin behar dugu!

Guerrilla Girls taldeak ospe handia lortu zuen 80ko hamarkadan plazaratu zituzten poster erraldoiekin.

Honelako mezuak plazaratu zituzten: biluzik egon behar al du emakume batek Metropolitan Museum-en egoteko?

Arte Modernoaren sekzioan dauden lanetatik %3 soilik sortu dituzte emakumeek. Aldiz, agertzen diren biluzien %83 emakumezkoenak dira.

Baina ez pentsa urrutiko kontua bakarrik denik:

-1997an zabaldu zutenetik, 42 bakarkako erakusketa hartu ditu Bilboko Guggenheim museoak, eta horietako bi bakarrik izan dira emakumezko artistenak: %5, alegia.

-Donostiako Kutxa Kubo aretoak 16tik bakarra (%6,2) eskaini dio emakume bati.

Esparrua zabaldu eta errekonozimenduaren alorrean, aurkitu dezakegu Durangoko Azokaren Argizaiola saria ez zaiola 20 urtean sekula emakume bati eman.

Horri buelta ematen hasteko, oinarrizko aholkua ematen dute Guerrilla Girlsekoek: kexatu, kexatu eta kexatu. Antza, badugu ohiturarik, baina ez dugu jomugarekin asmatzen.

Txikikeriengatik kexatu ohi gara.

Museoko langileek esan ohi dute jasotzen dituzten kexa gehienak lerdokeriak direla: letra txikiegia dela, azentu-marka bat falta dela, koadro bat apur bat okertu dela, harlauza altxatu dela… Baina jendea ez da kexatzen benetan garrantzizkoa denaz: egitarauaz, mamiaz.

Nola izan daiteke unibertsitateetan emakume gehiagok ikasten badute (AAEEtan bereziki), museoetan eta galerietan gizonezkoen lanak nagusitzea?

Hausnarketarako galdera hurrengo datorrena. Gure herrietako kale izenak: toponimikoak ez direnetatik zenbat aurkituko ditugu emakume izendunak?

Gu bagoaz, lasai, pentsaturik esperantza, ilusioa, sortu dugula zuengan.

Beste bat arte, mila esker.

## Hizkuntza, batetik; EAJ, bestetik

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Mundu guztian zabaltzen ari da gazteek ingelesa ondo jakin behar dutela, eta gero eta premia gehiago dago eta egongo da arautzeko mundu nahasi hau.

Baina Euskadin, munduan elebitasun orekatua dena, eleaniztasuna exijitzen diegu gaztelera dela eta, hiru hizkuntza, eta zaildu egiten zaie gauza.

Hizkuntza bat ikastea ez baita gauza erraza.

Milaka urtean euskara izan dugu hemen, eta harro gaude horretaz; gaztelera etorri zen eta orain ingelesa.

Etorkizunean zer etorriko ote da, esperantoa?

Munduan indar handien duena ingelesa da.

Baina Konstituzioak inposatzen du gaztelera, eta mila aldiz esan dute gure politikariek ez dugula Konstituzio espainolik nahi hemen, Euskadin.

Zer bide dago?

Gehiengo abertzaleak erreferendum bat antolatu independentziari buruz hiru lurraldeetan, ez baitiogu beldurrik ejerzito espainolari antzina bezala, Europaren barne.

Independentzia irabaziz gero, gure Konstituzioan ezabatu gazteleraren behartzea.

Gure ikastetxeetan kendu gazteleraren betebeharra eta ingeles gehiago sartu.

Hiru hizkuntzarekin ez dute buruhausterik izango gure umeek eta euskaldunak izaten jarraituko dugu.

Bestetik, EAJz mintza gaitez.

EAJk du errua.

Zer inposatzen zaigu euskaldunoi?

Konstituzioa.

Zergatik?

Baiezkoak irabazi zuelako Espainian eta hemen Euskadin ere bai.

Bai, bai, abstentzioak irabazi zuen, baina abstentzioa ez da ezetza.

Zergatik abstenitu zen EAJ? Beldurrarengatik.

Diktadura batetik etorri berriak ginen eta ejerzitoa bero zegoen, eta estatu kolpe baten beldur ziren.

Beraz, onartu egin zen Konstituzioa.

Oraindik beldur dio EAJk ejerzitoari?

Noiz arte?

Beldurrarekin bizi, bihotzak nahi ez duen estatuan?

Egoeran?

Independentzia nahi eta makurtu beldurrarengatik?

Jainkoa eta lege zaharra.

JELkide.

Zein Jainko da beraiena? Kristaua?

Gainontzeko guztiak gezurrezkoak.

Mundu guztiak du Jainko bera, edo erlijioan ere globalizazioa behar dugu?

Atsoak eta agureak soilik doaz mezetara.

Zer diote munduko erlijio guztiek? Lasai-lasai txotxokan egiteko umeak mundura ekartzeko, nahiz eta pobreak izan.

Budaren, Mahomaren eta Jesusen garaietan ez zen ezagutzen munduko superpopulaziorik, ezta mundua borobila eta mugatua zenik ere.

Beraz, mugatu egin behar da hazkundea, eta abortua eta antisorgailuak beharrezkoak dira, ondo eta merke.

Jainkoak ez du izadia suntsitu nahi superpopulazioarekin.

Puskatu telebista eta hausnartu.

## Eskerrik asko

**Juan Karlos Garitano**
(Arrasateko EAJko Udal Taldearen izenean)
Arrasate

Arrasateko EAJko talde munizipalaren eskutik eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu EAJrengan konfiantza jarri duzuen guztioi pasa den igandeko hauteskunde autonomikoetan.

Gure konpromisoa azpimarratu nahi dugu aukeratu duzuen programa aurrera eramateko, eta espero dugu hautatu dituzuen gure kandidatuek zuen espektatibak beteko dituztela.

Ez dago esan beharrik gure kolaborazioa eskaintzen dugula, hala dugun heinean dauzkazuen arazo eta kezkekin laguntzeko.

Mila esker, denoi, eta aurrera!

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

DERBIA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ALOÑA MENDI ETA MONDRAREN ARTEKO DERBIA
URRIAK 29, 22:00 ETA 23:53
URRIAK 30, 13:20, 17:59 ETA 22:27
URRIAK 31, 13:45, 17:08
XABIER URTZELAIK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Jesus Mari Ugalde** | Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiako presidentea

# "Azaroaren hasieran irekiko dugu Bergarako Olaso Dorrean Jakiunderen egoitza berria"

- Jakiundek urteko batzar orokorra egingo du azaroan eta aurretik egoitza inauguratuko du
- Jakiundeko presidentea Bergarako erretiratuen kultura hamabostaldian izan da

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Bergaran 1957an jaioa, Kimika Fisikoko katedraduna da; Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika Fakultateko irakaslea, 1994a ezkero. Bere ibilbidean zehar 200 argitalpen zientifiko baino gehiago eta zientzia zabalkundeko 20 saiakera plazaratu ditu. 2003an, Euskal Ikerketa saria irabazi zuen. Bergarako erretiratuen elkarteko Kultura Hamabostaldian antolatutako ekitaldien artean berbaldia eskaintzera etorri da Bergarara; aitarekin batera agertu da Migel Altunara.

**Aitarengandik, etxetik, datorkizu kimikarako eta fisikarako zaletasuna?**

Ez. Bergarako eskola elementalean, Migel Altunan, egin nituen ikasketak eta, handik, Eibarrera joan nintzen Unibertsitate Laboralera. Handik, unibertsitatera. Zaletasuna sortu zitzaidan Eibarko bigarren eta azken kurtsoan, unibertsitatera joan aurrekoan. Baina ez nuen amorru handirik kimikarekiko. Hiru karrera apuntatu behar ziren eta Kimika, Fisika eta Matematika aukeratu nituen. Batetik, zientzien alorretik egin nituelako ordura arteko ikasketak; bestetik, Medikuntza eta Osasun Zientziak ez nituelako nahi. Gero, Ingeniaritza aparte utzita neukan. Kimika hartu nuen, baina txiripaz izan zela esango nuke, ez hausnarketa sakonen ondorioz, ez eta kimika kontuetarako zaletasun berezi-berezirik neukalako ere.

**Pedro Migel Etxenikerekin lotu izan zaitue sarritan. Harekin ikasitakoa, lan egindakoa zara; hura zure maisu izandakoa da?**

Ez. Ez dugu izan ikasle-maisu harremanik, zoritxarrez. Eta Etxenikerekin, nik baino lan askoz gehiago egindako jende asko dago. Bide ezberdinetik jo dugu; nire lana, bereziki, fisika atomiko eta molekularrera bideratu da. Jakina, noizean behin, topo egin dugu eta hiru-bat lan elkarrekin argitaratuta dauzkagu. Hori bai, adiskideak gara eta zientziazkoak ez diren alorretan egin dugu lan, bereziki.

**Esaterako, ze alorretan?**

Jakiunde da bat. Beste bat, Donostia International Physics Center delakoa. Biak gara zentro horretako kide eta hark lan asko egiten ditu zientifikoez gain. Elkarlanean jardun dugu bertan. 2005ean, hamabost bat Nobel saridun ekarri genituen Donostiara, Einsteinen bost artikuluren 100. urteurrena ospatzen zela -eta. Ekarri genuenetako bat, Rolf Hoffmann, nire maisu izana da. Bueno, bada, hori guztia antolatzeko-eta elkarrekin jardun genuen Etxenikek eta biok.

***Nor gara gu, zer gara gu... izarren hautsa gara gu.* Izenburu hori aukeratu duzue Bergarako erretiratuen Kultura Hamabostaldiko hitzaldirako. Zergatik izenburu hori?**

Guk geuk materia dugu, materiaz eginda gaude eta materia atomoz egina dago. Eta atomoak unibertsoan sortu ziren; ez dira beti egon. Halako batean Big-Banga gertatu, unibertsoa sortu eta handik 100.000 urtera sortu ziren atomoak. Lehengai batetik sintetizatu ziren. Hortaz, berba jokoak egin ditut, bi abestiren izenburuak uztartuz eta horiek atomoekin, unibertsoarekin, lotuz. Probokazioa izan da. Atomoak ere izarren hautsetatik sortu ziren.

**San Joxepe erretiratuen elkarteko kideekin elkartu eta haiei eman diezu berbaldia. Entzuleria horretarako propio prestatutako berbaldia?**

Bai. Publiko bakoitzak bere diskurtsoa du eta honek ere badu du berea. Istorio bat kontatu dut. Ez dut ez fisika, ezta kimikarik aipatu. Unibertsoaren materiaren sorreraren gainean jardun dut.

**Inportantea da Bergarakoa bezalako erretiratu elkarte indartsu eta dinamikoa edukitzea?**

Bai. Geroago eta gehiago izango dira gisa honetako elkarte dinamikoak. Izan ere, nahiz eta beranduago erretiratu, luzaroago iraungo dugu oraingo eta hurrengo belaunaldikook. Bizitzeko beste modu bat eskaintzen dute elkarte hauek: etxean egon beharrean, ekimenak bultzatu, elkartu...

**Ze harreman izan dezake Jakiundek erretiratuekin?**

Harreman organikoak oso elkarte edo jende gutxirekin ditu Jakiundek. Gehiago dira harreman informalak, aldian aldikoak.

**Datozen lau urteotarako helburu nagusietakoa, ekimen desberdinen bitartez, Jakiunde jendarteratu eta ezagutzera ematea da. Zer egiten ari zarete hori lortzeko?**

Jakiunde jendarteratzeko fasean gaude eta ikasleekin-eta bagabiltza ekimenak lantzen. DBHko ikasleendako hitzaldi sortarekin jarraituko dugu, Jakin-mina izenekoarekin. Eta unibertsitateko lehen kurtsokoekin ere topaketak egiten ditugu: Jakitunekin, modu informalean, kezkak -eta partekatuz, ikus dezaten ikasleek Jakitunek ere euren antzeko kezkak dituztela.

> "Laguna da Etxenike eta zientziazkoak ez diren alorretan egin dugu lan"

> "Jakiunde jendarteratzen gaude eta ikasleekin bagabiltza"

> "Urteko bigarren bilkura eta batzarra egingo ditugu Bergaran azaroan"

> "Jakiunde Olason egotea aukera ona da Bergarako herriarendako"

**Bergaran izango du egoitza Jakiundek. Olaso eta Rezabal dorretxeetan. Noizko?**

Bergaran du egoitza, dagoeneko, eta prest du egoitza bera, hainbat berritze lan eginda. Hitzarmenak-eta sinatzear daude: Olaso dorrea Sorrerakundeak, Jakiundek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatuko ditugu. Azaroaren hasieran egingo dugu aurkezpen ofiziala eta egoitza bera jendarteari eta hedabideei erakutsiko diegu. Olaso dorrean bertan egingo da hori. Bestetik, Jakiunderen urteko bigarren bilkura eta batzar orokorra egingo ditugu Bergaran ere, azaroaren 16an. Aurrerantzean, Jakiunderen batzar orokor guztiak egingo dira Bergaran.

**Zertarako erabiliko duzue Bergarako egoitza?**

Batetik, batzar orokorrak egiteko —urtean bi izaten dira, udaberrian eta udazkenean—, baina beheko partean bulego bat izango dugu eta jakintsuek erabili ahal izango dute. Bulego operatiboa Donostian izango da eta han jardungo du gure idazkariak, baina Bergaran ere aritu ahal izango da. Aukera bikaina eskaintzen digu Bergarako herriak eta egoitza honek behar diren ekitaldiak egiteko urtean barrena. Hau aukera ona da Bergarako herriarendako eta baita gure erakundearendako ere. Herriarendako akademia izatea nahiko nuke, ohiko akademiatik aldendu eta jakintsuendako bakarrik izan beharrean, herritar guztiendako izan dadila nahi dugu.

**Zenbat jakintsu ditu Jakiundek?**

56. Horien artean, zazpi unibertsitate-errektore. Orain, Bergaran egingo dugu azkenekoz aukeratu diren 12 jakintsuen etorrera ekitaldia.

**Jakin-minez eta interes bereziz jarraitu duzu Felix Baumgartnerrek estratosferatik lurrera egin duen jauzia?**

Ez diot kasu handirik egin. Berez, espektakulua sortzeko ekimena iruditzen zait. Dena den, entzun diedanez Arratibel medikuari eta Armentia astrofisikoari, Iruñeko Planetariumeko zuzendariari, esan dute hortik nahikoa datu interesgarri aterako direla zientziarako eta medikuntzarako, estratosfera nahikoa ezaguna den arren.



Jesus Mari Ugalde, Bergarako udaletxean. | GOIENA

# Jatetxe Gida



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**

## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

**Martitzenetan itxita.**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.




## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

## DUELA 10 URTE

2002-10-19

### Pausoka eskolaren inaugurazioa

Aretxabaletako Pausoka Haur Eskolaren eraikin berria inauguratu zuten. Umeentzako ipuin kontaketa, diaporama emanaldia, luncha, buruhandiak, argazki erakusketa eta abar antolatu zituzten inaugurazio egunerako.

Eraikin berriak espazio erabilgarriagoa eskaini zien erabiltzaileei, hiru solairutan banatuta: zuzendariaren gela, sukaldea, jolaserako eremu berriak...



Turismo Bulegoaren inaugurazioa. | ARTXIBOA

2002-10-31

### Oñatiko Turismo Bulego berria

Oñatiko Turismo Bulego berria inauguratu zuten aste hartan. Unibertsitate ondoan kokatu zuten, Erdi Aroko San Migel Errotan, hain zuzen ere. Ibarreko turismo bulego nagusia zen Oñatikoa, alde batetik, zerbitzu osatuena eskaintzen zuena eta, bestetik, urtean egun gehien irekita zegoena. Inaugurazio egunean Oñatiko Udaleko, Gipuzkoako Diputazioko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egon ziren.

## DUELA 5 URTE

2007-10-23

### Jesus Atxa hil zen

Jesus Atxa euskaltzale aretxabaletarra Iruñean hil zen 87 urte zituela. Lan ugari egin zuen bere bizitzan zehar: EAJ taldeak sortu zituen, Iruñeko San Fermin ikastolaren eta Bizkaiko Ikastolen Federazioko sortzaileetako bat izan zen. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria irabazi zuen 2003an.

## HERRITARRAK

ARETXABALETA

**Jokin Antxia** Txistulari moduan hogei urte inguru daramatza aretxabaletarrak. Kirola ere gustuko du, baina batez ere UDA maite du; hango presidente izana da Antxia. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# "Txistuaren munduan dabilen jendea oso alaia da, eta erraza da gozatzea"



Jokin Antxia, txistuarekin. | MIRARI ALTUBE

Aretxabaletan jaio eta bertan bizi izan da beti Jokin Antxia. Coprecin egiten du lan ingeniari moduan. Baina bere denbora librean, saltsa ezberdinetako perrexila da; besteak beste, txistularia, UDA taldearen zalea eta Atzegiko kolaboratzailea ere bada. Bihar Arrasaten egingo den Bailarako III. Txistulari Egunean egongo da.

**Ezagutzen zaituenak badaki musika zure zaletasunen artean dagoela. Baina noiz hasi zinen txistua jotzen?**

Duela hogei bat urte inguru txistuarekiko zaletasunak beherakada izan zuen Aretxabaletan (beste herri batzuetan moduan). Jendea beste musika bat entzuten, eta beste instrumentu batzuk jotzen hasi zen. Orduan, Demetrio Iriarte zen txistulari nagusia, baina utzi egin zuen, zeukan adinagatik. Orduan animatu egin nintzen txistuaren mundura gerturatzera, eta beste lagun batzuk ere konbentzitu nituen.

**Eta zer izan zen egin zenuen aurreneko gauza?**

Kanpotik irakasle batzuk ekarri genituen gure buruak prestatzeko. Aretxabaletan sortzen diren behar batzuetarako errepertorioa sortu genuen modu horretan; dantza taldearekin aritzen ginen txistulari moduan, esaterako. Gure afizioak bi oinarri dauka: alde batetik, txistua jotzen disfrutatzen dugu, baina, gainera, denbora pixka bat hartuta gauza berriak ikasteko konpromisoa hartzen dugu. Kasualitatea izango da, agian, baina mundu honetan dabilen jendea oso alaia da, eta erraza da gozatzea.

**Oker ez banago, bailarako txistulari egunean ere hartzen duzue parte azken urteetan.**

Bai, hala da. Izan ere, azken urteetan beste urrats bat egin dugu eta ibarreko beste txistulari talde batzuekin elkartu izan gara, 40 bat lagun. Bihar Arrasaten Bailarako III. Txistulari Eguna ospatuko da, eta bertan egongo gara, txistua kalera atera, eta momentu on bat pasatzen.

**Urte hauetan zehar zaletasuna handitu al da herritarren artean?**

Oraindik ere zaletasuna ez da handia herritarren artean. Egin izan ditugu zenbait saiakera gazteekin, baina etenaldi momentu batzuk egoten direla ondorioztatu dugu. Hau da, 13-14 urte dituztenean jarraitzea kostatu egiten zaie, eta, 18 urterekin unibertsitatera joaten direnean, zaila egiten zaie txistuarekin segitzea.

Baina gaztetan txistua hiruzpalau urtez ikasi duenak gerora berriz heltzeko erraztasuna duela ere konturatu gara.

> "Oraindik txistuarekiko zaletasuna ez da handia herrian"

> "Kirola praktikatzen duten gazteen zifrak ez dira nolanahikoak"

**Musikaz gainera, zure beste pasio bat UDA dela entzun dugu.**

Umetatik dudan zaletasuna da, aitarengandik jaso nuen UDArekiko dudan maitasun hori. Klub bezala herrian ere asko estimatu izan dugu, lorpen ugari egon dira, futbolean, atletismoan, pilotan... Umetatik herritar askoren erreferentea izan da.

**Bertako presidente ere izan zara, gainera.**

Bai, birritan izan naiz UDAko presidente. Aurrena, 1989-1991 urteen artean; eta gero, 2003tik 2008ra izan nintzen. Gustura aritu nintzen, beti edukitzen genituen-eta martxan jartzeko ideia berriak.

**Nola ikusten duzu orain kluba?**

Alde batetik, ongi ikusten dut. Baina bestetik, iruditzen zait epe motzeko proiektuak eramaten dituztela aurrera, ez dutela gerora begira egitasmorik buruan, eta hori aldatuko nuke.

**Arrazoi konkreturen bat egon da horretarako?**

Egia esan, klub guztiak pasatu dira prozesu horretatik, ez bakarrik UDA. Hau da, krisialdi bat egon da, geroz eta boluntario gutxiago daude eta hutsuneak betetzeko gurasoak sartu dira zuzendaritza batzordean. Zer gertatzen da? Pertsona horiek klubarengatik baino gehiago, seme-alabengatik arduratzen direla, gehienbat, eta haiek kluba uztерakoan amaitzen direla gurasoen helburuak. Eta bestelako boluntarioek, aldiz, epe luzerako proiektuak izaten dituzte buruan.

Baina guztiaren gainetik, bere alde positiboa ikusi behar diogu. Kirola praktikatzen duten gazteen zifrak ez dira nolanahikoak, eta hori garrantzitsua da, mugitu egin behar baita, sedentario izateari utzi behar diogu eta.

## NIRE HERRIAN

**:) GAZTEEN GAITASUNA**

Iruditzen zait gaur egun herriko gazteek gaitasun handia daukatela musikarako, baita kirolerako zein ikasketetarako. Zaletasun ugari dituzte eta prest daude edozertan parte hartzeko. Dena den, askotan pentsatzen dut baliabideak falta zaizkiela asmo horiei guztiei aterabidea emateko.

**:( KULTURA ETA KIROLEAN MOTEL**

Kultura eta kirol kontuetan nahiko motel ikusten dut Aretxabaleta. Oraingo egoera aurreko urteetan egin zen guztiarekin alderatzen dudalako edukiko dut, agian, sentsazio hori. Jai zehatzak egiten dira, baina egunerokotasunean falta dira ekimenak. Loramendi hor dago, noski, baina beste zerbait behar da.

# HERRIAK

ESKORIATZA

# XV. mendeko baserria, bioeraikuntzaren adibide

- Duela hiru urte hasi zen Oreka enpresa Sorautz baserria birgaitzen
- Harrizko horma gehienak mantendu dira; egurrezko egiturak dira nagusi

JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

Bizimodu jasangarriagoa posible dela frogatu zuten eskoriatzarrek joan den asteburuan. Aurtengo Jasangarritasun Asteburua ere arrakastatsua izan da eta egitarauko izarretako bat izan zen Sorautz baserria, Eskoriatzako zaharrenetakoa; XV. mendeko artxibo batzuetan baserriaren gaineko aipamenak daude. Zapatuan bisita egin zuten baserrira Bioeraikuntzaren Adiskideak deritzon taldeak. Urtean hiru edo lau aldiz elkartzen dira; 80 bat lagun batu dira oraingoan. Hurrengo deialdian parte hartzeko ateak zabalik dituzte erabat. Bi bide daude izena emateko: *bioeraikuntzaren.adiskideak@gmail.com* helbidera idatzi edo 943 29 82 39 telefonora deitu.



XV. mendea ezkero argazkiko Sorautz baserriaren aipamenak daude. Orain, bioeraikuntzaren adibide da. | AMAIA TXINTXURRETA

**Lanak, baserria errespetatuz**

Sorautz baserria balio handiko ondarea izatez gain, bioeraikuntzaren adibide ere bada. Zer den bioeraikuntza? Bioeraikuntza modu osasungarri eta adeitsuan eraikitzeko artea da, naturarekiko zein pertsonekiko.

Duela bi edo hiru urte baserriaren jabeek Oreka arkitektura enpresakoengana jo zuten baserria birgaitzeko asmoz: "Elkarlanean proiektu bat burutu eta lanak zuzentzeko proposamena egin ziguten eta orain hiru arkitekto ari gara lanean: Nagore Tolosa donostiarra, Amaia Agiriano aretxabaletarra eta hirurok", Ekaitz Uribe arkitekto aretxabaletarrak. Baserriaren balioa aintzat hartuta, baserria errespetatuz burututako lan bat eskatu zuten jabeek, eta Orekakoek hala egin dute: "Baserriaren diseinuan bioklimatika irizpideak erabili ditugu eta baserriaren kokapena eta orientazioa, usadiozko lekuko arkitektura gehienetan gertatzen den moduan, perfektuak dira, bai bioklimatika aldetik eta baita geobiologia aldetik ere. Harrizko horma gehienak mantendu dira, eta solairuak eta estalkia egurrezko egitura erabiliz eraiki dira", azaldu du Uribek.

Era berean, isolamendu naturalak erabili dituzte: kortxo naturala, egur zuntza eta zelulosa. Ez da altzairudun hormigoirik erabili, eta gainestaldurak karezko mortairuak erabiliz eraiki dira. Gainera, leihoen tamainak orientazioaren arabera aztertu dituzte: "Neguan eguzki-izpiak eta beroa eraikin barruan kontzentratzeko ahalegina egin dugu. Udan, berriz, eraikinaren beraren eta inguruko zuhaitzen itzalak erabiliko ditugu baserria larregi berotu ez dadin", dio arkitektoak.

ESANAK

**"Baserriaren kokapena eta orientazioa perfektuak dira"**

EKAITZ URIBE | OREKA ARKITEKTURA

## Beste adibide berezi bat baserritik gertu

Sorautz baserriaren ondoan beste etxe bat dago bioeraikuntzaren printzipioak jarraituz eraiki dena: "Oso etxe berezia da. Tapia teknika erabiliz egosi gabeko lurrez eraikitako hormak altxatu dira, eta gainontzeko egitura egiteko egurra erabili da. Eraikinaren hormak altxatzeko ondoko obra bateko indusketa lanetako lurra erabili da. Lur horren analisiak egin ditugu eta gero, hormak eraiki dira honako materialarekin: lurra, legar zati bat, zementu zuria –%6– eta ur nahastua", argitu du Uribek.

Bestalde, Uriberen arabera, egun, garrantzi handia ematen zaio etxean kontsumitzen den energiari, baina eraikin baten aztarna ekologikoa neurtzeko eraikuntza prozesuan erabiltzen diren material eta teknikek duten berezko energia ere kontutan hartu behar dela dio.



Sorautz baserriaren ondoan dagoen beste eraikina. | OREKA ARKITEKTURA ENPRESA



# Arbolapetako zuhaitza neurriz txikitu egingo dute

Bertako indiar gaztainondoaren adaburua metro bat txikituko dute

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Herriko hainbat zuhaitzetan mozketa lan bereziak egingo dituzte datozen egunotan, "lehenbailehen", udal iturrien esanetan. Zuhaitzotako batzuk errotik moztuko dituzte gaixo daudelako, eta beste batzuei larregiko luzeak edo sikuak dituzten adarrak inausi egingo dizkiete. 8.651 euro erabiliko ditu Udalak lanotarako.

**Hiru konifera handi eta beste**

Datutan sartuta, bederatzi zuhaitz kendu egingo ditu Udalak: Monterrongo izkina batean dagoen indiar gaztainondo bat, siku dagoelako; Gipuzkoa etorbideko hiru konifera handi; Gazteluondon, Arrasate pasealekuaren gaineko aldean siku dagoen amerikar haritz bat, Gorostiza pasealekuan, antzinako araztegian dauden beste bi zuhaitz ere bai, eta Zaldibarko atzeko aldean, etxebizitza baten ondoko pago -lizar bat.

**Arbolapeta eta Monterron**

Inausketa bereziei dagokienez, Arbolapetako indiar gaztainondoaren eta Monterrongo sarreran dagoenaren adaburuak metro bana txikituko dituzte, eta Zaldibar parkean, Grupo San Juanen, Jose Luis Iñarra bihurgunean eta Mesedeetako ikastetxepeko pasealekuko zuhaitzen adar sikuak moztu egingo dituzte.

**Traban dauden adarrak, moztu**

Bukatzeko, adar batzuk moztu egingo dituzte, bereziki, traba egiten dutelako. Adibidez, Santa Barbaran batetik, Intxaurrondo etxetik gertu dagoen almeza edo basaka baten adaburua moztu egingo dute oso oker dagoelako, eta bestetik, inguru berean oker dagoen haritz amerikar bat inausi egingo dute. Loramendi kalean, berriz, bi farolari eragozpen egiten dieten bi zuhaitzen adarrak moztu egingo dituzte, eta Erguingo eskolan, bertako kiroldegi berriaren teilaturaino iristen diren bi zuhaitz inausi egingo dituzte.



Arbolapetako indiar gaztainondoa, eguazten goizean. | U.M.

**DATUA**

**8.000**

EURO

8.651 euro inbertituko ditu Udalak zuhaitzetako lanketa bereziak egiteko.

## NIRE USTEZ



**HORACIO ARGARATE**

### Gozo-gozo, bero-bero

Urriaren 17an, Donostian, gizarte erakunde ezberdinetako 149 boluntariok, gauean, kalez kale, hiria zeharkatu zuten eta bazterretan eta sasi aterpeetan 68 pertsona lotan aurkitu zituzten. Zenbaki horren barruan zenbat frustrazio, zenbat porrot, zenbat haustura...

Gurean, hirugarren urtez, Arrasateko Udaleko Ongizate Sailak neguko aterpetxea zabalduko du. Kale gorrian dauden 16 pertsonak neguko hotzari aurre egiteko, gustuko izanez gero, beste zerbitzu bat izango dute erabiltzeko moduan. Aterpetxe horretan, ohea, komuna eta gosaria emango dizkiete. "Gustuko" diot, zeren etxerik gabeko jendearen artean egon badaude, kaleko "askatasuna" nahiago dutenak beroa baino.

Arrasateko Caritas elkarteak ere neguko aterpetxeari bere osagarria eman nahi dio, bertara hotza kentzera hurbiltzen diren gizon-emakumeei egunero otordu bero bat emateko asmoz. Iaz ogitarteko bana eman genien, jatetxe batean erosita. Bada, aurten, lapiko beroak egiteko asmoz gabiltza.

Baina ibiltarien kolektibo honetako kideek gizatasunaren beroa ere behar-beharrezkoa dute. Otorduak prestatu behar baditugu, zergatik ez dugu aukera aprobetxatzen gure bihotzak ere elkar berotzeko?

Astean behin, goiz partean, gizon-emakume sukaldariak behar ditugu. Apuntatzen al zara?

**"Zergatik ez aukera erabili gure bihotzak elkar berotzeko?"**

# 'Buah txabal!' antzezlana domekan gaztegunean

Jon Zubiaga 'Osoron' antzezle arrasatearra da protagonista; ikuskizuna 18:30ean hasiko da

**J.B.** | ARRASATE

Txatxilipurdik eta Udaleko Gazteria Sailak kudeatzen dituzten gazte txokoek eta erdiguneko gazteguneak 12 eta 17 urte arteko gaztetxoendako eskaintza ahalik eta oparoena izateko lanean dihardute. Bada, domeka honetan hitzordu berezia izango dute. Berezia eta adin tarte horretarako bereziki apropos den ikuskizuna; izan ere, Unai Iturriagak sortutako *Buah txabal!* antzezlana ikusteko aukera izango dute *gaztetxokeroek* erdiguneko gaztegunean, 18:30ean. Antzezle bakarra du lanak, Jon Zubiaga *Osoron* antzezle arrasatearra.

**'Beti', beti lokalean**

Garikoitz Kortabitarte *Beti* da protagonista. *Beti* da, beti lokalean sartuta egoten delako. Mugikorra galdu du eta hori tragedia itzela da harendako...



GOIENA

## 1951n jaiotakoak ederto ibili ziren urteroko ospakizunean

1951n jaiotako arrasatearrek domekan egin zuten urteroko ospakizuna. Mundaka aldean ibili ziren –argazkia Talaian ateratakoa da–, eta, euria egin arren, ederto ibili zirela adierazi digute: "Eguna erabat euritsua izan zen, baina oso ondo pasa genuen. Bazkaria, giroa, dantzak, aurrekontua... den-dena oso ondo irten zen. Ea datorren urterako aurtengo taldetxoa mantentzen den. Zorionak eta eskerrik asko, antolatzaileei!".

### Dorleta Martinez medikuak azken liburua aurkeztuko du urriaren 30ean Kulturaten (19:00)

Dorleta Martinez mediku arrasatearrak bere azken liburua aurkeztuko du datorren martitzenean, hilak 30, Kulturateko areto nagusian. *Fibromialgia y otras enfermedades ambientales* du izenburu liburuak, eta elikaduraren garrantzia azpimarratzen du Martinezek, betiere terapia naturalak ardatz hartuta. Ezin da ahaztu Martinezek *Osasuna eta elikadura* izeneko hitzaldi zikloan izan zuen arrakasta. Lehen saioa Kulturaten egin zen, baina gero, jende larregi joaten zenez, Amaiara pasa behar izan zen.

### 'Barrura begiratzeko leihoak' dokumentala Amaia antzokira helduko da azaroaren 1ean

Bost euskal presoren bizipenak abiapuntu dituen *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala datorren astean helduko da Arrasatera. Filmak preso horien bizipenak kontatzen ditu, bost zuzendariren begietatik. Horien artean dago Mireia Gabilondo zuzendari bergararra. Estreinaldian polemika izan zen nagusi; egileek filma erakutsi ahal izateko jasan zituzten zailtasunak salatu dituzte. Arrasaten bi emanaldi izango dira, azaroaren 1ean eta 2an, hain zuzen ere.

# Azaroan txalaparta eta backgammona ardatz, Elkartruk-en

AEDren egitasmoa da Elkartruk, eta azarorako bi ikastaro antolatu dituzte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

AED elkarteak Elkartruk egitasmoaren barruan azaroko egitaraua aurkeztu du. Bi ekimen aurreikusi dituzte: txalaparta ikastaroa bata eta backgammon mahai-jolasaren gainekoa bestea.

Txalaparta ikastaroa izango aurrenekoa. Azaroaren 3an egingo dute, 11:00etan hasita, bi orduz. Historia apur bat ikasteaz gainera, jotzeko oinarrizko ezagutzak jasotzeko aukera egongo da. Interesatuek urriaren 31 baino lehen eman beharko dute izena.

Maite Agirre elkarteko dinamizatzaileak adierazi digunez, bigarren ikastaroak backgammon mahai-jolasa izango du oinarri. "Antzinako jolasa da, duela bost mila urte Egipton eta Iranen ere jolasten zen".

Backgammonarekiko interesa dutenek azaroaren 24an izango dute ikasteko aukera, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Izena emateko azken eguna, berriz, azaroaren 19a izango da. Bost euro ordaindu beharko dira izena emateagatik. "Ikastaroa ematen dutenek musu-truk egiten dute lan. Bildutako dirua AEDk bere helburuak lortzeko jardunera bideratuko du".

**Iaz sortutako ideia**

AEDkoek 2011n izan zuten Elkartruk egitasmoa sortzeko ideia, Agirrek esan digunez: "Denbora bankuetan oinarritu ginen ekimena garatzeko. Hasiera baten, bazkideengana jo genuen, haiek gura zuten jakintza herritarrekin parteka zezaten". Orain, baina, ez da euskara elkarteko bazkideengana mugatzen deia. "Edozeinek har dezake parte, ikastaroak emanez edota horietan parte hartuz".

Erromanikoa eta Gotikoa Arrasaten eta irrintzi ikastaroa izan ziren iaz eginiko ikastaroetako batzuk. "Hamasei lagunek parte hartu zuten bakoitzean, batez beste, eta gustura aritu ziren guztiak, bai ikastaroa eman eta baita hartu zutenak ere".



Backgammonerako tableroa. | JOHN ANTHONY EVANS

## OHARRAK

**1958AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**

Azaroaren 10ean, 1958an jaiotakoak elkartuko dira euren eguna ospatzeko. Asmoa da eguerdian herriko plazan elkartzea egunari hasiera emateko, eta Kanpanzarren bazkalduko dute. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxaren kontu honetan, hain zuzen: 3035 0001 59 0011144438.

**1959AN JAIOTAKOEI DEIA**

Dei egin diete 1959an jaiotakoei azaroaren 24an euren eguna ospatzera anima daitezen. Asmoa da Aldape jatetxean bazkaltzea. Antolatzaileek jakinarazi dute interesatuek azaroaren 17a baino lehen eman beharko dutela izena, eta, horretarako, 55 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxaren kontu honetan: 3035 0202 70 2020039448.



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

## Azpeitia aldera joan ziren 1949koak

Euren eguna ospatu zuten 1949an jaiotakoek urriaren 20an. Eguraldiak ez lagundu arren, primeran ibili ziren Urola ibarrean. Aspertzeko aukerarik ere ez zuten izan, Trenaren Museoa bisitatu zuten, hamaiketako goxoa zerbitzatu zieten Azpeitiko taberna batean eta Lasaorainoko joan-etorria egin zuten trenez. Jai Alai jatetxean egin zuten bazkaria, kantu eta dantzez girotuta.





40 bat lagun erakarri zituen Pako Aristiren hitzaldiak Kulturateko Jokin Zaitegi gelara. | ITXARO ARTOLA

# Pako Aristi: "Euskaraz sortzen dutenak dirulaguntzei esker bizi direla barneratu dugu"

## AEDk antolatuta, hitzaldi interesgarria eskaini zuen martitzenean Kulturaten

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

AEDk gonbidatuta Pako Aristi idazle eta kazetari urrestildarrak *Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean* hitzaldia eskaini zuen martitzenean Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Euskara elkarteak antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* hitzaldi zikloaren barruan kokatzen da Aristiren saioa, eta ikusmina piztu zuen; izan ere, 40 bat lagun batu ziren. Hitzaldiaren ostean *feedback* polita izan zen entzuleen eta hizlariaren artean. Egoterik izan ez zutenek hitzaldia streaming bidez jarraitzeko aukera izan zuten, *Goiena.net* atariaren bidez.

Euskararen, euskaldunen eta Euskal Herriaren gainean egin zuen berba Aristik. Euskararen erabileraren egoera aztertu zuen, eta, horretarako, bide ezberdinak erabili zituen. Historia, medioen eragina eta gobernuen jarrera aztertu zituen, besteak beste.

**Harremana bi aldeen artean**

Lehenengo partean, Aristik euskararen erabileraren gaineko diagnostiko bat egin zuen. Beste batzuek esandako datuak eta esanak erabili zituen; besteak beste, azkenaldiko albisteak, hauteskunde kanpainan esandakoak eta Euskal Herrian Euskaraz elkarteak argitaratu berri duen txostena.

Gurean dauden erdarek, gaztelerak eta frantsesak, Euskal Herria herri okupatu eta menderatu bihurtu dutela esan zuen: "Hori barneratzeko politika ezberdin asko erabili izan dituzte urteetan zehar bertako eta kanpoko gobernuek", esan zuen. Esaterako, dirulaguntzen kontua aipatu zuen: "Euskaraz sortzen duten idazle, medio edo artistak dirulaguntzei esker bizi direla barneratu du gizarteak". Baina Cervantes Institutuak iaz Espainiako Estatuak gaztelera inposatzean xahutu zuen dirua miloi bat eurotik gora izan zen eta horrek ez dirudi axola duenik, Aristiren arabera. Bukatzeko, galderen txandan, harreman polita izan zen hizlariaren eta entzuleen artean.

Datorren hitzaldia Jon Sarasuak emango du, azaroaren 28an. Leku eta ordu berean izango da. Hau da, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan: *Norabideari buruz dozena bat gogoeta.*

# Pilates, abdominal hipopresibo eta patinaje ikastaroak eskainiko ditu Aukeak azaroko agendan

**J.B. /Z.V.D.M.** | ARRASATE

Urria amaitzear dago eta datorren astean sartuko gara azaroan. Bada, Aukea kirol erakundeak aditzera eman ditu Musakolako kiroldegian azarorako prestatu dituen zenbait ikastaro.

Astelehen eta eguaztenetan gimnasia abdominal hipopresibo ikastaroa emango dute, goizez (09:15) zein arratsaldez (17:30). Sabel barruko presioa jaitsi eta zoru pelbiko zein horma abdominalaren tonua handitu gura dutenei dago zuzenduta ikastaro hori. Bestalde, pilatesko hastapen ikastaroak ere antolatu dituzte: azaroaren 5ean, 7an, 12an eta 14an goizez –11:15ean– eta hilaren 6an, 8an, 13an eta 15ean arratsaldez –15:00etan eta 20:30ean.

Bi ikastaro horiekin batera, astelehen eta eguaztenetan patinajeko hastapen eta hobekuntza ikastaroak emango dituzte; 18:30ean eta 19.30ean, hurrenez hurren. Dagoeneko izena eman daiteke ikastaro guztietan.



Gimnasia hipopresiboa. | GOIENA

**Inkestak, domekara arte**

Bestalde, iaz egin bezala, kiroldegiko zerbitzuaren iritzia eta eskaerak ezagutu nahi ditu Aukeak, eta, horretarako, inkesta batzuk betetzeko aukera eman die erabiltzaileei. Ekimenaren helburua da zerbitzua hobetzen saiatzea. Inkesta horiek bete ahal izango dira urriaren 28ra arte; hau da, domekara arte.

# Alde zaharreko sekretu historikoak ezagutzeko bigarren bisita bihar

## Erosketak egiteko Ibai-Arte txartela erabili eta sarituak izan zirenendako izango da saioa

**J.B.** | ARRASATE

Ibai-Arte merkataritza elkarteak eta Arrasate Zientzia Elkarteak Udalaren babesarekin antolatutako ekimenarekin jarraituz, bigarren bisita egingo dute bihar Arrasateko alde zaharreko sekretuak ezagutzeko.

Arantza Otadui AZEko kideak jakinarazi duenez, espazio itxietan zehar egingo dute bisita: "Udazkeneko giro euritsua dela-eta, Harresi aretoa, San Juan bataiatzailearen parrokia, udaletxeko arkupeak eta kultur etxea bisitatuko ditugu". Azalpenak, neurri handi baten, inprobisatuak izaten direla esan digu Otaduik, eta, beraz, bisita bakoitza ezberdina izaten da. Mokadutxoa egiteko aukera egongo da, gainera.

**Lehen bisita, arrakastatsua**

Joan den zapatuan egin zuten lehen bisita irailean zehar Ibai Arte txartela erabiliz erosketak egin eta sarituak izan ziren herritarrekin. Lehen saioan 18 lagun elkartu ziren.



Lehen bisita gidatuan 18 lagun izan ziren. | IRATXE IARTZA

### Ford Mugarrik Gasteizko Gure Auzune taldearen bisita jasoko du domekan Iturripen, 12:00etan

Arrasate Eskubaloi taldeak domekan jokatuko du Iturripen (12:00). Lesioak eta zapatuan zenbait jokalarik bestelako konpromisoak dituztela-eta Ane Herrero entrenatzaileak partidua domekan jartzea erabaki du. Gasteizko Gure Auzune taldea izango dute aurkari arrasatearrek: "Gogor defendatzen duen taldea da, baina irabazteko partidua dela esango nuke", adierazi du Herrerok.

### Errugbi eskolaren beste saio bat egingo dute etzi Mojategin, eta ateak zabalik daude oraindik

Arrasate Errugbi Taldeak antolatuta, errugbi eskolaren beste hitzordu bat izango dute domekan Mojategin (10:30-12:00). Taldeko arduradunak adierazi duenez, beste partidu bat izan ezean domekero elkartzen dira: "12 bat gaztetxo etortzen dira eta harremana oso ona da. Errugbia ezagutu eta gozatu gura dutenendako zabalik daude ateak". Izena emateko nahikoa da bertan agertzea.

### Mondragon Unibertsitateak Donostiara egingo du bisita, Atletico San Sebastianen aurka lehiatzeko

Azken jardunaldian denboraldiko lehen porrota jaso ostean, Mondragon Unibertsitatea saskibaloi taldeak Donostian jokatuko du bihar, 18:00etan. Josu Larreategiren mutilek aurkari zaila izango dute, Atletico San Sebastian. Aspaldian egin duten denboraldi hasiera onena aprobetxatu gura dute arrasatearrek sailkapeneko goiko postuetan jarraitzeko. Orain, hirugarren dira.

### Zaldibarko futbito txapelketa azaroaren 10ean hasiko da; izena emateko hitzordua, urriaren 30ean

Zaldibarko futbito txapelketaren 51. edizioa azaroaren 10ean hasiko da. Izen-ematea zabalik dago eta bi aukera daude: batetik, hitzordu fisikoa urriaren 30erako egin dute Kulturaten, 18:00etatik 20:00etara. Hala ere, telefonoz ere eman daiteke izena, honako bi telefono zenbakietan: 635 20 58 58 edo 634 44 75 92. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu behar ditu –75 euro fidantzarako da–.


Anger taldea Gure Leku tabernan emandako kontzertuan, Arrasaten. | GOIENA

# 'Hirugarren azala' erakutsiko du Angerrek azaroan kaleratuko duen lanaz

15 urte bete berri ditu talde arrasatearrak agertokiak astintzen

**JON B. MAIDER A.** | ARRASATE
Ospatzeko motiboak pilatzen ari zaizkio Angerri aurten. Taldeak 15 urte bete berri ditu Musakolako entsegu lokaleko hormak astintzeari ekin zionetik, eta, gainera, hemendik gutxira disko berria kaleratuko du laukoteak. *Hirugarren azala* izango du izena hirugarren lanak.

Estudioaren sekretupean daukate guztia gordeta, eta aurrerapen gutxi eskaini dute. Hirugarren diskoa izango dela jakina da –*Biluztu* (MusikHerria, 2005) eta *Sedukzioaz* (MusikHerria, 2009) luzeen ostean– eta iragarri dute *Hirugarren azala* izango duela izena. Bonberenea Ekintzarekin kaleratuko dute, azaroaren 22an.

Hori bakarrik ez, *Hirugarren azala*-k izango duen azala ere erakutsi dute.

**Dena pil-pilean**
Gainontzeko guztia ondo gordeta daukate. Azken asteetan ibili dira lan berria grabatzen Oiartzungo (Gipuzkoa) Portugal Txiki estudioan Josema Linazasoro teknikariaren gidaritzapean. *Hirugarren azala* lanak "irudiaren, simulaketaren eta espektakuluaren jendartea" duela jomuga esan digute, eta "guztia errealitatea baino errealagoa den hirugarren azal horretako bizimoduaz" dihardauela.

**Webgune eta guzti**
*MusikaZuzenean.com* webgunean ireki berri duten blogean azaldu dute dena: *http://jarraipenbereziak.musikazuzenean.com/category/anger*. Bertan egingo dituztela jakiarazpen guztiak esan digute –tartean, Gose taldearen berriak zuzenean jaso daitezke–. Adi, beraz, badatoz-eta hirugarren azala jantzita.

# Itsasorako bidaia haurrendako domekan

Amaian, domekan, arratsaldeko bostetan izango da ikusgai umeendako ikuskizuna

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE
Itsasoan barrena elkarrekin bidaia egitera gonbidatzen gaitu Dejabu taldeak, oraingo honetan, *Azken portua* antzezlanarekin. Zuzeneko musika eta txotxongiloekin osatutako ikuskizun entretenigarria da. Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga arituko dira aktore lanetan eta txotxongiloak gidatzen.

Musikak, baina, badu berebiziko protagonismoa. Musikari eta argiztapen lanak Ander Fernandezek egingo ditu. Ikuskizuna aurrera doan heinean, soinu banda eraikiko du lanarendako. Narratzaile lanak ere Fernandezek berak egingo ditu. "Erritmoarekin eta doinuarekin pertsonaiarekin sartzeko ateak irekitzen dizkigu, baita publikoarekin konektatzeko ere", azaldu digu Redondok.

**Abenturaz**
Azken portuko biztanle bakarrak dira Didi eta Gogo; aspaldian ez dute barkurik ikusi portura iristen. Abentura eta laguntasunez zipriztindutako istorioa da. "Azken portuko biztanleek beraien imajinazioa eta jolasa martxan jarriko dute bizimodua aurrera ateratzeko. Laguntasunean oinarritutako bizimodua dute bi biztanleek", azaldu digu.

Musika lagun, txotxongiloak eta objektuak erabiliko dituzte agertokian. "Aktoreen pisua ere ezinbestekoa da beste pertsonaiekin jolas egiteko. Txotxongilo, objektu eta argiztapenekin ere jolas asko egiten ditugu eta narrazio modu ezberdinak erabiltzen ditugu". Hunkitzeko, barre egiteko... domekan hitzordu ezin hobea.


Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga, Dejabu taldeko kideak. | DEJABU


Governors talde arrasatearra bideoklipa grabatzen. | GOVERNORS

# Elkartasun doinuak Londresen Governorsekin

Azaroan, Erresuma Batuan dauden euskal presoen aldeko jaialdia egingo dute hainbat musika taldek

**M.A.** | ARRASATE
Euskal Herriko musikaren erreferente diren hainbat taldek jaialdi berezia egingo dute azaroaren 24an Londresen. *Elkartasun soinu banda* moduan bataiatu dute antolatzaileek elkartasun jaialdia. Taldeen zerrenda luzea da eta Arrasateko ordezkaririk ez da falta izango: Governors, Su ta Gar, Zea Mays, Siroka, Kop, Vendetta, Hesian, Ze esatek!, Lain, Itziarren Semeak...

Musika taldeez gain, Miren Amuritza eta Xabier Silveira bertsolariak, Txan Magoa eta trikitilariak izango dira, besteak beste. Jaialdira joan gura duenarendako informazio guztia *http://londonbasquesolidarity.wordpress.com* webgunean dago.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

www.goienairent.com
• Era guztietako ibilgailuak alokagai.
• Ibilgailua etxeko nahiz lantokiko atarira eramaten dugu.
• Asteburuetan ibilgailu txikia 90€ (BEZa barne)
• Aireportu-zerbitzu ezin hobea!

goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua
943 71 66 52 / 619 44 71 75
Zubillaga auzoa 20 1.a ZM5 (Olaburu zentroa) • OÑATI
info.goienarent@i-rent.es • www.goienairent.com

# Zabalik dago espazio publikoak hobetzeko planaren inguruko erakusketa

- Zortzi proposamen jasotzen ditu Santa Anako erakusketak, eta herritarren iritzia jaso gura du Udalak
- Hilaren 31n eta azaroaren 7an proposamenen gaineko azalpenak emango dituzte LKSko teknikariek

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Herriko espazio publikoak hobetzeko plan ezberdinak egin ditu LKSk, Udalak eskatuta, eta ideia edo proposamen horiek panel bidezko erakusketa baten jaso dituzte. Erakusketa hori Santa Ana aretoan dago ikusgai, azaroaren 19ra arte. 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, egunero, eta herritarrek aukera izango dute proiektu horiek ikusi eta euren iritzia emateko. Izan ere, horixe da Udal Gobernuak gura duena, herritarren interesa zein den jakitea. Herritarrek proiektu horiei ematen dieten garrantziaren adinako aurrekontua izango du plan bakoitzak datorren urtean. Aurrekontuak Herrijorran egitasmoaren hiritzako atalean sartuko lirateke proiektu horien gaineko iritziak.

**Zortzi proiektu**

LKSk herriko 24 espazio publiko aztertu ditu. 14k ondo betetzen dute funtzioa, haren ustez, eta gainerako hamar espazioetako zortzi daude erakusketan: Kalegoiena, Olaiturri, Etxaluze, Foruen plaza ingurua, Errementari plaza, Ramon Irizar, San Lorentzo eta San Martin ingurua. "Hauek, baina, ideia batzuk besterik ez da. Herritarrek ikusi behar dute eta iritzia eman, eta horren arabera bestelako itxura har dezakete proiektuak gauzatzen direnean", dio LKSko Luis Anduagak.

Proposamen horien inguruko azalpenak emateko hitzaldiak egingo dituzte LKSko teknikariek Santa Anan hilaren 31n eta azaroaren 7an, 18:30ean.

## Erakusketan ikusgai dauden zortzi proiektuetako sei



### Foruen plaza ingurua

Aparkalekua kendu eta espazio bakarra izatea plazan. Proposamenak jasotzen du lorategiak birmoldatzea; hau da, luzetara jartzea plazatik frontoirako bidean. Horrez gain, plaza erdian dagoen kioskoa tokiz aldatzea ere jasotzen du ideia horrek. Proposamena da garai batean barkillo-egilea zegoen tokian jartzea kiosko berria, funtzionalagoa izateko helburuarekin.



### San Martin parkea

Herriko parkerik handiena txukuntzea da asmoa. Batetik, ermita ingurua txukundu eta fatxadaren kontra bidexka bat egitea. Parkearen bi muturretan haurrendako jolasak jartzea ere proposatzen da, egurra, sokak edo harria erabilita. Mahaiak eta eserlekuak egongo diren egoteko lekua ere jasotzen du ideiak. Baita bolatokia mantentzea eta Kalbarioko gurutzeak zaharberritzea ere.



### Errementeri plaza

Bidebarrieta kalearen alde bietan dauden plazak elkartu eta espazio bakar bat osatzea da ideia nagusia. Horretarako, erditik doan errepidea oinezkoendako bilakatuko litzateke eta zirkulazioa berrantolatu egin beharko litzateke. Bestalde, plaza azpian ibilgailuendako aparkalekua egiteko aukera ere jasotzen du proposamen horrek; Ramon Irizar kaletik sarrera izango lukeena.




### Kalegoieneko ziburuak

Kalegoieneko haur parkea handitzea eta estaltzea da proposatzen den ideia. Udalak, LKS Ingenieritzak egindako azterlan hori kontuan hartuta, Kalegoieneko jolaslekua estaltzea erabaki du. Orain, LKSri berari esleitu dio proiektua Udalak, 17.000 eurotan. LKSk hilabeteko epea du proiektua idazteko eta asmoa da aurtengo neguan bertan estaltzea Kalegoieneko ziburuak.



### Etxaluzeko parke gorria

Etxaluze auzoan dagoen parke gorriko zorua berritu eta erabilera askotariko kirol pista bat egitea da ideia bat. Horrekin batera, baita umeendako jolasak jartzea ere. Horren gain, San Martin aldetik datorren bidexka bat irekitzea eta lur azpiko aparkalekura doan arrapalatik babesteko berdegune bat egitea ere proposatzen da. Baita berdeguneak berrantolatzeko beharra ere.



IRUDIAK: LKS

### Ramon Irizarko parkea

Berdegunea berrantolatu eta espazio zabal bat sortzea proposatzen da, antolaketa beste modu batera egitea eta askotariko erabilera ematea parkeari. Egoteko espazio handi bat egongo litzateke, eta umeendako jolas berriak ere bai. Ramon Irizar kalearekin muga eginez, eserita egoteko banku luze bat jartzea proposatzen da eta haren kontra, zuhaitz ilara bat.



Mirentxineko bi gidari furgoneta baten aurrean joan den udaberrian. | MIRENTXIN

# Mirentxineko bi furgoneta erosteko kontzertua izango da gaur Gaztelekuan

Gatillazo, Porco Bravo eta Papalagi taldeek joko dute, 22:00etan

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Mirentxinen aldeko kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Gaztelekuan. Gatillazo, Porco Bravo eta Papalagi taldeek joko dute, 22:00etan. Mirentxineko Oñatiko taldeak antolatu du kontzertua eta hor aterako den dirua bi furgoneta berri erosteko izango da.

**Mirentxin**

Euskal Herritik urruti dauden espetxeetan preso dauden euskal presoak bisitatzera doazen senide eta lagunei laguntzeko ekimena da Mirentxin. Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan ez ezik, hainbat herritan ere badaude laguntza hori emateko taldeak; Oñatin, esaterako.

Bederatzi furgoneta dituzte Euskal Herri osoan, baina horietako bi zahartu egin dira eta berriak erosi behar dituzte. "Lau urte inguru irauten dute furgonetek, gutxi gorabehera. Hilean 8.000 kilometro egiten dituzte, batez beste", azaldu dute Oñatiko taldeko kideek.

Oñatiko taldea eskoriatzarrekin osatzen da. Guztira, 44 gidari dira, 32 oñatiarrak eta beste 12 eskoriatzarrak. Lyongo (Frantzia) espetxerako bidaia egiten dute hilean bi aldiz, hileko lehenengo eta hirugarren asteburuetan. "1.200 kilometro inguru daude hemendik Lyonera, 12 bat orduko bidaia 40 minutuko bisita izateko. Helburua da preso daudenak bisitatzera doazen lagunei eta senideei elkartasuna adierazi eta bidaia egiten laguntzea. Batetik, hegazkinean edo trenean joatea baino merkeagoa da eurendako furgonetan joatea, eta bestetik, taldean egiten dute bidaia, bakarrik egin ordez. Furgoneta beteta joaten da gehienetan. Bederatzi lagunendako tokia izaten dute. Bi gidari eta zazpi senide joaten gara bidaia bakoitzean. Guk gidari lanak egiten ditugu, eta, lagunak eta senideak bisitan dauden bitartean, deskantsatu egiten dugu, bueltako bidaiarako", diote.

**Urtarrila ezkero**

Oñatiko Mirentxin taldea 2012ko urtarrilean sortu zen. Hasieran hilean bidaia bat egiten zuten, baina egun, bi egiten dituzte. "Orduan, sei preso zeuden Lyonen, eta gaur egun, bederatzi daude. Dispertsioak, beraz, iraun egiten du". Bederatzi horien artean badago debagoiendar bat, Maixol Iparragirre eskoriatzarra.

Egun, 44 lagunek osatzen dute taldea, baina zabalik dagoela gogorarazi gura dute kideek. Interesa duen edonork, telefono zenbaki hauetako batera dei dezake: 679 52 64 22 (Iban); 692 71 47 02 (Ibon); 687 73 68 72 (Josu).

**Kontzertua eta egutegiak**

Mirentxineko furgonetan erosteko ekimen bat baino gehiago egingo dituzte urtea bukatu bitartean. Horietako bat da biharko kontzertua. Gatillazo taldeak laugarren lana aurkeztuko du: *Sangre y Mierda;* Porco Bravok, berriz, *Grooo* estudioko lehen lan luzea aurkeztuko du eta Papalagi talde oñatiarrak, berriz, lehen kontzertua emango du. Nahiz eta ibilbide luzeko musikariak izan, hauxe izango da talde moduan oholtza gainera igoko diren lehen aldia.

Kontzertuaz gain, baina, txartelak ateratzen jarraituko dute eta datorren urteko egutegiak ere laster kaleratuko dituzte. Batutako diru guztia erabiliko dute furgonetak erosteko.

# Arrikrutzeko bideoak harrera ona izan du

Palentzian egin den Cuevatour kongresuan interesa piztu dio bati baino gehiagori

**O.E.** | OÑATI

Harrera ona izan du Turismo bulegoak eta Natur eskolak elkarrekin egindako *Arrikrutz uraren taupadak* izeneko ikusentzunezkoak Palentziako Aguilar de Campoo herrian joan den asteburuan egin zuten Cuevatour kongresuan.

Ikerne Altubek, Oñatiko Garapen eta Turismo agentziako arduradunak azaldu duenez, Espainian eta Portugalen kobazuloen inguruan lana egiten duten gidari, teknikari edo ikertzaileen aurrean aurkeztu zuten ikusentzunezakoa eta interesa piztu zuen. "Hiruzpalau lagun etorri ziren gero bideoaren inguruan galdezka, eta hori ona da. Ikusentzunezko hori berezia da, Arrikrutz bisitatzen duenak ikusi ez ditzakeen bazterrak erakutsi eta azaltzen ditu hala nola geologia edo biologia aldetik, adibidez. Uraren ibilbide ezberdinak ere erakusten ditu, eta gustatu egin zaie, antza".

**Formazioa ere bai**

Cuevatour moduko kongresuak proiektuak aurkezteko tokiak ez ezik formaziorako leku egokiak ere badirela dio Ikerne Altubek. "Zuzeneko harreman horrek, gainera, ahalbideratzen gaitu edozein proiekturen inguruko zalantzak edo galderak hantxe bertan egitea. Ideia berri asko ikusten dira horrelakoetan, eta horiek ikasteko edo ikusteko modua ere izaten dugu guk".

Arrikrutz uraren taupadak izeneko bideo zabaldu gura dute orain, eta hori egiteko moduak aztertzen ari dira Turismo bulegoa eta Natur eskola.




O.E.

## Proiektua gauzatzeko gida

Norberak bere proiektua gauzatu ahal izateko baliagarria izango zaion gida atera du Iñaxio Irizar oñatiarrak. *El plan de negocio para la práctica* du izena Irizarren laugarren liburuak eta ideia berri hori enpresa bilakatzeko pausuak eta adibideak eskaintzen ditu. Egileaz gain, Josu Lizarralde eta Jesus Mª Ugarte, sozioekonomiako zinegotzia eta teknikaria, ere egon ziren martitzeneko aurkezpenean.

# Kirol eta Gaztedi aurrekontuak, Herrijorran

**O.E.** | OÑATI

Datorren urteko aurrekontuak lantzen hasi da Udal Gobernua eta herritarren parte-hartzearekin ari da egiten, aurreko urtean bezala. Horrela, datorren astean beste hainbat arlotako aurrekontuak jorratuko dituzte Aurrekontuak Herrijorran izeneko egitasmoaren barruan. Astelehenean, adibidez, Kirola eta Gaztedia landuko dituzte; martitzenean, Kultura, Liburutegia, Turismoa eta Berdintasuna, eta eguaztenean, Ongizatea. Bilera irekiak dira eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Azaroaren 7ra bitartean aurrekontuak lantzeko prozesuaren lehen fasea egingo dute, helburuak azalduko dituzte; bigarren fasean, berriz, lehentasunak zehaztuko dituzte.

## Lazarragako lorategia zabalik dago herritarrendako

Lazarraga jauregiko lorategia zabalik dago: 09:00etatik aurrera astean zehar eta 09:30etik aurrera asteburuetan. Itxiera ordua iluntzean izango da; sasoi honetan, 19:00etan. Udaltzainak arduratuko dira lorategia itxi eta zabaltzeaz. Oinezkoendako parkea denez, ezin da bizikletarekin sartu, ez patinetearekin, ez baloiarekin.

## Azaroaren 1ean, 'Lo imposible' filma zineklubaren ordez

Datorren eguenean, azaroak 1, ez da zinekluberik egongo, baina bai, ordea, zinema komertziala. *Lo imposible* filma emango dute. Herritarren eskaera asetzeko, hiru emanaldi estra egingo dituzte azaroko zubian, inor kanpoan gera ez dadin. Asteburu horretan umeendako film bat ere emango dute, baina zehazteke dago zein.

## Txapa lehiaketa egingo dute bihar Gaztelekuko kuboan

Kuboko IV. txapa lehiaketa egingo dute bihar, zapatua, Gaztelekuan. Txapelketa horretan parte hartzeko, nahikoa da lehiaketa hasi baino lehen han agertzea; lehia hasi aurretik eman daiteke izena. Kuboko txapa lehiaketa bihar arratsaldean izango da, 17:00etan, eta gaztetxo guztiak daude gonbidatuta.

# Eskola kiroleko astegunetako eta asteburuko ekintzak abian

Hiru zerbitzu ematen dituzte 5 urtetik DBHko 4. mailara artekoendako

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Oñatiko eskola kirola martxan da. Astegunetako ekintzak urriaren 10ean hasi zituzten eta aste bukaerako partiduak, berriz, hilaren 20an. Horiek dira eskola kirolaren egitarauak eskaintzen dituen hiru zerbitzuetako bi. Hirugarrena aste bukaeretako mendi irteerak dira.

Hiru zerbitzu horiek martxan egongo dira Aste Santuko oporrak hartu arte. Ondoren, Udaberriko txapelketa jokatuko du ekainaren 15era arte. Aurtengoa 40. edizioa izango da.

**Askotariko kirolak**

Asteguneko ekintzetan 5 eta 12 urte arteko 135 neska-mutikok dihardute. Asteko egun baten, gero zapatuetako partiduetan lantzen dituzten kirol eta jokoak ezagutzen dituzte; besteak beste, zortziko futbola, areto-fubtola, saskibaloia, eskubaloia, atletismoa, igeriketa, esku-pilota, tenisa, errugbia, jolasak, patinajea eta herri kirolak.

Lehenengo mailatik laugarren mailara arte, ikastetxe guztietako neska-mutikoak nahastuz egiten dituzte taldeak. Entrenatzaile lana gurasoek egiten dute. Bosgarren eta seigarren mailetan gelaka antolatzen dituzte taldeak, gurasoen laguntzarekin.

> **DATUA**
>
> **40**
>
> EDIZIO
>
> Hori da Udaberriko txapelketak beteko duena.



Lau neskatila, iazko eskola kirolako tenis jardunaldian | ESKOLA KIROLA

**Mendi irteerak**

Hirugarren zerbitzua mendi irteerak dira. Adinaren arabera antolatzen dituzte: batetik, 3. eta 4. mailetako neska-mutikoendako; eta bestetik, 5. mailatik DBHko 4. mailara artekoendako. Txikienak Oñatiko parajeetan ibiliko dira eta nagusienak, herrian eta Gipuzkoan egingo dituzten irteeretan. Bestalde, DBHko ikasleendako kirol jardunaldi berezia egingo dute, maiatzean edo ekainean.




## Arantzazuko Hospederian lan egiten zutenak elkartzeko deialdia

**M.B.** | OÑATI

1975etik 1982ra Arantzazuko Hospederian lan egin zutenendako deialdia egin du Edurne Markinezek. Mahaiaren bueltan elkartzeko asmoz, bazkari edo afari baterako gonbita egin du: "Hospederian ibilitakook badaukagu elkarren arteko hartu-emana. Baina eurekin mahaiaren bueltan elkartzeko gogoa daukat", esan digu.

Hori horrela, urte haietan Arantzazuko Hospederian lan egin zutenek 661 05 99 91 telefonora (Edurne) deitu behar dute. Eta, hain zuzen ere, deialdi horrek duen erantzunaren ondoren zehaztuko dute eguna, bazkaria edo afaria izango den, lekua eta ordaindu beharrekoa.

**Sukaldean eta jangelan**

13 urteko tarte hartan emakume askok egin zuten lan Hospederian. "Astegunetan 15 egoten ginen, eta aste bukaeretan beste hainbat etortzen ziren laguntzera, batez ere ezkontzak genituenean. Batzuek sukaldean egiten genuen lan eta beste batzuek zerbitzari lanetan, jangelan. Talde polita osatu genuen", dio Markinezek.

Talde hartako langile asko oñatiarrak ziren, baina inguruko herrietakoak ere bazeuden: Aretxabaleta, Aramaio, Arrasate, Urretxu, Zumarraga... eta baita kanpotik etorritakoak ere: Valladolid eta Salamancakoak. "Azken horiekin hartu-eman txikiagoa daukagu. Ea, bada, zenbat animatzen diren".

## Hondurasko GKE batendako dirua batzeko golf txapelketa jokatuko dute Irelore zelaian bihar

ACOES Honduras GKEk golf txapelketa antolatu du biharko, Irelore golf zelaian. Erakundearendako dirua batzeko ekintza izango da, eta laguntzaile lanetan ibiliko da Jabi Baltzategi, golf irakaslea. Txapelketa 10:30ean hasiko dute, eta 15 euro ordaindu beharko da parte hartzeagatik. Izena egunean bertan edo aldez aurretik eman daiteke, 943 71 88 13 telefonoan. Txapelketan jasotako dirua erakundeak esku artean dituen proiektuak garatzeko erabiliko dute.

## OHARRAK

**LEZESARRIKO KOFRADIA**

Lezesarri auzoko kofradiak urteko batzarra egingo du domekan, hilaren 28an, 11:45ean, San Estebango ermitan. Jarraian, 12:00etan, meza egongo da urtean zehar hildako auzokideen alde. Eta horren ondoren, luncha egingo dute.

**KINTADA**

1970ean jaiotakoek irteera egingo dute Errioxara azaroaren 17an. Interesatuek 50 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 30350005320051047256 kontuan, azaroaren 12a baino lehen. Prezioaren barruan bisita, hamarretakoa eta bazkaria sartzen dira.

**TXAPA TXAPELKETA**

Bihar, zapatua, kuboko IV. txapa txapelketa egingo dute, 17:00etan. Izena txapelketa hasi aurretik eman behar da.

# Herio Anderearen erritua azalduko dute Angiozarren

Turismoaren eta ondarearen bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte azarorako

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Ondarearen eta turismoaren ikuspuntutik Bergarak daukan aberastasuna plazara atera nahi du azaroan Udaleko Turismo Sailak, eta, horretarako, hainbat ekimen antolatu dituzte. Horietako batzuk herrira begira izango dira eta beste batzuk, kanpora begira. Guztiek ere etorkizuna eta iragana uztartuko dituzte, Turismo Saileko ordezkariek uste dutelako bien arteko batura dela egungo ondarea.



Angiozarko San Migel elizako sarrera. | JUANJE ARGAZKI DENDA

### Herio Anderearen erritua

Antolatutako ekimenetako bat Angiozarren izango da eta garai bateko heriotza-errituekin zerikusia dauka: "Ez hain aspaldi heriotza bizitzaren osagai zen gurean eta joandakoaren oroimena ez zen oroimina, ez halabeharrez. Heriotzaren inguruan oso erritu zehatzak izan dira euskal gizartean, bai kristautasuna nagusitu baino lehen, bai ondoren. Bergaran bertan baditugu horren aztarna batzuk eta erritu batzuk bizirik mantentzen dira", azaldu digu Udaleko Turismo teknikari David Zapirainek. Bada, erritu horiek ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte azaroaren 1ean eta 3an. Angiozarko kalean elkartuko dira 11:00etan eta Elizamenditik abiatuta gero, San Migel elizaraino joango dira.

### Autokarabanen topaketa

Bergaran turismoa sustatu eta ingurukoak erakartzeko, bestetik, autokarabana topaketa antolatu dute azaroaren 17rako eta 18rako. Euskal Herriko autokarabana-zaleak batzen dituen Sorbeltz elkartearekin batera antolatu dute topaketa. "Turismo mota hori ezin egokiagoa da Bergararendako, eta jasangarria da, gainera. Bestetik, karabanistekin eurekin egon nahi dugu elkarren berri izateko eta haien beharrak aztertzeko ahalik eta zerbitzu hobea eskaini ahal izateko", adierazi du Zapiranek. Labegaraietan elkartuko dira eta mendi irteerak egingo dituzte, baita bisita gidatuak herrian bertan ere.

### Erreileno dastatzea

Eta Bergarako turismoaz eta ondareez hitz eginda, ezin erreilenoak ahaztu. Azaroaren 24an Munibe plazan erreileno dastatzea egongo da.

Azkenik, egitaraua ixteko, azaroaren 30ean, Irizar jauregian, *Ekonomia morala: ekonomia, ondarea eta historia Bergaran* izeneko hitzaldia eskainiko dute David Zapirainek eta Juantxo Madariagak, 19:30ean.

**DAVID ZAPIRAIN**
ONDARE TEKNIKARIA

## "Ondarea etorkizunak eta iraganak bat egiten duten tokia da"



GOIENA

Turismo Saila egitarau mardula prestatzen dabil azaroako.

**Etorkizuna eta iragana uztartu nahi dituzue. Zergatik?**

Ondarea ez dira harriak edo garai bateko aztarnak bakarrik. Iragana eta etorkizuna elkartzen diren tokia baizik; beraz, ezinbestekoa da egungo gizartearen esku hartzea. Iraganeko kontuak dakizkienak ondokoari kontatu behar dizkio; horrek ahalbidetuko du kanpokoei kontatu ahal izatea.

**Bergarak turistak erakartzeko potentziala duela uste duzu?**

Noski. Jendeak pentsa dezala oporretara joaten den herri edo hiri horrek Bergarak adina aukera eskaintzen dizkion; orduan konturatuko dira herri ederra dela. Bertakoek sinesten hasi behar dute Bergarak merezi duela eta turismoan jarduteko aukerak ere badituela.





Bergarako Orfeoi Gazteko neska-mutikoak entsegu batean. | PIKUPE

# Izen, zuzendari eta proiektu berriekin haize freskoa iritsi da Orfeoi Gaztera

Gabero abesbatza Bergarako Orfeoi Gaztea deituko da aurrerantzean eta abestea gustuko duten gazteak proiektu berrira batzera animatu nahi dituzte

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Orain arte Gabero abesbatza izandakoak garai berri batik ekingo dio ikasturte honetan. Besteak beste, izen berriarekin eta zuzendari berriarekin Bergarako neska-mutikoak kantuan egin eta ondo pasatzera gonbidatu nahi dituzte.

**Kantu zaletasuna sustatzen**

Bergarako Orfeoioko arduradunen esanetan beti izan dute "ardura berezia herriko kantari gazteen formazioan eta garapenean" eta lan horretan jarraitu nahi dute. Musika Eskolako gaztetxoei bereziki, eta Bergarako kantari gaztetxo guztiei orokorrean, kantatzeko aukera eman nahi diete. Zentzu horretan gainera, Musika Eskolaren eta helduen orfeoiaren arteko zubi-lana egiten jarraitu nahi dute: "Musika Eskolako abesbatzako kide diren neska-mutikoak 13 urte bete eta Musika Eskola uzten dutenean gure taldera batzera animatu nahi ditugu".

Helburu horrekin, pasa den ekainean, Orfeoiak eta Musika Eskolak elkarlanean, eta Aitor Bianek gidatuta, egun osoko tailerra egin zuten. Elkarrekin bazkaldu ostean egindako lana Santa Marinan erakutsi zuten. Ekimenak emaitza polita izan zuen eta bide beretik jarraitzeko asmoa azaldu dute.

**Orfeoiarekin elkarlanean**

Musika Eskolarekin bakarrik ez helduen orfeoiarekin ere harremanak estutu nahi ditu Bergarako Orfeoi Gazteak. Proiektu bera direla erakutsi nahi dute: "1992az geroztik Bergarako Orfeoiak gazteen taldea izan du erreleboa eta Orfeoiaren jarraipena bermatzeko. 2002an garai berri bati ekin eta Gabero sortu zen. Orain bien arteko harremana estutu nahi dugu azken finean proiektu berdina garelako".

**Entseguak astelehenetan**

Bergarako Orfeoi Gazteak hasi ditu dagoeneko 2012-2013 ikasturteko entseguak. Dena dela, gogorarazi nahi dute taldea zabalik dagoela eta izena emateko aukera badagoela oraindik ere. Astelehenero elkartzen dira Santa Marina elizako sakristau etxean 20:00etan. "Kantuan egitea gustuko duten gazteei entsegura gerturatzeko esan nahi diegu, beldur barik gainera. Kantuan egiteaz gain ondo pasatuko dute -eta". Alaitz Urkia da zuzendari berria eta Aitor Bianen laguntza ere izango du.



BENITO CANTERO

## Kirol argazki lehiaketako sarien banaketa

Eguaztenean banatu zituzten, Aroztegi aretoan, XXII. Kirol Argazkien Lehiaketako sariak. Carlos de Cos Azconak eskuratu du aurten zuri-beltzeko kategorian lehenengo postua eta Jorge Murgiondok, koloretako kategorian. Lehiaketako argazkiekin osatutako erakusketa dago ikusgai Aroztegin domekara arte.

# B26 mugimenduak burrunbada egingo du gaur herriko plazan

A.B. | BERGARA

B26 mugimenduak deituta eta *Murrizketa sozialik ez* lelopean burrunbada egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, San Martin plazan. Protesta egin ostean herriko plazan bertan batzarra egitea da asmoa, aurrera begira zein ekintza egin daitezkeen adosteko.

Antolatzaileek ahalik eta herritar gehien batu nahi dituzte plazan, eta zarata eginez ozen esan murrizketen aurka daudela. Horren harira, behin eta berriro azpimarratu dute mugimendu zabala dela eta profil askotariko jendea batzea dela helburua: "Gurea mugimendu erabat irekia da. Murrizketen kontra eta zentzu horretan azkenaldian hartu diren erabakien aurka ahotsa altxatu nahi dugu, baina inolako aldetan kokatu barik.Izan ere, ekimen zabala izatea lortu nahi dugu".

**26 guztietan kalera**

Filosofia eta helburu horrekin jaio zen B26 mugimendua: hil bakoitzeko 26an kalera atera eta modu ezberdinetan murrizketa sozialen kontra protesta egitea. Irailaren 26ko greba orokorraren ostean Bergaran sortutako mugimendua da B26. Manifestazio benetan jendetsua izan zen egun hartan, eta, hain zuzen, herritarren egonezin hori azaleratzen jarraitu nahi dute.

## Alfredo Gonzalez Chirlaquek Bilboko musika banda zuzenduko du eta haren aita omenduko dute

Bergarako Bandako zuzendariak, Alfredo Gonzalez Chirlaquek, Bilboko Udal Musika Banda zuzenduko du domekan Euskalduna jauregian egingo duen kontzertuan. Bilboko musika bandak gonbidatuta doa, baina ez da horretan geratuko guztia. Haren aita Miguel Gonzalez Bastida ere omenduko dute musikari, baina batez ere banden arloari, eskainitako guztiagatik.

## Euskararen Egunean Bergaran egingo diren ekintzak antolatzeko bilera urriaren 30ean

Euskaren Eguna ospatuko da abenduaren 3an, eta, hori dela eta, urtero moduan, ekitaldi ugari egingo dira Euskal Herri osoan. Udalak aurtengo Euskararen Egunerako Bergaran egingo diren ekimenen antolaketan parte hartzera gonbidatu nahi ditu bergararrak. Urriaren 30ean, 18:30ean, Irizar jauregiko aretoan bilera irekia egingo dute.

## Langabeendako ikastaroak ortu ekologikoen inguruan GaraiOn NaturArteak elkartearekin

Ozaetako Otaza auzoan izango da ikastaroa eta bertan, ortugintza ekologikoari, neguko zaintza lanei eta ekonomia autonomoari buruz ikasteko aukera eskainiko da. Eskolak euskaraz eta doakoak izango dira. GaraiON NaturArteak eta Lanbidek antolatutako ikastaroa da. Urriaren 29an hasita, 50 ordu izango ditu; astelehen, martitzen eta eguaztenean, 14:30etik 19:00etara.

## Laino skate parkeak hirugarren urteurrena ospatuko du zapatuan txapelketa eta kontzertuekin

Barruko lehenengo skate parkea izan zen Estatuan, eta apurka -apurka badoa bidea eginez. Lainok hirugarren urteurrena ospatuko du zapatuan. 16:00etatik aurrera skate txapelketa egingo dute. Gauean, berriz, 22:00etan hasita, kontzertuak egongo dira Bitter Honey eta Discipulos de Dionisios taldeekin.

## OHARRAK

**1944AN JAIOTAKOEN KINTADA**

Azaroaren 10ean 13:00etan elkartuko dira Irala kalean eta 14:30ean bazkaria egingo dute Lasa jatetxean. Sanchez ile-apaindegian eman behar da izena (943 76 23 70).

**1933AN JAIOTAKOEN KINTADA**

Azaroaren 18an Azpeitxin bazkaria egingo dute, baina 12:00etako mezan elkartuko dira lehenengo. Intxorta tabernan eman behar da izena.

**1934AN JAIOTAKOEN KINTADA**

Azaroaren 24an bazkaria egingo dute Erreki jatetxean. 14:00etan txikiteoa egingo dute eta 14:45ean taldeko argazkia aterako dute. Errekin eman behar da izena, 12 euro ordainduta.



Gizarte Integrazioko bigarren mailako ikasle eta irakasle taldea Madrilgo Puerta del Sol plazan. | MARIAREN LAGUNDIA

# Madrilgo El Gallinero ijito-kokalekuko 33 ume Mariaren Lagundira datoz

Gizarte Integrazioko ikasleen ekimenez datoz azaroaren 8tik 11ra bitartean

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Madrilgo Cañada del Realen dagoen El Gallinero ijito-kokalekuko zenbait ume Bergarara etorriko dira Mariaren Lagundia ikastolak gonbidatuta. 33 ume etorriko dira, azaroaren 8tik 11ra bitartean eta Mariaren Lagundiko ikasleekin egotearekin batera, zenbait irteera ere egingo dituzte.

Ikastola horretako Lanbide Heziketako Gizarte Integrazioko ikasle eta irakasleen ekimenez etorriko dira umeok hona. Hain justu ere, Gizarte Integrazioko bigarren mailako ikasle eta irakasleak El Gallineron izan ziren otsailean, boluntario moduan hango umeekin lanean, eta horixe izan da abiapuntua.

### Europako kokaleku handiena

Madrileko Puerta del Sol-etik 12 kilometrora dago El Gallinero. Gaur egun, ijito errumaniarren Europako txabola-kokaleku handiena da. 90 familia bizi dira bertan, 440 lagun eta horietatik 250, 15 urtera arteko neska-mutikoak dira.

Mariaren Lagundik ikasleek otsailean egindako egonaldia Coordinadora de Barrios eta San Carlos Borromeo parrokiari esker egin ahal izan zuten. Pobrezia larrian bizi diren umeen ausardia bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten: arropa barik, gosaldu barik eta gurasoen babes barik jaikitzen ziren ohetik eskolara joateko.

Esperientzia horren bitartez, "gogorra eta aberasgarria aldi berean, halako baldintzetan eskolara joaten diren umeak egun batzuetarako Bergarara ekartzea ideia ona zela pentsatu genuen", esan dute Gizarte Integrazioko ikasleek. Lau helburu rekin ekartzea, hain zuzen ere: boluntario lanaren bitartez, ideia bera errealitate bihurtzea; eskolara joaten diren haur horien jarrera indartzea esperientzia ludikoaren bitartez; neska-mutikoei nekazaritza-ingurua ezagutzeko aukera ematea ingurune normalizatu baten; eta Mariaren Lagundiko umeei, beste ume batzuen errealitatea ezagutzera ematea, beste kultura batzuk ezagutzera ematea.



Zenbait ikasle El Gallinero ijito-kokalekuko umeekin jolas egiten. | M.L.

### Azaroaren 8tik 11ra

Bi aste barru etorriko dira El Gallineroko umeak Bergarara, azaroaren 8tik 11ra. Elosuko apaiz-etxean hartuko dute ostatu eta egunero ekintza ezberdinak egingo dituzte Mariaren Lagundiko Gizarte Integrazioko eskoletako 100 boluntariorekin batera.

Nekazaritza ingurunea ezagutzeko zenbait irteera egingo dituzte: Gomiztegira, Arrikrutzera eta Aramaiora joango dira, eta baita Donostiako Acuariumera ere. Eta nola ez, Mariaren Lagundiara ere joango dira bertako ikasleekin jolas egin eta goiz polita eurekin pasatzeko.

---

AITOR ASTORKIA | GIZARTE INTEGRAZIOKO IKASLEA

## "Halakoak bertatik bertara ikusteak benetako egoeraz jabearazten zaitu"



M.B.

Ikaskideen bozeramaile egin eta El Gallineron bizi izandakoa kontatu digu Astorkiak.

**Nolako esperientzia izan da El Gallinero ezagutzea?**

Oso aberasgarria. Maiz telebistatik ikusten diren halako errealitate gordinak bertatik bertara ikusteak benetako egoeraz jabetzen laguntzen du.

**Egoera gogorrean bizi dira han umeak.**

Bai. Edozein umerendako eskolara joatea ohiko gauza den moduan, han ez da horrela. Gurasoei laguntzea, lapurtzea, eskean egitea... izan dira umeon zeregin nagusiak. Baina ari da aldatzen. Boluntario talde bati esker hasi dira eskolara joaten; etorkizun hobe baterako aukera moduan ikusten dute, baita euretako askoren gurasoek ere. Bizi duten errealitate gordina aldatzeko giltza gisa ikusten dute.

**Zein izan zen zuen zeregina?**

Umeei euren eguneroko laguntzea: goizean esnatzen genituen, jantzi, gosaria eman eta eskolara laguntzen genituen. Arratsaldean, berriz, txabola-kokalekuan bertan jolas egiten genuen eurekin. Horrez gain, Moratalladeko ludoteka ikusi genuen eta Cañada Realen ere egon ginen janaria banatzen laguntzen. Han ikusitakoak oso gogorrak izan ziren.

**Zerk eman ditu atentzioa, batez ere?**

Madrilgo Puerta del Soldik 12 kilometrora halako errealitate bat egoteak; askok jakin ere ez dakite halako ijito-kokalekua han dagoenik. Hain tarte txikian halako ezberdintasuna egoteak eta agintariek ezer gutxi egiteak harritu nau gehien.





SAN LORENTZO AUZOA
B E R G A R A



167.500€-tik aurrera
27.869.655 pta

Ez itxaron gehiago!
BEZ a %4
abenduaren 31 arte

1, 2 eta 3 logela, sukaldea barne
Garaje eta trastelekuak

Etxebizitzen bukaera 2012

Eraikitzailea
INGESLAN CONSTRUCCIONES

Sustatzailea
Grupo Ormak

Argibideak eta Salmenta
943 424 430
www.ormak.es

# Tasa gehienak %3 igoko dituzte; tartean, zaborra

## Ura ez dute igoko, baina ondasun higiezinen gaineko zerga eta jarduera ekonomikoaren gainekoa %5

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Astelehenean onartu zituen udalbatzak datorren urtean aplikatuko dituzten tasa eta zergen igoerak. Bilduko zinegotzien botoekin onartu zituzten, eta EAJ aurka agertu zen "irizpide falta" egotzita.

Udal tasa gehienek %3ko igoera izango dutela iragarri zuen Ana Bolinaga alkateak: "Denok dakigu Udalaren egoera ekonomikoa latza dela, baina %3 igotzea erabaki dugu zentzuz jokatu eta herritarrak ez itotzeko". Aldundira aurkeztutako finantzazio planari begirako igoerak direla gaineratu zuen, "eta gehiago duenak gehiago ordaindu" beharko duela. Hala, etxebizitza hutsak dituztenei %100eko errekargua aplikatuko diete.

### Hobariak gutxien dutenei

%3ko igoera izango duten tasen artean daude: etxeetako obra txikiak; ibilgailuak (potentziak gora egin ahala igotzen doa); zaborra; eta Pausoka haur eskola. Etxean kontsumitzen duten urari, ostera, igoerarik ez ezartzea erabaki dute.

Bestalde, ondasun higiezinen gaineko zerga %5 igoko da. Eta milioi bat euro baino gehiagoko fakturazioa duten herriko enpresei %5eko igoera aplikatuko diete jarduera ekonomikoaren gaineko zergan.

Hobariak ere iragarri zituzten. Lanbide arteko gutxieneko soldatara (641,40 euro hilabetean) iristen ez direnek ondasun higiezinen zergan murrizketa izango dute. Murriztuko dutena familia osatzen duten kideen kopuruaren arabera dago.

> **DATUA**
> **%100**
> ERREKARGUA
> Etxebizitza hutsen jabeei %100eko errekargua aplikatuko diete.

### Kiroldegiari industria ura

EAJko zinegotziak ez ziren bat etorri aurkeztutakoarekin eta irizpide falta egotzi zioten.

Aralarkoek ere "ez zuten ulertu" zergatik igo zituzten tasa batzuk eta ez beste batzuk, urarena, hain zuzen. Gainera, Inaxio Garrok jakin gura izan zuen Ibarra kiroldegiari uraren zein tasa aplikatuko dioten, industriari dagokiona edo etxebizitzei dagokiena, prezioan aldea dagoelako. "Industriari dagokiona aplikatuko diogu, baina azaroaren 6an batzarra dugu bertako arduradunekin eta orduan jakingo dugu zein den kiroldegiaren egoera. Jasoko ditugun datuen arabera berraztertu daiteke zein tasa aplikatu; ez hori bakarrik, beste erabaki batzuk ere hartu beharko dira defizitarioa baldin bada", azaldu zuen alkateak. Aralarkoak ez ziren guztiz konforme geratu eta abstenitu egin ziren.

# Zainduz gimnasioa salgai jarri du Udalak

**M.A.** | ARETXABALETA

Asteleheneko ezohiko osoko bilkuran jakinarazi zuen Udalak Zainduz gimnasioa egondako lokala salgai duela. 485.000 euro pasatxoko prezioa ezarri dio, eta hori hobetzeko eskaintza egin beharko dute interesatuek.

### Kiroldegi alboko hesia

Bestalde, kreditu aldaketa bat ere onartu zuten bilkura hartan, Ibarra kiroldegiaren albo batean hesia jartzeko. Erreka aldera ematen duen gunea era arriskutsuan dagoela uste du Udalak, eta babesgarri bat komeni dela. Horretarako dirua, 10.800 euro inguru, enpresen ekimenendako partidatik hartzea onartu zuten aho batez. Izan ere, partida hori osorik dago oraindik.

### Udal eraikinen garbitasuna

Udal eraikinen garbitasun zerbitzua kudeatuko duena ere izendatu zuten astelehenean: Leioan (Bizkaia) egoitza duen Clece enpresa. 123.000 euro izan zen lizitaziora ateratako prezioa, eta sei aurkeztu ziren deialdi horretara. Puntu alde txikia izan duten bi enpresen artetik hautatu du Clece Udalak.

# Masaje ikastaroa dago azaroan Kurtzebarrin

**M.A.** | ARETXABALETA

Azken urteotan legez, haur masaje ikastaroa antolatu du Kurtzebarri eskolak, hilabete gutxiko umeak dituzten familiei zuzenduta. Hainbat eskola eskainiko dituzte azaroan zehar, bost hain zuzen, astelehen eta eguenetan (17:30). Hona egunak: 5, 8, 12, 15 eta 19. Interesa dutenek aurrez eman behar dute izena honako telefono zenbakira deituta: 943 79 00 49.

Txikiarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia da masajea, adituen esanetan, eta "benetan gozagarria, bai gurasoendako, bai umeendako".



**Masajea ematen.** | KURTZEBARRI ESKOLA

# Udazkeneko koloreekin girotutako ibiltokia

Durana Fashion Day moda desfileak udazkeneko kolorez bete zuen Durana kalea, eguazten iluntzean. Hego haize leuna lagun zutela, Belar Meta, M–5, Titare eta H aurrak dendetako arropak erakutsi zituzten herritarrek eta UDAko jokalariek. Bien bitartean, jatekoa eta edatekoa eskaini zituen kirol elkarteak.



M.A.

### 'Dantza gogoz' tailerraren aurkezpen ekitaldia egingo du Jaiki elkarteak gaur Arkupen

Gaur, hilak 26, *Dantza gogoz* tailerraren aurkezpen ekitaldia egingo dute Jaiki elkarteko kideek Arkupen (19:00). Saio irekia izango da, edonor hurreratzeko. Jaikik aurten burutuko duen dantza proiektua aurrez aurre ikusi eta ezagutzeko aukera eskaini gura diete herritarrei. Argibideak ere emango dizkiete interesa dutenei.

### Poxpolo ta Konpainia taldeak 'Martxan' ikuskizuna eskainiko die neska-mutikoei etzi Arkupen

*Martxan* ikuskizuna eskainiko diete Poxpolo ta Konpainia taldeko pailazoek 5 urtetik aurrerako neska-mutikoei domekan, hilak 28, Arkupen (17:00) –sarrera, 3 euro–. Iker Galartzak, Joseba Usabiagak eta gainerako kideek magia, kolorea, abesti berriak eta barre algarak ekarriko dituzte kultura etxera, Aretxabaletako ume eta gaztetxoen gozagarri.

### Udazkeneko azken odol ateratzea egingo dute astelehenean, hilaren 29an, osasun etxean

Arabako odol bankuko kideek urriko azken odol ateratzea egingo dute datorren astelehenean, hilak 29. Ohi legez, osasun etxean izango dira 16:15etik 20:00ak bitartean. Ohiko odol emaileekin batera berriak animatu gura dituzte, batez ere gazteak. Era berean, gogorarazi dute Gabonetako Loteria izango dutela salgai Arabako Odol Emaileen Elkartekoek, hiru euroren truke.

### Erditze osteko errekuperazioaren gaineko berbaldia egingo dute martitzenean, urriak 30

Erditze osteko errekuperatzearen gainean jardungo dute Ane Coranti eta Ane Remedios fisioterapeutek martitzenean, urriak 30. Kuku Miku elkarteak antolatu du eta Durana kaleko 30. zenbakian duen lokalean izango da. Orduari dagokionez, bi aukera daude: 10:30 eta 17:30. Iragarri dute umearekin joan ahal izango direla amak berbaldi horretara.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

CERT ISO 9001
GARANTIA DE ALQUILER

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
***www.zenbaki.es***



Irusta (goian, erdian) eta Vazquez anaiak (behean). | KARATE TALDEA

## Lehen eta bigarren postuak eskuratu dituzte UDAko karatekek

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteko hiru karate jokalarik jardun zuten Gipuzkoako txapelketan joan den domekan, Azkoitian, eta emaitza bikainak lortu.

Odei Vazquezek lehenengo postua eskuratu zuen kumite modalitatean, 21 urtez azpikoen artean (68 kiloz azpikoak); eta bigarren postua kata modalitatean.

Ekaitz Irusta lehenengoa izan zen kumite modalitatean, gazteen mailan (76 kilo). Eta Oxel Vazquezek bigarren postua eskuratu zuen kumite modalitatean, kadete mailan (57 kiloz azpikoak).

Azaroaren 10ean Euskadiko txapelketa jokatuko dute hiru jokalariek Gasteizen.

**Elortondok bihar jokatuko du**

Bihar, urriak 27, Alex Elortondo karateka gazteak urritasunak dituztenen V. Arte Martzialen Nazioarteko Txapelketan hartu du parte, Donostian. Estatutik eta nazioartetik etorritako karateka asko elkartuko dira, tartean Frantziatik eta Italiatik etorritakoak. Elortondo iaz hirugarrena izan zen.

# Hainbat erkidegotako jakiak eta kultura bat eginda domekan

XVI. gastronomia eta folklore jaia ospatuko dute Herriko Plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gastronomiari eta folkloreari eskainitako jaia ospatuko dute etzi, urriak 28, gurean. Azken urteotan arrakasta handia duen ospakizuna da, eta, ohi bezala, hainbat erkidegotako dantzak eta kantu saioak eskainiko dituzte Herriko Plazan (10:00-20:00). Bien bitartean, herritarrek jaki goxoak eta edatekoa probatzeko aukera izango dute.

**Jota doinuak eta dantzak**

Gaztela eta Leon, Extremadura, Galizia, Errioxa eta Euskal Herria ordezkatuko dituzten taldeak elkartuko dira gurean, eta bakoitzak jateko eta edateko goxoenak eskaini: olagarroa; txitxi-burruntziak; hestebeteak; erroskillak… Eta Aretxabaletako Aratz taldeko kideek ere eskainiko dute mokadutxoa.

Ekitaldiei dagokienez, Calahorratik (Errioxa) etorritako Voces Riberas taldeak jota doinuak eskainiko ditu. Donostiatik datozen Galizia etxeko kideek, ostera, dantza erakustaldia egingo dute. Eta Laudion egoitza duen Gaztela eta Leongo San Fernando taldekoek ere dantza saioa egingo dute.



Txitxi-burruntziak gertatzen herritarrendako iaz. | JULIO CALLEJA

**Patxaran lehiaketa**

Patxaran lehiaketa ere izango da domekan, Zaraia mendizale taldeak eta Udalak antolatuta. Plazan jarriko duten gunera eroan beharko dituzte egileek patxaranak (11:00-14:00). Gehienez bi botila aurkeztu ahal izango dituzte, eta patxaranek norberak egindakoak izan beharko dute. Kristalezko edo beira gardeneko botilan aurkeztu beharko dira, eta botilen originaltasuna kontuan hartuko dute.

Hainbat herritarrek eta adituk osatuko duten epaimahaiak arratsaldean jakinaraziko du irabazleen berri, plazako gunean. Lehenengo hirurek garaikurra eta diru saria jasoko dute.

Behin sariak banatuta, saritutako hiru patxaranak enkantean jarriko dituzte (hirurak batera) eta eskaintza onena egiten duenarendako izango dira. Gainerakoak herritarrek probatzeko utziko dituzte.

190.000€ (BEZ barne)




AUKERA EZIN HOBEA
ARETXABALETA ERDIALDEAN

ETXEBIZITZAK:
2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

ORTUZAL PROMOCIONES S.L,
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00



MUko ikasle Gabilondok eta Herce alkateak egin zuten aurkezpena. | A.T.

# Teleskoren etorkizuna aztertzen dabiltza

## Komunikazio zerbitzua webgunean integratuta egotea proposatzen dute Udaletik

**A.T.** | ESKORIATZA

Agintaldi honetan Teleskoren inguruko hausnarketa egiteko beharra ikusi zuten Eskoriatzako Udalean. Behar horri erantzunez, Mondragon Unibertsitateko ikasle batek karrera amaierako proiektua garatu du eta martitzenean egin zuen aurkezpena jendaurrean. Ondoren, Beñat Herce alkateak hartu zuen hitza Teleskoren gaineko Udalaren asmoen berri emateko.

### Ondorio eta proposamenak

Udaletik atera duten ondorio bat izan da telebanaketa sarea nolabait mantendu egin behar dela, gaur egun oraindik ere etxebizitza askotara Teleskoko seinalearekin iristen delako telebista seinalea. Bestalde, sarea existitzen zenez, bere garaian telebista kanal bat martxan jarri zen, eta kanal horrekin ere erabaki bat hartu beharra ikusi dute, ikus-entzuleak gutxitzen joan direlako eta emisioa ere geroz eta txikiagoa delako, alkatearen esanetan. Udalaren proposamena, beraz, hauxe da: "Bi komunikazio zerbitzu eduki beharrean, bakarra integratuta izatea eta hortik bideratzea komunikazio guztiak. Telesko fundazio moduan alde batera utzi eta udaletxean bertan Komunikazio Departamentu bat sortzea aztertzen gabiltza". Komunikazio zerbitzua webgunean integratua egotea proposatzen dute Udaletik, bertan zuzeneko emanaldiak, berriak eta artxibo bideografiko historikoa txertatzeko. Eta aztertzen ari dira eskaini ahal diren beste zerbitzu gehigarri batzuk; esaterako, Internet horniketa zerbitzua.

Horiek dira, beraz, Udaletik Teleskoren gainean mahai gainean dituzten proposamenak.

### Uretako jolasak egongo dira domekan igerilekuan, 16:00etatik 20:00etara

Haur eta gaztetxoen adinari dagokionez, txandak egongo dira ur jolasetarako. 16:00etatik 17:15era bitartean 6 urtera arteko haurrak joan ahal izango dira gurasoekin, 17:15etik 18:30era bitartean 7 eta 10 urte bitarteko haurren txanda izango da eta, azkenik, 18:30etik 20:00ak arte aukera izango dute jokoekin disfrutatzeko 10 eta 14 urte bitartekoek.

Bazkideek 2 euro ordaindu beharko dituzte ur jolasetan ibiltzeko eta, gainontzekoek, berriz, 3 euro.

# Aratzi laguntzeko 25 tona tapoi jaso dituzte, guztira

## Horren truke jaso duten diruarekin komuna egokitu dute, trabak kenduta

**AMAIA TXINTXURRETA** | ESKORIATZA

Joan den urteko ekain inguruan hasi zuten Aratz mutikoaren aldeko tapoi bilketa kanpaina, eta joan den hilabete bukaeran eman zioten amaiera.

Urtarrilean 8 urte egingo dituen Eskoriatzako Aratz Aldai mutikoak garun paralisia dauka hiru hilabete zituenetik. Jaso duten tapoi tona bakoitzaren truke 210 euro eman dizkiote familiari, eta, 25 tona jaso dituztenez, guztira 5.250 euro lortu dituzte eskoriatzarren eta inguruko biztanleen laguntzarekin. "Hasieran kosta egin zitzaigun tapoiak batzeko kanpainari martxa hartzea, baina orain erritmo ona hartu du. Denei eskerrak eman nahi dizkiet, alde guztietatik ekarri dituztelako tapoiak eta oso erantzun ona izan duelako", azaldu digu Aratzen ama Igone Armendarizek.

Lan handia egin ondoren, 25 tona jaso dituzte eta "oso pozik" daudela esan digu Aratzen amak. Etxeko komuna Aratzendako egokitu dute, traba guztiak kenduta, eta orain erosoagoa egiten zaie eguneroko bizitza.



Aratz, amarekin, pozik, ingurukoengandik jaso duten laguntzarengatik. | A.T.



Naiara neskatila bere amarekin batera. | JOKIN BEREZIARTUA

### Aurrerantzean Naiararendako

Aratzendako beharrezkoak ziren tapoiak batu ondoren, Arrasateko Naiara Agredaren aldeko tapoi bilketa kanpainarekin segituko dute.

Naiarak 8 urte ditu eta hark ere garun paralisia dauka. Tapoiak saltzetik ateratako diruarekin gaixotasunaren ondorioz sortutako gastuetako batzuei aurre egin nahi diete.

Ahalik eta herritar zein elkarte gehienen laguntza jasotzea beharrezkoa izango da, senideek diotenez, tona asko behar dira -eta Naiarak behar duen guztia lortzeko. Hauxe esan digu Naiararen ama Almudena Viecok: "Lan handia dago aurretik, baina denon laguntzarekin lortuko dugu Naiararen bizitza errazagoa izatea."

Naiararen amak ingurukoengandik jaso duten inplikazioa ere eskertu nahi izan du: "Halako elkartasun kanpainak geldo doazen prozesuak dira baina noski, ezin dugu prisarik sartu. Hainbat denda, taberna eta enpresak parte hartu dute orain arte; bada, adierazitako elkartasunagatik, eskerrik asko".

Tapoiak lehengo tokietan jasoko dira eta "norbaitek ezin baditu tapoiak edozein bilketa puntutara eraman, telefonoz deitu eta gu joango gara jasotzera", dio Naiararen amak. Honakoak dira telefonoak: 657 79 05 99 eta 943 77 31 38. Naiararen senideek dei egin dute tapoiak batzen laguntzeko eta guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

**ESANAK**

**"Eskerrik asko, laguntza eman diguzuen guztioi"**

IGONE ARMENDARIZ | ARATZEN AMA

**"Lan handia dago aurretik egiteko, baina lortuko dugu"**

ALMUDENA VIECO | NAIARAREN AMA

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

Zishan Tariq | Euskaraz atera du gidabaimena

# "Antzuolan denek euskaraz dakite; neuk ere ikasi nahi nuen"

- Orain 8 urte hasi zen euskara ikasten, Ipintza Institutuan, Bergaran
- Lagun batek animatuta, gidatzeko baimena euskaraz atera berri du

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Zishan Tariq gazte antzuolarrak garbi zuen: Euskal Herrian bizi izanda, euskaraz hitz egin behar zuela. 19 urte ditu eta Pakistan hegoaldeko Lahor herrian jaio zen. Zortzi urte daramatza Antzuolan, eta gidatzeko baimena euskaraz atera berri du:

**Zaila egin zaizu gidabaimena euskaraz ateratzea?**

Ez, erraz atera dut, Euskara nire hizkuntza da eta hala atera dut gidatzeko baimena. Nire hizkuntzarekin baino hobeto moldatzen naiz euskararekin.

**Zure hizkuntzarekin baino hobe?**

Bai halaxe da. Hemen lagunekin euskaraz egiten dut eta ez neukan norekin praktikatu nire hizkuntzak: punjabi eta urdu. Baina orain berriro hasi naiz bi hizkuntzak erabiltzen, izan ere Pakistango lagunak ditut.

**Nolatan animatu zinen euskaraz gidabaimena ateratzen?**

Lagun batek animatu ninduen. Ikusi nuen gai nintzela eta animatu egin nintzen. Oraindik jende gutxik ateratzen du euskaraz. Auto-eskolako maisuek asko lagundu didate. Baina hauek ere gazteleraz!

**Noiz ikasi zenuen euskara?**

Bergarako Ipintza Institutuan ikasi nuen euskara; baina gero gaztelerarekin saiatu nintzen eta albo batera utzi nuen euskara. Baina orain urtebete berriro heldu nion euskarari. Eskolako lagunak ditut eta horrek ere asko lagundu dit. Euskaltegian ere ibili naiz.

**Jendeak zoriondu zaitu?**

Bai, jendeak zoriondu nau Antzuolan. Garrantzitsua da bizi zaren tokiko hizkuntza ikastea. Ondoren ikasi dut gaztelera. Hemengo kultura gustatzen zait. Nire lagunek, Pakistangoek ere badakite euskaraz. Saiatu egin behar da pixka bat. Antzuolan denek hitz egiten zuten euskaraz eta horregatik erabaki nuen nik ere euskaraz hitz egitea. Jendea saiatzen bada ikasiko du; hizkuntza polita da!

**Zer egiten zaizu zailena?**

Euskara niretzako erraza da; ez ordea gaztelera!



Zishan Tariq gidabaimena esku artean duela, autoan. | MAIDER ARREGI

# Aurten, 2010ean baino sei bider hondakin gutxiago zabortegietara

Mankomunitateak, bilketa egokiago egiteko asmoz, kamioi berri bat jarriko du proba gisa

**M.A.** | ANTZUOLA

Urte eta erdi pasa da Antzuolan hondakinen atez ateko bilketa sistema jarri zutenetik. 2012ko urtarriletik irailera arteko datuak eta balorazioa egin du Atez Ateko atzordeak.

Azpimarratzekoa da 2011ko emaitzekin alderatuta birziklagarriak diren hondakinen bilketa igotzen doala –beira, papera eta ontzi arinak–; errefusa aldiz, gutxitzen doa", diote. "Urte bukaerarako aurreikuspena da 65.000–70.000 kilo izango direla zabortegira eramango ditugunak. 2010ean 422.000 kilo izan ziren. Sei bider gehiago".

Arazoak ere izan dituztela azaldu dute: "Baserritarren aportazio gunean paper pilaketak gertatu dira. Mankomunitatea jakinean dago eta konponbidea laster izango da. Hala astean bitan hustuko da paper edukiontzia. Tabernariekin, aldiz, organikoarekin daude arazoak eta irtenbideak ematen ari gara".

"Herritarrei adierazi nahi diegu orokorrean oso ondo ari direla hondakinak sailkatzen, emaitzak onak direla eta denon artean oraindik ere hobetzeko aukerak ditugula", azaldu dute Atez Ateko Batzordekoek.

**Kamioi berria**

Data zehatzik ez dagoen arren, laster Makomunitateak bilketarako kamioi berri bat probatuko du Antzuolan; herri gunetarako bilketak egiteko egokia da-eta.



Hondakinak jasotzen langilea. | MAIDER ARREGI



ARROLA MENDI TALDEA

## Antzuolako gaztetxoak Urkapen gustura

Urriaren 21ean Eskola Mendizaletasuneko Finalistaren Eguna ospatu zen Oiartzunen. Antzuolako umeen talde batek parte hartu zuen bertan; guztira 21 ume eta 15 nagusi izan ziren festan. 09:30ean hasi eta sei kilometroko ibilbidea egin zuten; eguraldi kaxkarra izan arren, oso ondo egin zutela ibilbidea kontatu digute. Bukaeran, hamarretakoa jan eta ondoren, opariak banatu zituzten gaztetxoen artean.

## Antzuolak lider jarraitzen du hamaika punturekin

Antzuola Futbol taldeak, oraingoz bost partida jokatu ditu. Hala, kanpoko biak irabazi egin ditu, eta etxean bakarra irabazi du; beste biak berdindu egin ditu, nahiz eta azken bi hauek irabazteko aukerak politak sortu zituzten.

Antzuolarrak, momentuz lehenak doaz sailkapen orokorrean, hamaika punturekin –bigarrenak 10 puntu–. Patxi Kortabarria AKEko kideak bere iritzia eman nahi izan digu: "Aurten talde polita dute eta mailaz igotzen badute ez da harritzekoa izango".

Asteburuan, Debara joango dira eta goi postuan, hamar punturekin indartsu dagoen, Amaikak Bat taldearekin neurtu beharko dituzte indarrak. Sailkapen orokorrean hirugarren postuan dago Debako taldea.

Neurketa, zapatuan, 16:30ean, Debako Errotazar zelaian –belar artifizialduna– izango da.

## Erretiratu zentroetako kontsumoaren prestakuntza saioak

Jon Ariño sendagileak hitzaldia eskainiko du urriaren 29an, astelehenena, 17:00etan, erretiratuen elkartean: *Merkataritzaz kanpoko salmentak eta mirari-produktuak*.

Ondoren, gai honi buruzko tailer praktikoa egingo da Begoña Olabarrietaren gidaritzapean.

## OHARRAK

**HERRI BATZARRA**

Hilaren29an, astelehenean, arratsaldeko zazpietan hauteskunde emaitzen balorazio-batzar irekia egingo du Antzuolako EH Bilduk, Olaranen.

**IKASTAROAK**

Txalaparta eta biodantza ikastaroak antolatu dira. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 15era arte.



Herriko erretiratuak izango dira protagonista bihar. Irudian, iazko ospakizuna. | ARAMAIOKO UDALA

## Artzain txakur txapelketa etzi

Domeka goizean zehar artzain txakur txapelketa egingo dute Salazango zelaietan. Aramaiok izango du ordezkaria, Fernando Etxebarria. Beste partaideen artean arabarrak dira nagusi: Jose Mari Jauregi (Ilarduia) Arabako txapelduna, Eneko Serrano (Laudio), Jon Zuazo (Nafarrate) eta Fidel Alonso (Areta). Arabarra ez den bakarra Jose Ramon Gartzia da (Sodupe), Euskal Herriko txapelduna.

Aurtengo txapelketa, gainera, nobedadearekin dator: bertsolariak arituko dira girotze lanetan.

## EGITARAUA

Goizean zehar azoka egongo da Aramaioko baserriko produktuekin, artisau lanekin eta animaliekin, 14:30ak arte. Ibarrako elkarte gastronomikoetan erretiratu guztiendako salda eta ogitarteko beroak egongo dira.

**URRIAK 27, ZAPATUA**

**10:30** Herriko trikitilari eta txistularien kalejira.

**12:00** Urtean zehar hildakoen aldeko meza, San Martin parrokian.

**13:00** Euskal dantzen saioa.

**14:30** Bazkaria kiroldegian.

# Herri osoa inplikatuko da bihar erretiratuen jairako

- Bertako 44 ekoizle espero dira azokan eta 115 bat erretiratu bazkarian
- 94 urte dituzten Maria Angeles Beitiari eta Balentin Ibaberi omenaldia

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Egun handia izango da biharkoa Aramaioko erretiratuendako. Euren omenezko eguna da eta herri osoa inplikatzen da ospakizun egunean dena ondo irten dadin. Udalak antolatzen du Arabako Diputazioaren, Euskadiko Kutxaren eta Vital Kutxaren laguntzarekin, baina hainbat dira egunean bertan lan egiten duten herriko elkarteak: Ibarra auzoko elkarte gastronomiko guztiak –salda eta ogitarteko beroak banatzen dizkiete doan erretiratu guztiei–, Lagun Artea Dantza taldea, Trikitixa Eskola, Papargorri haurren abesbatza, Bizente Goikoetxea abesbatza eta herriko txistulariak.

**Bertako 44 ekoizle azokan**

Artisau eta ganadugileen artean Aramaioko bertako 44 ekoizle espero dituzte antolatzaileek. Bertako 23 artisauk postua jarriko dute eta kanpotik beste 12 bat postu etorriko direla espero du Udalak. Azoka goizeko lehen ordutik 14:30ak arte egongo da zabalik, urtero moduan. Postuen artean, Itur Zuri emakume elkarteko eskulan taldeak ez du hutsik egingo. Hala ere, jende faltarekin dabiltzala jakinarazi digute: "Taldeak aurrera jarrai dezan jendea behar dugu". Eguaztenetan 19:00etatik 21:00etara eta egubakoitzetan 17:00etatik 19:00etara elkartzen dira.

**Edadutenei omenaldi xumea**

Azokaz gain, erretiratuendako bazkaria izaten da eguneko ekitaldi nagusia. Aurten 115 lagun espero dituzte kiroldegian.

Urte gehien dituzten aramaioarrak ere omenduko dituzte. Emakume zaharrena Maria Angeles Beitia da; 1918ko martxoaren 1ean jaio zen Altzaga auzoan, eta lore sorta oparituko diote. Gizonezkoen artean, Balentin Ibabek ditu urte gehien; 1918ko uztailaren 4an jaio zen Eguzkierripa auzoan. Ibaberi txapela opariituko diote. Biok bazkarira joaten badira, bazkalostean egingo diete omenaldia. Hala ez bada, euren etxeetara joango dira Udaleko ordezkariak.

**"Oso egun polita izaten da"**

Jesus Garitaonandia Alaiak erretiratu elkarteko presidentearen esanetan, oso egun berezia izaten da: "Normalean kalera etortzen ez diren auzoetako erretiratuekin egoteko aukera ederra izaten da, denbora luzez ikusi ez ditugunekin egoteko eguna. Gainera, herriak herriarendako egindako jaia da; oso polita izaten da". Elkarteko presidente gisa biziko duen lehen jaia izango da.

**Boluntario izateko kanpaina**

Eguna aprobetxatuz, bailarako zenbait elkartek boluntario izatera animatzeko kanpaina eroango dute azokara.

## Zuzendaritza taldea berritu du asteon guraso elkarteak, "aktibo eta osasuntsu"

**J.B.** | ARAMAIO

Guraso elkarteak zuzendaritza taldea berritu zuen martitzenean. Azken bi urteetan egon direnek taldea utzi dute; hori da Ander Elortondoren kasua: "Lan handia egiten dugu eta halako herri txiki bateko guraso elkartean egoteak esan nahi du herriaren alde egiten duzula lan. Horrekin ez ditut herri eta hiri handietako guraso elkarteak gutxietsi nahi, inondik inora, baina hala da", adierazi digu. Gainera, esan digu guraso elkartea "aktibo eta osasuntsu" dagoela.

Zuzendaritza taldea berritzeko azken urtean egon direnak kide berriekin batera hasten dira, elkartearen funtzionamendua eta nondik norakoak azaltzeko. Kide zaharrekin zein berriekin honakoek osatzen dute zuzendaritza taldea, besteak beste: Iñaki Isazelaia, Nerea Uribarren, Iñigo Ezpeleta, Jon Kortabarria eta Miren Martinezek.

## Hirugarren adinekoei zuzendutako ikastaroa egongo da urriaren 30ean, Trafiko Sailari esker

Urriaren 30erako hitzaldi interesgarria antolatu du Jaurlaritzako Trafiko Sailak hirugarren adinekoei begira. Oinezkoei begira antolatutako saioa izango da eta zirkulazio istripuak eta kolpeak prebenitzeko erak azalduko dituzte bertan. Kultura etxean izango da hitzaldia, 18:00etatik aurrera.

Bertaratzen den herritar bakoitzari opari bat emango diotela jakinarazi du Udalak. Horrez gain, antolatzaileek aditzera eman dute sarrera doakoa izango dela.

# Bertso eskolak asteon hasi du ikasturtea, bertsoez goza gura dutenei ateak zabalik

14 ikasle daude, hiru taldetan; izena emateko 688 62 70 89 telefonora deitu

**J.B.** | ARAMAIO

Bertso eskolak asteon hasi du ikasturte berria. 14 ikasle daude, oraingoz, baina irakasle lanetan arituko den Xabi Igoa bertsolariak adierazi digu ateak zabalik daudela. Izena emateko haren telefonora deitzea da biderik eraginkorrena: 688 62 70 89. Igoarekin batera, tarteka, Garazi Eriz eta Lierni Altuna ere arituko dira irakasle lanetan.

**Bertsoak eta giro ederra**

Aurten ere hiru talde izango dira, 10 urtetik hasi eta 18 urtera arteko adin tartean. Talde gazteena 10 eta 11 urte artekoa da; bigarren taldea 13 eta 15 urte bitartekoa; eta, talde helduneko kideak 17 edo 18 urte dituzte. Talde bakoitzak helburu ezberdinak ditu: "Talde gazteenarekin helburua izaten da bertsoaz zaletu daitezela, eta helduetan, txapelketa ezberdinak prestatzen dituzte", dio Igoak. Hori bai, ondo pasatzea eta gustura egotea da lehen premisa, bestela bertso eskolak ez du-eta zentzurik. Era berean, herrian eragile aktiboa da eskola: "Beti gaude gertu herrian egiten diren ekintzetan laguntzeko. Gero eta oihartzun gehiago izan, hobe". Hurrengo zita bihar bertan dute, Gasteizen. Arabako bertso eskolek 30 urte bete dituztela ospatzeko egun handia dute eta han izango da Aramaioko ordezkaritza.



Asteon egin dute lehen saioa hiru taldeek. Irudian, talde helduena. | XABI IGOA

ELGETA

# Domeka kantuan hasi eta dantzan amaituko dugu

Txikiteoan kantuan egin gura dutenek plazan dute hitzordua, 13:00etan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Domekako txikiteoa berezia izango da, lehenengo aldiz *Herrixa kantuan* egingo baita Elgetan. Pare bat entsegu egin ostean, Jose Gardoki soinu-joleak eta Beñat Leanizbarrutia pandero-joleak gertu dute errepertorioa. Herritar talde bat ere ondoan izango dute kantuan egiteko. 13:00etarako egin dute hitzordua Iñaki tabernaren parean. Gogorarazten dute herritar orori zabaldutako ekimena dela, eta kantuen letrak jasotzen dituzten liburuxkak banatuko dituztela guztien artean.



*Herrixa dantzan,* aurreko ikasturte baten. | L.Z.

**Odol emaileen ekitaldia**

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak ere domekan egingo du ekitaldia. Antzuola, Bergara, Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Oñati eta Soraluzeko odol emaileendako diploma eta intsignia banaketa egingo dute antzokian, azkenean 14:00etan hasita. Elgetako arduradun Mariasun Agirrek adierazi duenez, ordu erdi atzeratu dute ekitaldia *Herrixa kantuan* ekimena dela-eta. 131 lagunek eman dute izena bazkarian parte hartzeko.

DOMEKAKO EGITARAUA

**10:00** Bisita gidatua lubakietara.

**12:00** *Herrixa kantuan,* kalez kale eta tabernaz taberna.

**14:00** Espaloian, odol-emaileen ekitaldia.

**18:00** Espaloian, *Herrixa dantzan.*

**Herrixa dantzan, bueltan**

Eta udako etenaldiaren ostean, bueltan izango dugu *Herrixa dantzan*. Patxi Monterok gidatuta bi saio izango dira: 18:00etan haur eta gurasoendako eta 19:00etan helduendako. "Gidatutako dantzaldi irekia da *Herrixa dantzan,* Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizional ludikoekin osatua. Helburua da adin askotariko herritar soilek dantzan elkarrekin gozatzea".

## Udalak liburuzaina behar du; lan poltsa osatzeko deialdia egin du

L.Z. | ELGETA

Azaroaren 30ean hartuko du erretiroa Maria Elena Eztenaga udal liburuzainak, eta Udalak lanpostua betetzeko lan deialdia egin du. Helburua da liburuzain laguntzaileen lan poltsa osatzea. Eztenagaren ordezkoari, hasiera batean, urtebeteko kontratua egingo dio Udalak, eta lan ordutegia izango da astelehenetik barikura, biak barne, 16:30etik 19:00etara.

Interesatuek urriaren 29ra arteko epea dute izena emateko; bete beharreko inprimakia *www.elgeta.org* atarian aurki daiteke. Hautaketa prozesuko probak urriaren 31n egingo dituzte.

**Ordutegi murrizketa**

Maria Elena Eztenaga 34 urtean izan da Elgetako Udal Liburutegiko arduraduna; izan ere, 1978ko otsailean hartu zuen kargua. Gaur egun 16:00etatik 20:00etara ematen du zerbitzua astelehenetik eguenera bitartean, eta 16:00etatik 19:00etara barikuetan.

Aldaketarekin, Udalak murriztu egingo du liburutegiaren ordutegia. Arduradun berriak 16:30ean zabalduko du liburutegia —ordu erdi geroago—, eta 19:00etan itxiko du —ordubete lehenago—. Azaldu dute inork gutxik erabiltzen duela zerbitzua ordutegi horretatik kanpo.

### Virginia Imaz ipuin kontalariak ipuin erotikoak ekarriko ditu bihar, zapatua, Maialde landetxera

Uztailean hasi ziren formula berriarekin Maialden; afaria eta ondotik ipuin kontalari saioa, hain zuzen ere. Egitasmoak jarraipena izango du udazken honetan, eta bihar, zapatua, ipuin erotikoak kontatuko ditu Virginia Imaz kontalariak landetxean. Afaria 21:00etan hasiko da, eta postrearen ondotik ordubete inguruko saioa egingo du Imazek. Prezioa 26 euro da.

### Xalbadorpe elkarteak taldea osatu gura du Tolosan egingo den erretiratuen martxa erregulaturako

Gipuzkoako erretiratu elkarte guztiak daude deituta domekan Tolosan egingo duten martxa erregulatuan parte hartzera, eta Elgetako erretiratuek lau laguneko taldea osatu gura dute. Zortzi bat kilometroko ibilbidea da, eta proba 10:00etan hasiko da. Azken orduko bajak izan dituzte Xalbadorpen, eta lagun baten faltan daude, baina domekarako taldea osatzea espero dute.

### Martitzenean egingo dute datorren urteko udal tasak eta ordenantza fiskalak onartzeko osokoa

Elgetarrok 2013. urtean ordaindu beharko ditugun udal tasen eta ordenantza fiskalen gaineko osoko bilkura egingo du udalbatzak martitzenean, hilak 30. Aurreko astean, herritarrendako egindako batzar irekian, igoera %3 izan daitekeela aurreratu zuen Oxel Erostarbe alkateak. Osoko bilkura 19:00etan hasiko da.

### Astelehenean, hilak 29, kultura etxeko KZgunean izango da dinamizatzailea, 16:00etatik 20:00etara

Beste astelehen batez dinamizatzailea kultura etxeko ordenagailu gelan izango da. Azaroko bigarren bisita izango du honakoa, eta erabiltzaileen kontsultei erantzuna ematea izango da haren egitekoa. KZgune zerbitzuak laster beteko ditu 10 urte Elgetan, azaroaren 6an, hain zuzen ere.

## Sebas Arantzabal, 4. Euskadiko bolo txapelketan

L.Z. | ELGETA

Zapatuan egin zuten Euskadiko 23. hiru txirlo txapelketako laugarren eta azken saioa Eibarren. Txapela Asola Berriko Jose Mari Larreategik eraman zuen, 20 txirlo jota. Sebas Arantzabal elgetarrak 15 txirlo jo zituen txapelketan, eta laugarren sailkatu zen. Elgetako taldea sei lagunek osatu zuten: Sebas Arantzabal, Arlindo Almeida, Xabier Ortuzar, Geaxi Ezpeleta (emakumezkoetan), Rikardo Albizuri, eta Jose Luis Zabalak (nagusietan).

IX. PILOTA TXAPELKETA

## Zazpi norgehiagoka aste bukaeran

| AZKEN EMAITZAK | |
|---|---|
| Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Pello Larrea-Mikel Elkoro | 22-18 |
| Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre / Igor Irazabal-Enrike Elkoro | 08-22 |
| Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Asier Morales-Fernando Zenitagoia | 22-17 |
| Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua | 22-16 |
| Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi | 14-22 |
| Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga | 22-02 |
| Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga | 15-22 |
| Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Iban Retolaza-Diego Cantabrana | 16-22 |

| BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN HASITA |
|---|
| Asier Morales-Fernando Zenitagoia / Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre |
| Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Ibon Untzetabarrenetxea- Mikel Beretxinaga |
| Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua |

| DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:30EAN HASITA |
|---|
| Iker Irazabal-Jabier Larrañaga / Pello Larrea-Mikel Elkoro |
| Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Igor Irazabal-Enrike Elkoro |
| Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi |
| Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta / Iban Retolaza-Diego Cantabrana |

LEINTZ GATZAGA

# Ehizaren gaineko plan teknikoa Aldundiaren oniritziaren zain dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udalak orain dela hilabete batzuk egin zuen ehizaren gaineko plan teknikoa, Jaurlaritzak hala eskatuta, baina plan hori ezin izan du oraindik indarrean jarri. Foru Aldundira bidalita daukate oniritzia jasotzeko asmoarekin –edo dagokion aldaketak egin–, baina erantzunik ez dutela jaso onartu du Imanol Saez de Viteri zinegotziak: "Horregatik, ez atzera eta ez aurrera dago".

Plan tekniko horretan ehiza larria egiteko aukera sartu dute, hau da, basurde eta oreinen ehiza, baina, onartu barik dagoenez, oraindik ezin da halakorik egin. "Gure asmoa aurten martxan jartzea zen, eta probatu zelan bateratzen den usoen ehizarekin. Baina egunak aurrera doaz, eta, beharbada, datorren urterako utzi beharko dugu", jakinarazi du zinegotziak. Udalaren asmoa da udazkeneko lehen hilabeteetan, abendura artean, uso-ehizari lehentasuna ematea eta abendua eta otsaila bitartean ehiza larriari. Hala ere, ehiza larriaren gaineko araudia zehazteko dauka.

Ehiztariak, oraingoz, usoei begira daude; eguaztenean, esaterako, hego haizea lagun, gustura jardun zuten tiroka.

## Gatz museora eta Jakionera bisitak XII. gastronomia jardunaldien barruan

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko Mankomunitateak XII. gastronomia jardunaldiak jarri ditu abian, eta abenduaren 9a artean turismo eskaintza zabala dago. Jardunaldi horien barruan, gatz museoa eta Jakion kontserbagintza enpresara bisitak egingo dituzte *Iturriko gatza mahaian gozo* izenarekin, aurreko jardunaldietan legez.

Bisita horiek ez dute egunik zehaztuta, baina aurrez eskatu behar dira (665 73 95 50). Lau euroren truke gatz museoa bisitatu eta herriko barazki eta fruta kontserbagintza enpresa ezagutzeko aukera dago, baita produktuak dastatzeko ere.

Horrez gain, aste bukaera guztietan egiten dituzte bisita gidatuak gatz museoan.

SASKIBALOIA

# Natra Oñatik liga hasiko du bihar

## Easoren kontra jokatuko dute lehena, Zubikoan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

*Txokolateroak* liga hasteko deseatzen daude, denboraldi-aurrea luzea izan da-eta. Hala, Easoren kontra izango dute lehen lehia bihar (18:00, Zubikoa).

Iazko taldearekin alderatuta, hainbat aldaketa izan dira taldean; hasteko, entrenatzailearena: "Bi hilabete hauetan konfiantza handia hartu dut, jokalariek ere badakite zer eskatuko diedan, eta eurek ere asko errazten dute nire lana; geroago eta hobeto sentitzen naiz entrenatzaile moduan", adierazi du aste barruan Eneko Blancok.

**Aukera askoko taldea**

Jokalariei dagokienez, aurreko denboralditik hona lauzpabostek taldea utzi duten arren, hiru errefortzu berri dituzte: Xabier Osa, Josean Cavada eta Xabier Odriozola. Entrenatzailearen esanetan, aukera asko dituen taldea osatu dute: "Barruko jokoan oso indartsuak garela esango nuke, eta hori aprobetxatu behar dugu; bai erasoan uztai azpian saskiratze errazak eginaz, eta baita defentsan ere, besteak beste, erreboteak gureganatuta. Horrek lagunduko digu azkar jokatzen, kontraerasoak antolatzen eta saskiratzeak erraz egiten".

Easo Pastas Arruabarrena izango da bihar kontrario. Blancoren esanetan, talde gaztea, joko bizia duena: "Ez da kontrario erraza izango, baina guk esperientzia handiagoa dugu, eta, beti diodan moduan, etxekoak oso garrantzitsuak izango dira, beharrezkoa da ondo ibiltzea".



Kanpainako aurkezpenean, taldekideak broma giroan. | JOSETXO ARANTZABAL

## Natra Oñati saskibaloi taldeko kideak:

ARGAZKIAK: FELIX SANCHEZ



**IAGOBA GAMARRA**
Arrasate | 1,90 m | Hegalekoa.



**IMANOL ZEZIAGA**
Arrasate | 1,86 m | Antolatzailea.



**ANDER GARTZIA**
Bergara | 1,93 m | Hegalekoa.



**JOSEAN CAVADA**
Donostia | 2,05 m | Pibota.



**IÑIGO ZABALETA**
Arrasate | 1,78 m | Antolatzailea.



**ASIER DE LA IGLESIA**
Urretxu | 2,01 m | Pibota.



**GORKA KINTANA**
Arrasate | 1,90 m | Hegalekoa.



**IBAN LIZARRALDE**
Oñati | 1,80 m | Eskolta.



**XABIER OSA**
Azpeitia | 1,96 m | Hegalekoa.



**IÑIGO BIAIN**
Oñati | 1,96 m | Hegal-pibota.



**XABIER ODRIOZOLA**
Azpeitia | 1,95 m | Hegal-pibota.



**ALES ANDUAGA**
Oñati | 1,85 m | Hegalekoa.



**ENEKO BLANCO**
Oñati | Entrenatzailea.



**GORKA JUDEZ**
Oñati | Laguntzailea.



**UNAI ARANBURU**
Oñati | Delegatua.




Azken ediziotako irabazle David Gartzia –argazkian– lasterketan izango dela baieztatu dute. | JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

# Antxintxika Krosaren aitzakiaz kirol jarduera mordoa antolatuko dituzte azaroaren 3rako

## Esaitek Jaia egiteko aprobetxatu du egun hori; herri kirolak egingo dituzte

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Aurkezpen emankorra egin zuten eguaztenean Antxintxikako ordezkariek, Esaiteko ordezkari Pepe Turrillasek eta kirol zinegotzi Lauri Azkargortak lagunduta. Emankorra, nobedade handiak izango direlako azaroaren 3an. Hasteko, Olatz Rementeria memoriala Euskal Herriko Txapelketa izendatu dute, 10.000 metroko errepide proba. Ibilbideari dagokionez, ia urtero moduan, aldaketa txikiak izango ditu aurten ere, baina oinarrian, Soraluze eta Bergara banatzen dituen 10 kilometroak egitea izango da erronka.

Antolatzaileek parte-hartzeari dagokionez gehienezko muga ezarri dute, ekonomikoki mugak daudelako nahi beste jende hartzeko: "700 lagunendako tokia izango da, modalitate guztiak kontutan hartuta. Jende gehiago hartzeko aurrekontu handiagoa behar da, eta alde horretatik eskerrak eman nahi dizkiogu Servimasa enpresari, ematen digun babesagatik". Hala, bezperara arte eman ahalko da izena –azaroak 2– *kirolprobak.com* webgunean, baldin eta lehenago 700 plazak betetzen ez badira.

### Egun osoa girotuta

Antxintxika krosa eguna girotzeko hitzorduetako bat izango da, baina ez bakarra. Arratsaldeko lehenengo orduan eskola kiroleko 150 neska-mutiko ingururendako lasterketak antolatuko dituztelako.

Eta lehenago, eguerdi partean, Esait-eko ordezkariak ahaleginduko dira eguerdia girotzeaz: "Halako egun bat oso aproposa da ofizialtasuna aldarrikatzeko. Hala, eguerdian herri kirolak antolatuko ditugu, eta horretarako Bergarako kirol taldeekin jarriko gara harremanetan", adierazi zuen Turrillasek. Eta, kirol zinegotzi Azkargortak gaineratu zuen herri kiroletan esku hartu nahi duten koadrilek kirol zerbitzuekin harremanetan jartzea baino ez dutela, izenematea bideratzeko.

### Nobedadea, mendi lasterketa

Antxintxikakoen asmoa da egun horretan guztiek entretenitzea, baita gaztetxoenak ere: "Horretarako, Antxintxika krosa amaitu eta segituan haurrendako moto txikien lasterketak antolatuko ditugu". Broma giroan, aurremundial izendatu dute gaztetxoen moto txikien lasterketa: "Izan ere, haurrekin benetako mundiala Antzuolan egingo dugu, otsailean lehenengoz egingo dugun mendi lasterketa aprobetxatuta". Horra, aurkezpenean emandako azken nobedadea. Otsailean Irimo inguruan mendi lasterketa antolatuko du Antxintxikak.

PILOTA

# Munduko Txapelketara, gaur hasita

**X.U.** | ARRASATE

Arrasateko Ibai Bolinagak eta Bergarako Beñat Rezustak 22 urtez azpiko Munduko Pilota Txapelketa jokatuko dute egunotan Frantzian, asteburuan hasita.

Hala, Debagoieneko pilotariak Espainiako selekzioarekin jokatzeko hautatu dituzte, eta gaur, egubakoitza, abiatuko dira Tarbes-era; azaroaren 3ra arte egongo dira han. Torneoak hainbat modalitate izango ditu: eskupilota (bakarka eta binaka), paleta narruzko pilotarekin, eta pala motza. Hala, ibarrekoek eskupilotan jardungo dute.



Beñat Rezusta. | X.U.



Ibai Bolinaga. | X.U.

Ibai Bolinagak bikotekako txapelketa jokatuko du, eta Arrasatekoak Iruñeako Oberena taldeko Iñigo Etxamendirekin osatuko du bikotea. Beñat Rezusta bergararrak, berriz, bakarka jardungo du txapelketan. Txapelketan hamar-hamabi herrialde inguru izango dira; eta, besteak beste, Debagoienekoendako kontrario gogorrenak Frantzia, Mexiko, Kuba edota Argentina moduko selekzioak izango dira.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA**
Mondra-Athletic
Domeka. 16:30. Mojategi.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Retuerto
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Real Union-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Irun.
Bergara-Beti Gazte
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Aloña Mendi-Mondra
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Amaikak Bat-Antzuola
Zapatua. 16:30. Deba.

**LEHEN ERREGIONALA**
Arizmendi-Aretxabaleta UDA
Zapatua. 18:00. Ibarra.
Bergara B-Eibartarrak B
Zapatua. 17:45. Ipintza.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Burumendi
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Tolosa-Bergara
Zapatua. 15:30. Usabal.
Aloña Mendi-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**GAZTEAK**
Zestoa-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Iraeta.
Arizmendi-Bergara B
Zapatua. 16:00. Almen.
Aretxabaleta B-Urki
Zapatua. 15:45. Ibarra.

**OHOREZKO KADETEAK**
Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Elgoibar-Arrasate
Zapatua. 12:00. Elgoibar.
Bergara-Lazkao
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aretxabaleta UDA-Reala
Zapatua. 10:30. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Kukuiaga
Zapatua. 15:30. Manuel Muñoz.

**LEHENENGO MAILA**
Allerru-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Lezo..

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Corazonistas-Soraluce BKE
Zapatua. 19:00. Gasteiz.
Ford Mugarri-Gure Auzune
Domeka. 12:00. Iturripe.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Izarraitz Aloña-Donibane
Zapatua. 13:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK.**
Arrasate-Decotena
Zapatua. 17:00. Iturripe
Egia-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

**GAZTEAK, GIZONEZKOAK**
Bergara-Irungo Gaztiak
Domeka. 10:15. Labegaraieta.
Aloña Mendi-Egia Bar
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
Ereintza-Berezao Aloña
Zapatua. 17:30. Errenteria.
Orereta-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Errenteria.
Arrasate-Karibe Zaharra
Zapatua. 16:00. Errenteria.

**KADETEAK, EMAKUMEZKO.**
Urnieta-Aloña Mendi B
Zapatua. 16:00. Urnieta.

**SASKIBAOIA**

**EBA**
Natra Oñati-Easo Pastas
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Atletico SS-MU
Zapatua. 18:00. Donostia..

**SENIOR HIRUGARREN MAILA**
Katu Kale-MU B
Zapatua. 18:30. Eibar.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
Soraluce BKE-MU A
Zapatua. 16:30. Bergara.

**SENIOR BIGARREN MAILA**
Alde Zaharra-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Donostia.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Internacional-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**GAZTEAK ERRENDIMENDUA**
MU A-Easo 96
Domeka. 18:30. Iturripe.

**GAZTEAK PARTAIDETZA**
BKL-MU B
Zapatua. 12:30. Beasain.

**GAZTEAK PARTAID. EMAKU.**
Txirrita-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.

**KADETE EMAK, ERRENDIME.**
Soraluce Bergara-Easo97
Zapatua. 12:45. Labegaraieta.

**KADETE GIZO, ERRENDIME.**
MU A-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Musakola.

**ERRUGBIA**

**KADETEAK**
Baztan-Arrasate/Durango
Zapatua. 13:00. Baztan.

**INFANTILAK**
Arrasate/Durango-BeraBera
Zapatua. 10:30. Mojategi.

**KIMUAK ETA BENJAMINAK**
Entrenamendua
Zapatua. 09:30. Mojategi.




# Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**



## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
*blasaga@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

## ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
*www.biark.net*

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

# Trikiti doinuak lau haizetara

## Nahi duen orok erromeria librean parte hartzeko aukera izango du bihar, lehenengoz

**MAIDER ARREGI** | BERGARA

Sasoi onean dago trikitia; batez ere gurean, Debagoienean. Bergara, bihar, horren isla izango da. Goizean zehar trikitiak eta panderoak eskuan hartu eta kalez kale ibiltzeko aukera izango dute Euskal Herriko Trikitixa Eguna ospatzeko. Izan ere, trikitia sustatzea eta hedatzea da Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen helburu nagusienetako bat. Aurten, Bergara aukeratu dute jai handia ospatzeko. "Elkarteak trikitilari zein zaleen bilgune izan nahi duela kontuan izanda, horrelako egunak aukera paregabea dira helburu hauek guztiak lortzeko. Trikiti eskolen arteko hartu-emanak bultzatzeaz gain, ikasleen motibazioa lantzen jarraitzeko bide egokia dela uste dugu", azaldu digute elkartetik.

"Honelako egunak oso interesgarriak iruditzen zaizkit trikitilariei begira, eta baita ikasten ari direnentzat ere. Aukera ematen digu trikitilari profesionalak eta ikasten ari direnak batera aritzeko. Aukera ematen digu, baita ere, trikitilarioi elkar ezagutu eta egun paregabe bat pasatzeko. Trikitia ez da lau paretaren artean geratzeko instrumentu bat; herriko kaleetara, plazara, aretoetara... ateratzeko instrumentu bat da", kontatu digu Aritz Alustizak, Emon talde bergararreko trikitilariak.

"Gaztetxo zein heldu, trikiti eta pandero-jotzaile, giro hau maite duten oro dago gonbidatuta. Baita trikiti doinuak dantzatzea maite duen jendea ere! Beso zabalik hartuko dugu Euskal Herriko Trikitixa Egunera gerturatu nahi duena", azaldu digute elkarteko kideek. "Gaztetxoentzako oso aberasgarria da, trikiti arloan, han eta hemen erromeriaz erromeria ibiltzen diren trikitilari ezagunekin gertuko harreman hori bultzatzea. Gaztetxoei barruan daramaten trikiti gose hori handitu egiten zaie gogoko duten trikitilari hori inguruan ikusita", nabarmendu dute.



Iaz Zarautzen egindako Euskal Herriko Trikiti Eguneko erretratu bat. | EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

### TRIKITI FESTAKO EGITARAUA

**11:00** trikitilarien kalejira.

**13:00-14:00** Erromeria librea Muniben.

**14:00-14:30** Trikitilariak kaleetan zehar.

**14:30** Bazkaria pilotakekuan.

**17:30-20:30** Erromeria Bide Batez taldearekin pilotalekuan; eguraldi onarekin Muniben.

**20:30** autobusen irteera.

### Egun bikaina

Egunean zehar kalejiran ibiliko dira, herriko trikiti eskoletako eta beste hainbat eskolatatik gerturatutako trikitilariekin batera, lagun arteko giroan. "Jende berria ezagutzeko aukera, errepertorio ezberdina entzutekoa eta trikiti munduko aurpegi ezagun ugari bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute", diote. Bide batez, oholtza gainean jotzeko aukera ere eskainiko zaie; gainera, batzuentzat lehen aldia izango da. "Pilotalekuan egingo den bazkaria eta erromeria ere ondo pasatzeko, harreman berriak egiteko eta giro onean trikitiaz gozatzeko asmoz prestatu ditugu. Horrekin guztiarekin, bertaratzen direnek trikitiak kalera ateratzeko zein ondo pasatzeko eskaintzen dituen aukera ezberdinak ikus ditzaten nahiko genuke".

### Trikitia sasoiko

Trikitiaren egoeraz ere galdetu gura izan diegu: "Jakin badakigu milaka eta milaka ikasle direla trikitia eta panderoa ikasten ari direnak. Ez haurrak bakarrik, baita helduak ere! Horiek, ordea, ikasten jarraitzean eta zaletasunaren sarean harrapatzean dago gakoa. Egia da Euskal Herriko Trikitixa Eguna urtean zehar egin beharreko lanen artean bat gehiago dela, eta, akaso, trikitiaren egoeraren adierazletzat ere har daitekeela. Baina adierazle txikia litzateke, jakin badakigulako urtean zehar ikusten ez den lanean ere jende asko eta asko ari dela".

Trikitiak 90eko hamarkadan izan zuen loraldia. "Egia da 90eko hamarkadan nabarmen daitezkeela egun trikitian erreferente diren hainbat talde eta trikitilari. Ordutik hona, ibilbide luzea izan bada ere, gure lana eta helburua da etorkizun batean izango den loraldirako bidea erraztea; haur, gazte zein helduek trikitiarekiko zaletasuna bermatzea". "Euskal Herrian asko dira trikitia maite duten guneak, eta Debagoiena, zelan ez, horietako bat da, eta hori poztekoa da", diote.

### Erromeria librea, lehenengoz

Erromeria librea izango da; oholtza gainera nahi duen oro igoko da, talde txiki edo handiagoan, txandaka, eta bakoitzak nahi dituen piezak eskainiko ditu denbora tarte batean. "Bertaratzen direnei kalera ateratzeko plaza bat gehiago eskaintzen ari gara egun honekin, baita oholtza gainera igotzeko aukera ere. Trikiti ikasleek oholtzan saiotxo bat eskaintzeko gai direla ikusiko dute".

IRABAZLEA

KONTZERTUA
AGURTZANE LETE LARRAÑAGA
(Arrasate)

Zorionak!



OÑATIKO UDALA

IRABAZLEA

DANTZA IKUSKIZUNA
FELIX ARRESE ALBERDI
(Aretxabaleta)

Zorionak!



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

IRABAZLEAK

BYPASS FILMERAKO SARRERAK

- ESPE LIZARRALDE GALLASTEGI (Arrasate)
- AINHOA OSA ETXEBARRIA (Arrasate)
- AGURTZANE LETE LARRAÑAGA (Bergara)
- LOLI ZEZIAGA BENGOA (Arrasate)
- AXUN OTXOA UGALDE (Arrasate)
- JUAN MANUEL AZPIAZU ELIZONDO (Oñati).



BARTONFILMS

Zorionak!

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



**Ze urtetan eten zuen Antzuolak independentzia 1429, 1529 ala 1629an?**
Argazkia eta galdera > M. Angel Elkoroberezibar

Bidali KLUBA ERANTZUNA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

JAKION
Jakionek emandako **Produktu sorta***
* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

**Parte hartzeko**

**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** 688 69 00 08
**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

goienakluba 2012

Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*
Urteko kuota: **50 €**.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



*Carmen* operaren lehenengo ekitaldian, Opera 2001eko abeslariak eta Pleveneko orkestra sinfonikoa. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# 'Carmen'-en arrakastaz blai

## Amaia antzokiko eserleku guztiak bete egin ziren martitzen iluntzean

**ZURIÑE V.D.M.** | ARRASATE

Hiru ordu eta lau agertoki ezberdin. Abesti ezagun ugari, ahots bikainak eta zuzeneko musika. Maitasuna, pertsonaia pikaroak, lapurretak...

Istorioak ikuslea harrapatzeko osagai guztiak ditu, eta ez zuen hutsik egin martitzen iluntzean Amaia antzokiko emanaldiarekin. Ez zen eserleku hutsik geratu, 760 lagun inguruk jarraitu zuten bertatik bertara Georges Bizet konpositorearen obra arrakastatsua.

Arrasateko Ozenki Elkarte Lirikoak ekarri du *Carmen* lana Arrasatera. Georges Bizet konpositorearen obran, Opera 2001eko bakarlari eta koruek abestu zuten. Zuzeneko musika, berriz, Bulgariako Plevengo orquesta sinfonikoaren ardura izan zen. Primeran aritu ziren guztiak, eta, eginiko lan bikainari esker, lehenengo unetik ikusleak obraren amaraunean harrapatuta geratu ziren. Bitxikeria moduan, lehenengo ekitaldian, Arrasate Musikaleko sei neska-mutil obrako protagonistekin batera aritu ziren taula gainean.

**Lan handia atzetik**

Atzetik lan handia duen obra izan da; hilabetetako antolaketen ondoren, egun handia iritsi eta martitzena luze joan zen behargintzako: 08:30ean hasi ziren guztia antolatzen eta 03:00 ingurura bitartean luzatu zen lana. *Carmen*-en gisako obra batek jende ugari inplikatzen du: muntaketaren eta desmuntaketaren arduradunak, argi eta soinu teknikariak, ile-apaintzaileak, abeslariak, musikariak... Hala, berrehun pertsonatik gorak hartu zuten parte operaren arrakasta erdiesteko.

*La Bohème* operak, otsailean, eta *Carmen*-ek, orain, operak herritarren artean arrakasta duela erakutsi dute.



*Carmen* operako pertsonaiak, kantuan. | Z.V.D.M.

### Arrakastarekin pozarren

Ozenki Elkarte Lirikoa izan da *Carmen* opera Arrasatera ekarri duena. Elkarteko kide Manu Gallardok emanaldiaren balorazio oso positiboa egin du. "Ekoizle, artista, musikari, teknikari... guztiak aritu dira primeran".

Amaierako txalo zaparradak eta Ozenki Elkarteko kideek jasotako zorion ugariek aurrera egiteko indarra ematen dietela gaineratu du: "Askok Arrasaten horrelako ekimenak egitea ezinezkoa zela uste zuten, eta esker oneko berba ugari esan dizkigute".

Etorkizuneko erronka, aurten bezala, herrian opera hitzordu ezberdinak antolatzea litzateke. "Gure asmoa bi saio izango liratekete, aurten bezala. Ez dakigu posible izango den, baina, gutxienez, datorren urtean emanaldi bat bermatuko dugu: Verdiren *La Traviata*, hain zuzen". Aurrekariak ikusita, ziur arrakastatsua izango dela.



ARATZ ELKARTEA

# Sari eta guzti Gorgonzolatik

Aretxabaletako Aratz Elkarteko kideek Italiako Gorgonzolako Festival del Cinema Nuovo jaialdian hartu zuten parte aurreko asteburuan; *Ekipo* izeneko film laburra proiektatu zuten han. 102 lanetatik 23 iritsi ziren finalera, Aratzekoak tartean, eta Solidarita saria ekarri dute etxera. Lan esparruan kokatutako filma sortu dute, eta Italia aldean errekonozitu egin diete zortzi minutu irauten duen filmaren balioa. Zorionak, *ekipo!*

# Punk doinuak nagusi RIPeko kideei egingo dieten kontzertu-omenaldian

**Z.V.D.M.** | ARRASATE

Bihar egingo diete omenaldia RIP taldeko Karlosi eta *Portu*-ri Arrasateko Gaztetxean, 22:00etan hasita. Hiru talde igoko dira oholtzara: Garraxi, Piztu Punk! eta Insershow. Bestalde, aurten hildako Mariano Puñetazo ere omenduko dute.

Insershow taldea Kataluniatik etorriko da Arrasateko Gaztetxera. 2003an sortu zen eta 80ko hamarkadatik gaur arteko Euskal Herri zein Kataluniako 100 abesti ezagunen kantutegia dauka.

Piztu Punk!-i dagokionez, RIP, Obligaciones eta bestelako taldetako kidez osatuta dago. Ez dute kontzertu askorik eman; aukera ederra da kantu rockero indartsuekin gozatzeko.

Omenaldian parte hartuko duen hirugarren taldea Arrasatekoa bertakoa da. Garraxiko kideak "RIPen espiritua barneratu eta bestelako ibilbidea egiten jakin duten gazteak" dira. Gainera, bitxikeria moduan, taldekide baten aitak egin zuen RIP taldearen logotipoa.



*Portu* eta Karlos. | RIP

**Bi urtean behin**

Javi Sayes izan zen RIP ibarretik kanpo ezagutzera eman zuen pertsona. Hura izan zen, halaber, musika taldeko kideak omentzeko ekimena sustatu zuena. Orduan, urtero egiten zen omenaldi jaialdia, eta Donostian eta Andoainen elkartzen ziren. Duela sei urte Arrasaten egin zuten omenaldian, baina, erabaki zuten urtero beharrean bi urtean behin omentzea RIPeko kideak.



Iaz, Aretxabaletako herriko plazan izandako Txistulari Egunean. | JOSETXO ARANTZABAL

# Txistu soinua nagusi Arrasateko erdigunean

## 60 txistularik hartuko dute parte festan; inoiz txistua jo izan dutenei egin diete dei antolatzaileek

PERU ARREGI | ARRASATE

Arrasateko Udalaxpe elkarteak erronka garrantzitsua dauka bihar, zapatua. Izan ere, Leintz bailarako III. Txistulari Eguna ospatuko da herriko erdigunean barrena.

Aurreikuspenen arabera, 60 txistulari inguru ibiliko dira 11:00etatik aurrera kalejiran; 13:00 aldera kontzertua eskainiko dute Herriko plazan.

Ondoren, denek elkarrekin herriko elkarte baten bazkalduko dute; eta arratsaldean kalerik kale ibiliko dira –Oñati, Arrasate eta Soraluzetik etorriko dira–. Antolatzaileek dei egin diete inoiz txistua jo izan duten txistulari guztiei Leintz bailarako III. Txistulari Egunean parte har dezaten, elkarrekin.

### Harremanak sendotuz

Leintz bailarako Txistulari Eguna 2010. urtean abiatu zen. Elkar ezagutu eta harremanak sendotzeko asmoarekin, Eskoriatzan elkartu ziren inguruko txistulariak. Bertako txistulari taldeak, Mokilmazo Samaldak, antolatu zuen lehen edizio hura, eta, eguraldiak askorik lagun ez zuen arren, egun ederra pasatu zuten bertaratutako guztiek.

2011. urtean, Aretxabaletako Loramendi txistulari taldeak eman zion jarraipena eta Demetrio Iriarte, Aretxabaletako txistulari handia, izan zen eguerdiko kontzertuaren ardatz. Aretxabaletan ere giro ederraz gozatu zuten txistulari eta txistuzaleek.

### Helburua

Leintz bailarako Txistulari Egunak hasieratik duen helburua da bailarako txistulariek elkar ezagutzea eta harremanak sendotzea. Harreman horretatik errepertorioa zabaldu, ezagutu eta, neurri baten, bateratzea bilatzen da, eta beste edozein elkarlanetarako oinarriak jartzea.

Baina Udalaxpek beste helburu batzuk ere bete gura ditu Leintz bailarako III. Txistulari Egunaren antolaketarekin: txistulari ohiak taldera berriro erakarri gura ditu. Txistulari Egunarekin Arrasateri kultura ekarpena egin gura zaio, eta, batez ere, gazteei, txistua jotzeak eskaintzen duena erakutsi: ondo pasatzea, musikaz eta lagun giroaz gozatzea, kultur jardueretan aritzearen asebetetzea eskaintzea…

Hori lortzeko, hain zuzen, errepertorio samur eta ezaguna aukeratzen da Txistulari Egunean jotzeko. "Horrela, inoiz txistua jo izan duten horiengana eta familia betebeharrak direla-edo taldea utzi zuten txistulariengana heldu nahi dugu; sikiera, urtean behin, berriz ere txistua kalean jotzeko aukera eman", azaldu digu Iñaki Barrenak, Udalaxpe elkarteko zuzendariak.

Barrenak azaldu digunez, maiatza ezkero daramate Txistulari Eguna prestatzen; hala, abesti edo pieza ezberdin askoren zerrenda egiten saiatu dira txistuari oihartzun handiagoa emateko asmoz. "Oskorri edo Kepa Junkera bezalako musikarien abestietatik, zortziko edo fandangoetara, errepertorio sendoa prestatu dugu".

### Deia txistulariei

Antolakuntzatik dei egiten diete inoiz txistua jo izan duten txistulari guztiei Leintz bailarako III. Txistulari Egunean parte har dezaten. Atsegin handiz hartuko dituzte eguenero 19:00etan egiten dituzten entseguetan, Zerrajerako eraikinean kokatuta dagoen Udalaxpe txistulari taldearen lokalean. "Ateak zabal-zabalik dauzkagu Udalaxpe taldeko parte izan nahi duenarendako; nahi duten orok, txistua berreskuratu nahi dutenek edo ikasi, Zerrajerako lokalean aurkituko gaituzte", azpimarratu nahi izan digu.

### Elkarlanean

"Txistularien bateratzearekin, harremanak sendotzeaz gain, gure ezagutzak elkar transmititzeko asmoa daukagu", dio.

"Azken urteetan, instrumentu tradizional honekiko interesa hazi egin dela sumatzen dugu. Bultzatu eta zabaldu egin behar dugu", gaineratu digu Barrenak, elkarteko kideak.

# 'Noche de reyes o como queráis' Zabalotegin

L.B. | BERGARA

*Noche de reyes o como queráis* William Shakespeare autore ezagunaren komedia generoko antzezlana izango dugu ikusgai egubakoitz honetan, urriak 26, Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:00etan.

Carlos Baigesen moldaketa izango da Bergarara ekarriko dutena, 96 Unicornios Getxoko Antzerki Eskolaren eskutik. Sarrera bost euro da.

### Sinopsia

Bidaiatzen doazen itsasontziak izaten duen hondoratzea dela-eta, bikiak diren anai-arreba batzuk banan-duta geratzen dira. Eta hondoratzea dela-eta Iliriako kostaldean amaitzen dute.

Iliria herrialdea Olivia gobernatzailearen menpean dago, eta Orsino kondearekin maiteminduta dago. Baina Orsino, bere arreba maitearen heriotza dela-eta, torturatuta bizi da.



*Noche de reyes.*

# Larunbatean amaituko da aurtengo organo zikloa

## Aitor Oleak, Aritzeta abesbatzak eta Etxarri-Aranazko koruak itxiko dute zikloa Bergaran

LAIDA BERISTAIN | BERGARA

Nazioarteko Organo Kontzertuen XIII. Zikloaren azkenengo larunbata izango da aste honetakoa.

Lehenik eta behin, goizeko hamaiketan Bergarako eta Azpeitiko organo ikasleen kontzertua izango da. Kontzertu horren helburua da Aquilino Amezua Azpeitiko organo egileari omenaldia egitea, joan den larunbatean hura hil zeneko mendeurrena bete baitzen.

Ondoren, gaueko zortzietan, Bergarako Aritzeta abesbatzak eta Etxarri-Aranazko koruak emango dute kontzertua, Aitor Olea organo jolearekin batera. Autore aleman, ingeles, italiar eta frantsesen obrak joko dituzte ordubete iraungo duen kontzertuan.

### Aritzeta abesbatza

Gipuzkoako eta Euskal Herriko abesbatzen federazioko partaide eta Bergarako Udaleko Kulturako komisioko kide da. Horretaz gain, Bergarako musika eskolaren sustatzailea ere izan da.



Abesbatzako kide batzuk. | ARITZETA

Euskal Herriaz gain, Espainian eta Europan ere eskaini ditu kontzertuak.

Gaur egun 22 lagunez osatuta dago eta gaur arte 400 pertsona baino gehiago pasatu dira.

**AITOR OLEA** | ORGANO JOLEA

## "Kontzertuek harrera ona izan dute"

Aitor Olea (Durango) gaur egun Bergarako San Pedro elizak duen Stolz Freres (1889) organoaren organo jole titularra da eta organoko irakaslea da Bergarako Boni Laskurain musika eskolan.



AITOR OLEA

**Nolako kontzertua izango da bihar gauekoa?**

Organo eta ahotsarentzat zuzendutako musika erromantikoa izango da, XIX. mendeko eta XX. mende hasierako musika. Koru eta organoarentzat zuzendutako piezak izango dira batzuk. Horretaz gainera, ordea, organoarekin bakarrik beste hiru pieza joko ditut. Johannes Brahms autore alemanarenak dira hiru obrak.

**Zein izan da aurreko kontzertuen balorazioa?**

Ni Bergarako kontzertuetan bakarrik izan naiz, baina besteak ere ongi egon direla entzun dut. Bergarako kontzertuek harrera ona izan dute. Urteek aurrera joan ahala entzule kopurua gehitzen doa, zorionez, eta datozen urteetan horrela jarraitzeko gogoz gaude.



Beatriz Asurmendi aramaioarra, kontzertuetako batean abesten.

BEATRIZ ASURMENDI

**Beatriz Asurmendi | Ikaslea**

# " Oraindik gogoan dut Ingalaterrara heldu eta gospel koru baten sartzeko probak egin nituen eguna"

**AMAIA GARATE** | ARAMAIO

Beatriz Asurmendi (Aramaio, 1991) EHUn dabil Ingeles Filologiako azken urtea egiten. Txiki-txikitatik abestea gustatzen zaion aramaioarra White Shadow izeneko musika taldeko abeslaria da, ETBko *Bi gira* saioan parte hartu zuen eta Birminghameko Community Gospel Choir-eko abeslaria izan zen.

**Nolatan abestu zenuen Ingalaterrako gospel koru baten?**

Joan den ikasturtean, Erasmus bidez joan nintzen Birminghamera, Ingalaterrara. Urte ahaztezina izan zen niretzat, ez bakarrik munduko leku ezberdinetako lagun pila bat egin nituelako; izan ere, kultura ezberdinak ezagutu nituen eta nire ingelesa izugarri hobetu nuen, baina nire familia eta lagunek ondo dakiten beste amets hori ere bete nuen: gospel koru batean abestea. Urte batez, Birmingham Community Gospel Choir-eko abeslari izan naiz.

Kontzertu pila bat egin genituen Ingalaterra osoan, eta, horrela, gainera, herrialde horretako toki ezberdin asko ezagutzeko aukera izan nuen. Ahots-teknikari dagokionez, izugarri ikasi dudala nabaritzen dut. Inork inoiz erakutsi ez dizkidan gauzak ikasi ditut, eta benetan, bizitzan entzun ditudan ahots onenetarikoak izan nituen ondoan. Dudarik gabe, gospel koruarekin bizi izan dudan guztia ez dut inoiz ahaztuko. Koruaz gain, Birminghameko musika eskola batera ere joaten nintzen kantuko klaseetara.

**Nork bultzatu zintuen *Bi gira* saiora aurkeztera?**

Ahotsak Studion hiru urtez ibili ondoren, *Bi gira* saioan nire bikotekide izandako Miren Oteitzari eta bioi saioaren berri eman eta parte hartzera animatu gintuen bertako irakasleak. Aitortu behar dut, ordea, hasieran ez genuela gure burua telebista saio batean ikusten eta parte hartzea astakeria hutsa iruditu zitzaigula. Baina, bat-batean, "zergatik ez?", pentsatu genuen.

Eta eskerrak apuntatu ginen. Bizitzako esperientzia politenetako bat izan zen niretzat. Saioak iraun zuen hiru hilabete haietaz pentsatzeak izugarri hunkitzen nau. Esperientzia ahaztezina izan zen. Ostiralero, unibertsitatetik irten ondoren, Donostiara joaten ginen saioak grabatzera. Ederki pasatzen genuen eta lagun asko egin genituen. Egia da lan dezente egin behar izaten genuela astean zehar; izan ere, aste bakoitzean abesti ezberdin bat ematen ziguten eta gure kabuz atera behar genituen ahotsak, eta baita koreografiak prestatu ere. Baina merezi izan zuen, finalera heldu eta publikoaren saria irabazi genuen-eta!

**Nola sortu zen White Shadow taldea?**

Oier Arregik, Paulo Casalek, Asel Errastik eta laurok osatzen dugu. Taldea sortu baino lehen elkar ezagutzen genuen, baina bakoitzak musika talde ezberdin batean jotzen zuen. Egun batean entseatzeko lokalean topo egin, eta elkarrekin abesti batzuk jotzen hasi ginen. Entzun genuena asko gustatu zitzaigun, eta entseatzeko elkartzen hasi ginen, talde bat sortzea erabaki genuen arte. Bi urte pasa dira jada eta kontzertu dezente jo ditugu, inguruko herrietako festetan eta tabernetan. Musika motari dagokionez, zaila da gurea definitzea; izan ere, taldeko bakoitzak estilo nahiko ezberdina du. Nork bere kutsua ematen die abestiei, eta hori da, hain zuzen ere, taldearen ezaugarri berezienetako eta, era berean, politenetako bat.

**Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?**

Etorkizunean, nire ahotsa lantzen jarraitu nahi dut, ahots-teknikari dagokionez ahalik eta gehien ikastea. Oso motibatuta nago momentu honetan, eta ikasturte honetan karrera amaitu ondoren horixe egitea gustatuko litzaidake. Orain arte ez diot ahotsa lantzeari utzi eta ez dut etorkizunean hori egingo, bertatik bizi izatea baita nire ametsa.

**PERTSONALA**

**Gogoko liburu bat:** *La sombra del viento.*

**Gosari gustukoena:** Esnea eta tostadak Nutellarekin.

**Telefono dei pozgarriena:** Gospel koruak onartu egin ninduela esan zidatenekoa.

**Gogoko janari bat:** Amaren entsaladak.

**Bidaia gustukoena:** Birminghamekoa.

**Bidaiatzeko toki bat:** Landetako hondartza bakartiak.

**Etorkizuneko erronka bat:** Abestetik bizi ahal izatea.

**Bizi izateko herri bat:** Aramaio.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaion etxea salgai.** 105 metro koadrokoa: hori logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metroko garaje itxia atari ondoan. Erabilgarriak diren 15 metroko ganbara. Interesa izanez garo deitu zenbaki hauetara:. 669 70 39 77 edo 652728360 (Mariasun)

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Zerrajeran pertsona bakar edo bikote batentzako apartamentu atsegina errentan. Patio pribatua eta terraza dauka. 650 92 26 86

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Erosteko aukera ere bai. 675 71 50 36

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. 2 logela. Eguzkitsua. Oso egoera onean. Deitu zenbaki honetara:. 615 73 59 10

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83

### 104. ERRENTAN HARTU

**Baserrian bizi nahiko genuke.** Baserrian bizitzeko desiatzen gauden bikote bat gara. Ateak irekita ditugu edozein proposamenetarako: konpondu, zaindu... Auzoak bizirik mantendu behar ditugu, baserriak ezin dira hutsik egon! 652 76 73 39

**Bergara.** Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09

**Bergara.** Pisua hartuko nuke errentan, pertsona euskalduna. 635 74 61 45

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bila nabil astean zehar erabiltzeko. Gizonezko langilea naiz. 250 euro inguru ordainduko nituzke hilabetean. Posible bada Zigarrola edo erdigunean. Deitu 622 00 13 19 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 657 55 81 15 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Etxe berria. Erdigunean. Azaroaren 1etik aurrera sartzeko aukera izango luke. Presazkoa da. 630 94 68 37 (Eli)

**Bergara.** Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. 670 85 86 68

**Bergara.** Logela ematen da errentan. 699 09 46 26

**Elgoibar.** Logela daukat errentan emateko. 699 60 91 90

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Zerkaostetan, Iturbide egoitza parean, garajea salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 75 54 18

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lonja ematen da errentan, San Andres auzoan, Elektronika parean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94 467 60 20

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten.** Lagun koadrila batendako 50 metro koadro baino gutxiagoko lokal bat nahikogenuke errentan. 689373143 (Ander)

**Pabiloia.** Pabiloia behar dugu errentan Debagoienean. 605 76 98 97

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. 636 47 64 92

**Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. 697 20 00 86

**Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta.** Neska boliviarra gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Egunez, gauez zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkat eta esperientziaduna naiz. 618 14 71 34

**Bergara.** Mutil arduratsua gertu nagusiak zainteko. Geriatria ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 09 04 97

**Bergara.** Neska arduratsua gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 632 82 87 69

**Bergara.** Neska txakurrak paseatzeko eskaintzen da. 943 53 29 18

**Debagoiena.** Neska euskalduna haurrekin esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Pedagogian lizentziatua eta Haur Hezkuntza ikasten. 669 884 955

**Debagoiena.** Arrasateko emakumea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ere bai. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Debagoiena.** Astebukaeran lana egingo nuke, etxeak edo tabernak garbitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

**Debagoiena.** Bertako neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Egunez zein gauez. Dispobilitate osoa. Esperientzia. 618 00 08 28

**Debagoiena.** Emakume lanerako gertu. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin edo etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hamar urteko esperientziaduna. 646 78 81 40

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka edo astebukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko, baita ospitaletan ere. Tabernak ere garbituko nituzke. Disponibilitate osoa. Deitu 699 60 91 90 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39

**Debagoiena.** Garbiketak egingo nituzke. Baita zerbitzari lanak ere. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Igeltsari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zaintzaile gisa lan egingo nuke. 622 59 92 14

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Ikasketak eta esperientzia dituen emakumea nagusiak eta gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 672 67 76 26

**Debagoiena.** Lan egiteko emakumea gertu. Umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Mutil gaztea eta esperientziadunak sukaldari laguntzaile moduan eta garbiketan lan egingo luke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616 62 85 91

**Debagoiena.** Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldean lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666 83 21 95

**Debagoiena.** Mutila gertu harakin laguntzaile lanetarako. Esperientzia daukat hezurrak kentzen eta aurrekozinatutan. Edozein lanetara moldatzen naiz. 610 91 33 40

**Debagoiena.** Mutila gertu harategian edo sukaldean laguntzaile lanetan aritzeko, baita tabernetan, garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen ere. Esperientzia. 647 15 18 23

**Debagoiena.** Mutila gertu lan egiteko: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Orduka ere bai. 633 28 81 24

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako. Eskarmentua daukat hegazti granjatan, biltegian, eraikuntza zein margoketa lanetan. ORdutegi malgua eta edozein herritan lan egiteko prest nengoke. 631 10 57 91

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko, garbiketak eta abar. Baita baserrietan ere. 622 77 60 65

**Debagoiena.** Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketa lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616 62 85 91

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
**150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.**
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Zubiaurre 52 m², 2 logela. 141.238€.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 210.354€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 75 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.
- Zubiaurre 65 m². 3 logela. 57.000€. AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202m²
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak egiten. Gauez zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. Deitu telefono 685 13 48 63 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 05 11 99

**Debagoiena.** Neska gertu lan egiteko: umeak edo nagusiak zaintzen zein garbiketak egiten. Dendari ere bai. Etxean bertan bizitzen, egunez zein orduka. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egin, garbiketak, sukalde zein tabernatan. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96 edo 662 58 96 11

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634 12 56 87

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanek egin edo bestelako lanetarako. 722 14 42 86

**Debagoiena.** Neska gertu orduka, asteburu zein egun osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketak egiten edo sukalde laguntzaile. 662 26 71 41

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile gisa lan egingo nuke. Sei urteko esperientzia. Elikagai erabiltzaile titulua daukat. Miguel. 634 41 90 51

**Debagoiena.** Urte askotako esperientzia duen emakumea, arduratsua, lanerako gertu. Umeak zaindu, etxeko edo tabernako lanak eta etxe, jatetxe zein bestelako garbiketak egingo nituzke. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Honduraseko neska langile eta arduratsua.** Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26

**Lan bila.** Ostalaritzan eta umeak zaintzen esperientzia duen neska gaztea lan bila. 615 72 72 86

**Oñati.** Neska euskalduna gertu tabernako eta etxeko lanak egiteko. Baita umeak zaintzeko ere. 685 73 06 80

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Marrazketa eta neumatikako eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 678 61 50 45

**Euskara eskolak.** Kazetaritzako ikasle bat naiz eta karrerako 1go mailako euskara arloa prestatzeko laguntza behar dut. Interesatuta bazaude deitu mesedez ondorengo telefonora. Iosune. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 71 10 03

**Gitarra Oñatin.** Gitarra jotzen ikastea asko gustatuko litzaidake. Erakusteko prest bazaude deitu hona:. 635 73 87 54

**Italiera Oñatin.** Italierako eskolak jasoko genituzke Onatin. Deitu telefono zenbaki honetara: 685 73 06 80

### 502. EMAN

